

ARTE HEZKUNTZA

MAITE ZUBILLAGA OLAGUE

ARTEAREN IKUSMIRAK.
ADIERAZPEN ARTISTIKOA AUTO-
ESTIMUA, AUTO-IRUDIA,
EMOZIOAK eta TALDE-KOHESIOA
LANTZEKO BIDE.

TFG/*GBL* 2019

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Grado en Maestro de Educación Primaria /
Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

ARTEARNE IKUSMIRAK. ADIERAZPEN
ARTISTIKOA AUTO-ESTIMUA, AUTO-IRUDIA,
EMOZIOAK eta TALDE-KOHESIOA LANTZEKO
BIDE

Maite Zubillaga Olague

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Maite Zubillaga Olague

Izenburua / Título

Artearen ikusmirak. Adierazpen Artistikoa auto-estimua, auto- irudia, emozioak eta talde-kohesioa lantzeko bide.

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria/ Director-a

Araitz Urbeltz Munuce

Saila / Departamento

Psikologia eta Pedagogia.

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2018/2019

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Lehen Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakutsi dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluen barne dauden Oinarri Psikologikoan zein Giza antolaketa eta Giza garapena bezalako ikasgaien ezagutza esparruak bide eman digu lan honetako atal teorikoen hainbat kontzepturen garapena eta azalpena aurrera eramateko, marko teorikoa haurraren garapen psiko-sozial eta afektiboak jasotako aldaketak landu baitira, irudimena eta sormenaren garapenaren inguruan aritzeaz gain.

Didaktika eta diziplinako moduluen barnean Arte Hezkuntza I eta II ikasgaiak zein hezkuntzaren didaktikari dagozkionak baliabideak aurkeztu dizkigute adierazpen plastikoaren zein hitzezko komunikazioaren arteko harremanaren inguruan hausnartzeko eta lan honetan aurkeztuko den moduan, komunikazio eta espresio bide ezberdinen inguruko nozioak eskuratzeko.

Halaber, Practicum moduluak aukera eman digu, Hezkuntza Publikoaren barneko benetako errealitateaz jabetzeko eta bide batez, zenbait proposamen didaktiko (lan honetan aurrera eramanez direnak) aurrera eramateko, esperientziaz gozatzearen eta hauen eraginkortasunaz jabetzearen.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, bi eletan idatziko dira lanaren "Sarrera" eta "Ondorioak" atalak.

Laburpena

Lan honen bitartez haurren auto-estimaren, auto-irudiaren eta nortasunaren garapenean ikusmira jarri nahi izan da. Hezkuntza Artistikoaren arloak eskaintzen dizkigun baliabideak aintzakotzat hartuz, Lehen Hezkuntzarako Proiektu Didaktiko baten proposamena aurkeztu da. Arlo teorikoan, gaiaren inguruko ezagutza esparrua zabaldu ostean, auto-irudi eta auto-estimaren kontzeptua emozioekin zein talde-kohesioarekin erlazionatu egin da. Ildo honetan, Hezkuntza Artistikoak espresio bide bezala eskaintzen dituen zerbait esparru (erretratua, kolorea, etab.) kontuan hartu dira. Modu honetan, Unitate Didaktiko baten diseinua egin da, haurrek euren burua ezagutu eta balioestera bideratua egonen dena, hauek euren ikastalderen barnean jokatzeko duten rola inguruko hausnarketa bultzatzeaz gain. Helburu honekin, adierazpen plastikoa komunikazio eta espresio tresnatzat aurkeztuko da. Premisa honen pean eta aurkeztu diren faktoreen gainean lan egitearren, Lehen Hezkuntzako 3.mailako testuinguruan oinarrituak egonen diren jardura ezberdinak aurkeztuko dira, hezkuntza plastikoaren esparru ezberdinetatik abiatuz, haurren garapen integrala bermatzera bideratuak egonen direnak.

Hitz gakoak: Auto-estimua, auto-irudia, talde kohesioa, Arte Hezkuntza, adierazpen plastikoa.

Resumen

Con la presente propuesta didáctica fundamentada en Educación Primaria, se pretende trabajar sobre el desarrollo y la mejora del auto concepto y la autoestima a través de los diversos recursos que nos ofrece el área de la Educación Artística. Después de haber analizado diferentes teorías al respecto hemos relacionado la formación del auto-concepto y la auto-estima con el ámbito de las emociones y la cohesión grupal. En este aspecto y haciendo alusión a las diferentes formas de expresión (retrato, el color, etc.) que nos ofrece el campo de la educación artística se ha realizado el diseño de una Unidad didáctica. Mediante esta última se contribuirá a que los alumnos aprendan a descubrirse y valorarse además de trabajar y reflexionar acerca de los diferentes roles que juegan dentro de su grupo compañeros de clase.

Con este propósito se han presentado las artes plásticas como vía de comunicación y de expresión. Bajo esta premisa y con el fin de trabajar con los factores ya expuestos, se presentarán diferentes actividades basadas en el contexto de un aula de tercero de primaria. Para llevar a cabo estas actividades y proporcionar el desarrollo integral de todos los alumnos partiremos de los diferentes ámbitos de la educación plástica.

Palabras clave: Auto-concepto, Auto-estima, cohesión grupal, Educación Artística, expresión plástica.

Abstract

The present didactic propose based on Primary Education aims to work with the development and improvement of children's self-esteem and self-concept through different resources offered by Art Education. After having analyzed different theories, we found that self-esteem and self-concept are closely related to emotions and group cohesion. In this context, the main aim of the project has been to increase self-esteem and improve social relationships through different means of plastic arts (portrait, the use of colors and so on). Taking into account this purpose, the plastic arts are going to be used as different ways of communication and expression. In order to work with the aforementioned factors, different activities are presented to be implemented in the third level of Primary Education. Therefore, so as to provide the comprehensive development of all students, this project will focus on different areas of Art Education.

Key words: Self-esteem, self-image, group-cohesion, Art Education, plastic expression.

AURKIBIDEA

INTRODUCCIÓN	1
1. Justificación, objetivos y estructura del trabajo	3
1.1 Justificación	3
1.1.1 Vinculación del trabajo con el currículo educativo	4
1.2 Objetivos	5
1.3 Estructura del trabajo	6
2. Haurren garapena	7
3. Haurren garapen artistikoa	11
3.1. Haurren irudimenak jasotzen duen garapen prozesua	11
3.2. Haurrengan ematen den prozesu artistikoak jasotako garapena	16
4. Artea sentimenduak eta emozioak adierazteko bide gisa	25
4.1 Haurren garapen emozionala	25
4.2 Koloreak emozioen adierazpen bide gisa	29
5. Artea identitatea, auto-irudia eta auto-estimua lantzeko bide gisa.	31
5.1 Haurren nortasuna, auto-irudia, auto-estimua eta identitatearen garapena	31
5.2 Arte plastikoak norbanakoaren irudia eta identitatea irudikatzeko bide gisa.	34
ATAL PRAKTIKOA	37
1. Testuingurua	39
1.1 Ikastetxea eta ikasgelaren aurkezpena	39
1.2 Ikasleak eta euren garapen maila	39
2. Curriculuma	40
2.1 Gaitasunak	41
2.2 Helburuak	42
2.3 Edukiak	45
2.4 Ebaluazioa	46
2.5 Metodologia	47
3. Proposamen didaktikoa	51
3.1 Jardueren sekuentzia	52
3.2 Proposamen didaktikoa aurrera eramateko kronograma	84
ONDORIOAK	87
CONCLUSIONES	94
BIBLIOGRAFIA	99
ERANSKINAK	102
A. Eranskinak I. 1. Jarduerari lotutako material didaktikoa	102
B. Eranskinak II. 3. Jarduera: koloreen interakzioa	106
C. Eranskinak III. 6. Jarduerari lotutako material didaktikoa	114
D. Eranskinak IV. Ebaluazio orriak	121
TAULEN AURKIBIDEA	
Taula 1: Helburu Orokorrak. Curriculuma	42
Taula 2: 1. Jarduera curriculum zehaztapenak	52
Taula 3: 2. Jarduera curriculum zehaztapenak	54
Taula 4: 3. Jarduera curriculum zehaztapenak	57
Taula 5: 4. Jarduera curriculum zehaztapenak	58
Taula 6: 5. Jarduera curriculum zehaztapenak	62
Taula 7: 6. Jarduera curriculum zehaztapenak	63
Taula 8: 7. Jarduera curriculum zehaztapenak	65
Taula 9: 8. Jarduera curriculum zehaztapenak	68
Taula 10: 9. Jarduera curriculum zehaztapenak	69

Taula 11: 10. Jarduera curriculum zehaztapenak	71
Taula 12: 11. Jarduera curriculum zehaztapenak	73
Taula 13: 12. Jarduera curriculum zehaztapenak	75
Taula 14: 13. Jarduera curriculum zehaztapenak	78
Taula 15: 14. Jarduera curriculum zehaztapenak	79
Taula 16: 15. Jarduera curriculum zehaztapenak	80
Taula 17: 16. Jarduera curriculum zehaztapenak	82
Taula 18: Laminen azalpena	111
Taula 19: Ebaluazio Errubrika, Jarrera ebaluatzeko errubrika orria	121
Taula 20: Ikasleentzako eduki prozeduralak eta kontzeptualak ebaluatzeko orria	123
Taula 21: Ikasleen auto ebaluazio orria	126
Taula 22: Ikasleek irakaslea ebaluatzeko taula	127

IRUDIEN AURKIBIDEA

Irudi 1: Kandinsky, el ideal de lo inmediato (1910)	9
Irudi 2: Velazquez, Las Meninas (1565)	9
Irudi 3: Marrazkia, Maddi, HH 3. Mailako ikaslea	12
Irudi 4: Nerearen marrazkia, 14 urte	14
Irudi 5: Iruneren marrazkia 21 urte	14
Irudi 6: Marrazkia, Gartxot hiru urte	17
Irudi 7: Tasi, 8 urteko hauraren marrazkia	20
Irudi 8: Cristinaren marrazkia, 50 urte	23
Irudi 9: Helburuen garapena	45
Irudi 10: Txori irudiko zigilua	59
Irudi 11: Zigiluekin eta oinarrizko koloreekin margotzen	59
Irudi 12: Zigiluen bidezko konposaketa eratzen	60
Irudi 13: Ikasle batek burututako konposizioa	60
Irudi 14: Ikasle batek burututako konposizioa, "hosto bikoitza"	61
Irudi 15: No soy perfecta liburua	66
Irudi 16: Jarduera burutzeko adibidea. Esos Locos bajitos	75
Irudi 17: Maite. Ikasleei aurkeztutako eredua	76
Irudi 18: Erretratu kubista, Alaitz, 8 urte	77
Irudi 19: Erretratu kubista, Adriana, 8 urte	77
Irudi 20: Liburuaren proposamena	83
Irudi 21: Jarduera ezberdinen kronograma	86
Irudi 22: 4. Jarduera ikasleen konposizioa	91
Irudi 23: 4. Jarduera ikasleen konposizioa	91
Irudi 24: 4. Jarduera ikasleen konposizioa	91
Irudi 25: 4. Jarduera ikasleen konposizioa	91
Irudi 26: Erretratu kubista, Izan	93
Irudi 27: Erretratu kubista, Asier	93
Irudi 28: Erretratu kubista, Lorea	93
Irudi 29: Erretratu kubista, Julia	93
Irudi 30: Erretratu kubista, Mitxel	93
Irudi 31: Erretratu kubista, June	93
Irudi 32: 1. Jardueraren materiala: Henri Matisse testua eta galdera sorta	102
Irudi 33: 1. Jardueraren materiala: Frida Kalho testua eta galdera sorta	103
Irudi 34: 1. Jardueraren materiala: Andy Warhol testua eta galdera sorta	104
Irudi 35: 1. Jardueraren materiala: Pablo Picasso testua eta galdera sorta	105
Irudi 36: 3. Jarduera: Materiala: Portada lamina	106

Irudi 37: 3. Jarduera: Materiala: XIII-1. lamina	106
Irudi 38: 3. Jarduera, Materiala: XIV-1. lamina	107
Irudi 39: 3. Jarduera: Materiala: VI-3, VII-4. laminak	108
Irudi 40: 3. Jarduera: Materiala: VIII-3 eta IX-1, laminak	109
Irudi 41: 3. Jarduera: Materiala: v-1, lamina	110
Irudi 42: 6. Jarduera, materiala: Hau aurretiko plano perfektua da!	114
Irudi 43: 6. Jarduera, materiala: Izen perfektua pertsonaren arabera da!	115
Irudi 44: 6. Jarduera, materiala: Perfektua izateko uneoroko grina!	116
Irudi 45: 6. Jarduera, materiala: Kolore perfektuak ortzadarrarenak dira	117
Irudi 46: 6. Jarduera, materiala: Tragedia perfektu guztiak bere komedia puntua daukate	118
Irudi 47: 6. Jarduera, materiala: Hau haur perfektu bat da	119
Irudi 48: 6. Jarduera, materiala: Ebaluazio fitxa A eta B	120

INTRODUCCIÓN

El desarrollo de la autoestima es fundamental para la formación de los alumnos en Educación Primaria, sobre todo para el desarrollo de la educación emocional y el proceso de aprendizaje con sus compañeros. Por tanto el auto concepto y el desarrollo de la autoestima es importante para el desarrollo integral y el funcionamiento de las personas.

Partiendo de la visión de la Educación Primaria, uno de sus principales objetivos será conseguir el desarrollo integral del alumnado haciendo hincapié en la necesidad del desarrollo de las capacidades tanto cognitivas como afectivas y sociales.

Desde una visión actual de la educación y partiendo de la realidad educativa y la experiencia tras la realización del periodo de prácticas 3, mediante este trabajo vamos a trabajar con un ámbito que tiene gran relevancia en lo que respecta al desarrollo afectivo y social del ser humano. De este modo, trabajaremos con los conceptos autoestima, autoimagen, emociones y cohesión social desde las bases de la Educación Artística.

La autoestima constituye un proceso de interiorización que se irá desarrollando a medida que el alumno vaya reflexionando sobre su realidad, sus relaciones con el medio social y los procesos de comunicación que surgen con su entorno social próximo (familiares, amigos, etc.). Teniendo en cuenta los factores expuestos resulta de vital importancia trabajar y reflexionar a cerca de la autoestima, proporcionándole al alumno las herramientas necesarios que le permitan adquirir seguridad, independencia y capacidad para sentirse parte de un grupo social.

Teniendo como objetivo principal facilitar al niño la adquisición de una buena imagen de sí mismo que le ayude en su desarrollo integral nos vamos a servir de las posibilidades que nos ofrece la expresión plástica en este ámbito.

La expresión plástica desempeña diversas funciones de gran importancia para el niño entre las más destacadas, la función comunicativa, que le ayuda a expresar su mundo interior; la función representativa, que resulta necesaria para el niño, ya que necesita representar sus emociones, sus imágenes mentales, todo lo que ocurre en su interior;

y por último, la función lúdico-creativa, que ofrece al niño la posibilidad de fermentar su creatividad, su imaginación y el goce por todo lo que hace. (Álvarez, 2010)

Bajo esta premisa y con el fin de adentrarnos en el campo de lo previamente expuesto, mediante este trabajo se plantea una propuesta didáctica partiendo de diversos principios Artísticos con la función de trabajar la autoestima, autoimagen, la expresión emocional y la cohesión grupal.

1. JUSTIFICACIÓN, OBJETIVOS Y ESTRUCTURACIÓN DEL TRABAJO

1.1 Justificación

El tema elegido sobre el que se va a desarrollar mi Trabajo de fin de grado es la el desarrollo de la autoestima, auto imagen, expresión emocional y cohesión grupal a través de las diferentes modos de expresión artística. Dentro de las diferentes herramientas y estrategias, mi trabajo se va a centrar en la capacidad de expresión artística mediante la interacción del color y diferentes formas de la auto representación, con el fin de analizar la autoestima y la autoimagen de los alumnos y la influencia que esto tiene en el desarrollo socio-emocional de los mismos.

La elección de este tema se justifica tras la dificultad para llevar a cabo la primera propuesta: la investigación en el ámbito de la arte terapia y la inclusión social. Con la intención de realizar una investigación a cerca del tema mencionado y tras leer a cerca de los diferentes beneficios de la Arte terapia me resulto de gran interés un proyecto realizado en un colegio madrileño llamado “me siento vivo y convivo” (Fernández, 2007) que trataba el tema de la autoestima mediante las diferentes disciplinas artísticas con un alumnado de origen extranjero. Tras la lectura de este proyecto y la observación que he llevado a cabo durante el periodo de prácticas III he visto la necesidad afectiva que los alumnos proclaman constantemente. Por ello y teniendo en cuenta la poca importancia que cobra el ámbito del desarrollo artístico y la asignatura de Plástica, decidí diseñar una propuesta didáctica basada en el contexto de tercero de Educación Primaria con el fin de trabajar la autoestima, la autoimagen, la expresividad emocional y lo que esto afecta a la cohesión grupal con los alumnos.

Con este objetivo se van a proponer diferentes sesiones en las que se les ofrecerá a los alumnos diferentes herramientas artísticas con las que ellos puedan mostrar sus habilidades de forma espontanea y puedan expresar sus sentimientos a traves de los medios artísticos.

Richardson sostiene que las artes vehiculan competencias que permiten crear algo agradable y con capacidad de despertar emociones, por ello, es necesario interrelacionar la creatividad y las artes con los procesos cognitivos que

tradicionalmente se han otorgando al aprendizaje, siendo emoción y cognición dos aspectos inseparables. Esto nos llevará al goce intelectual y a la humanización y calidad de vida de las personas. (Miret Latas & Jové Monclús, 2012)

El fin de la propuesta didáctica que se va a exponer en este trabajo será relacionar el ámbito emocional y el cognitivo a través del dialogo con las imágenes, colores, y diferentes formas de expresión plástica para poner en juego las competencias sociales, emocionales, artísticas y comunicativas de los alumnos, desde el desarrollo de su propia auto imagen, identidad y el autoconocimiento.

1.1.1 Vinculación del trabajo con el currículo educativo

DECRETO FORAL 60/2014, de 16 de julio, por el que se establece el currículo de las enseñanzas de Educación primaria en la Comunidad Foral de Navarra establece que la finalidad de la Educación Primaria es facilitar al alumnado los aprendizajes de la expresión y comprensión [...] el sentido artístico, la creatividad y la afectividad, garantizando una formación integral que contribuya al pleno desarrollo de la personalidad de los alumnos y alumnas.

El artículo 4 de esta misma ley determina como objetivos a lograr la comprensión y el respeto de las diferentes culturas y las diferencias entre personas, la igualdad de derechos entre hombres y mujeres y la no discriminación de las personas con discapacidad.

En esta misma línea determina la necesidad de desarrollar las capacidades afectivas de todos los alumnos en todos los ámbitos de la personalidad y sus relaciones con los demás así como una actitud contraria a la violencia, a los prejuicios discriminaciones de cualquier tipo de estereotipos sexistas.

En el área de la Educación Artística se advierte la necesidad del desarrollo artístico en el proceso de aprendizaje ya que las facetas artísticas pueden servir como medio de expresión de las ideas, pensamientos y sentimientos. Parte de la idea de que al igual que ocurre con otros lenguajes, el ser humano utiliza tanto el lenguaje musical como el plástico como medio para comunicarse con el resto de seres humanos.

Igualmente, La Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre, para la mejora de la calidad Educativa establece que durante la etapa de Educación Primaria se tienen que desarrollar siete competencias: (1) Comunicación lingüística; (2) Competencia matemática y competencias básicas en ciencia y tecnología; (3) Competencia digital, (4) Aprender a aprender; (5) Competencias sociales y cívicas; (6) Sentido de iniciativa y espíritu emprendedor; y (7) Conciencia y expresiones culturales. De este modo, desde el ámbito de la Educación Artística y la utilización de diferentes estrategias plásticas, se debe contribuir también al desarrollo de dichas competencias. El desarrollo de cada una de las competencias se explicará más adelante, a lo largo del trabajo.

En este sentido, con la intención de desarrollar lo previamente expuesto y adecuando la propuesta didáctica a los objetivos y competencias necesarias al nivel educativo de tercero de primaria se propondrán diferentes actividades que trabajaran de forma integral con los bloques determinados por el currículo para el ámbito de la Educación Plástica (Educación audiovisual; Expresión artística; Dibujo geométrico; Danza y Movimiento y Interpretación).

1.2 Objetivos

Mediante este TFG y siguiendo los objetivos planteados por Fernández (2007), los principales objetivos que voy a desarrollar como profesora en el área de Educación Artística son los siguientes:

- i. Desarrollar la autoestima y el fortalecimiento de la relación mutua entre iguales mediante los trabajos y obras de diferentes artistas, para que mediante la empatía puedan iniciarse en la interpretación de sus sentimientos y pensamientos.
- ii. Trabajar con la propia identidad, el sentimiento de utilidad, la valoración y asunción de riesgos y decisiones personales potenciando la adquisición de formas e instrumentos de expresión, con la finalidad de expresar las vivencias y emociones propias.

- iii. Despertar el interés por la auto reflexión sobre uno mismo y sobre el entorno social próximo trabajando el lazo social y la convivencia a través del arte.
- iv. Ofrecer un espacio para promover el desarrollo de los distintos modos de expresión creativa promoviendo una espontaneidad que contribuya a la afirmación de la propia identidad y mejorar la comunicación consigo mismo y con los demás.

1.3 Estructuración del trabajo

Este TFG está estructurado en diferentes apartados; introducción, fundamentación teórica, marco práctico, conclusiones, listado de referencias y finalmente los anexos.

Para comenzar, en la introducción, se recogen la justificación del tema elegido, los objetivos principales del trabajo y la estructuración del mismo.

Para seguir con el tema, el marco teórico da pie a analizar el desarrollo del niño tanto en el ámbito artístico como psico-afectivo. En este mismo apartado se mostrará la información adquirida entorno a la capacidad artística, para trabajar aspectos como la identidad, auto concepto y autoestima tanto como el uso del mismo ámbito como modo de expresar sentimientos y emociones. Así este apartado examina diferentes literaturas e información donde se hace referencia a diversas investigaciones y propuestas por diferentes autores en el ámbito de la Educación Artística con el fin de trabajar los conceptos de autoestima auto concepto y aclarar su significado y la influencia que estos tienen en las relaciones socio-emocionales.

En relación al marco teórico y teniendo en cuenta los conceptos planteados en el mismo se presenta el marco práctico. En este apartado y teniendo en cuenta los contenidos curriculares, diferentes estilos metodológicos, sistemas de evaluación, capacidades de los alumnos y los objetivos previamente propuestos se ha redactado una Unidad Didáctica dirigida a el curso de tercero de educación primaria. La propuesta ofrecida está diseñada para ser realizada en el periodo de un año académico y en este caso, aprovechando el periodo de prácticas III se ha basado y desarrollado en el contexto del aula en el que realice mis prácticas como tutora.

Finalmente, en el apartado de conclusiones, se plantean las conclusiones extraídas de la información adquirida a cerca del tema, teniendo en cuenta las diferentes investigaciones que me han servido de guía para la redacción de mi propuesta didáctica. Asimismo, en este apartado se mostrará la observación realizada tras impartir dos sesiones de mi propuesta didáctica y la acepción de los alumnos ante estas.

2. HAURRAREN GARAPENA

Gardner, H.(1982). *Arte, Mente y cerebro* liburuan. J. Piageten teoriaz baliatzen da ondorengo kapituluetan barna murgildu ahal izateko aurre azalpen gisa. Haurraren garapen artistikoa, auto-estimua ren garapena eta emozioen kudeaketa aztertu aurretik, nahitaezkoa izanen dugu lan honetan ere, haurraren garapen psiko-ebolutiboaren inguruko zenbait argibide edukitzea.

Abiapuntutzat, autore honek, Jean Piaget (1930): *Psicólogo, educador y epistemólogo genetista kapitulu*an bildu dituen zenbait zehaztapen kontuan hartuko ditugu. 1930ean Piagetek “jakite zehatzen” inguruko zenbait ikerketa burutu ondoren, ezagutzaren etapa ezberdinak bereizi zituen, hauei, gizakiaren garunean leku bat esleituz. Ikerketa hauen bitartez, baieztatu zuen “buru eragiketa¹” hauek pentsamenduaren oinarri zirela. Ikerketa honen erantzun garrantzitsuenetariko bat Piagetek jarraian aipatuko diren adimenaren garapenaren inguruan zehazturiko lau etapak izan ziren.

Lehenengo etapa, bere aldetik, jaiotzetik bi urte periodorako adinera arte dihardu, adimen sentzorimotriz-arekin harremanetan egonen delarik. Etapa honetan umeak ingurunea ezagutuko du, espazio-denbora tarte batean, objektuek existentzia

¹ Buru eragiketak: Haurraren pentsamendua zentralizatua edo egozentrikoa izateari uzten dionean lortutako gaitasuna. Haurrak pentsamendu logiko formala berenganatzen duenean ematen dira. Horrela, haurra gai izanen da estimulu baten ezaugarriak aldi berean kontuan hartzen, estatikoak diren estadioak alde batera utziz. Piagetek (1930) etapa honetan zehar (7-11 urte) umeak burutzen dituen buru eragiketa edo mundua interpretatzeko burututako sailkapen hauek hirutan banatzen ditu: serioa, sailkapena eta kontserbazioa (Linares, 2008).

iraunkor bat dutela ulertuz. Honetarako, honen gainean burutzen dituen ekintzetatik eta bere hautemateetatik abiatuko da.

Bigarren etapa haurtzaro garaiko etapari dagokio eta pentsamendu sinbolikoarekin dago zuzenean harremanetan. Kasu honetan, haurra munduari erreferentzia egiteko hizkuntza, irudi mentalak eta zenbait sinbolo erabiltzeko gai da. Sinbologia² bidezko ezagutza, aitzitik, estatikoa izaten dihardu, haurra ez da gai bere irudi mentalak manipulatzeko, alegia; hautemateetik jasotako gaineko ezaugarriekin geratuko delarik. Edonola ere, irudi mental hauek manipulatzeko gaitasuna eskola aldiaren hasierarekin bat garatzen hasiko da, pentsamendu konkretuaren etapan murgiltzen garenean.

Hirugarren etapa, bere aldetik, operazio konkretuen etapa izanen da, zazpi eta hamabi urte bitartean kokatuko dena. Zazpi – zortzi urteko haurra “barne ekintzei³” edo “ ekintza mentalei” so eginez, egoera batean gertatzen ari dena aintzat hartzeko gaitasuna eskuratuko du - adibidez, objektu multzo batek aurkeztutako irudia- ez bakarrik bere ikuspegia kontuan hartuz, beste pertsona baten ikuspuntua ere aintzakotzat hartuko baitu. Honetaz gain, objektu hauek modu zuzen eta koherente batean sailkatzeko gai da, hauen iragankortasuna ulertzeko gai izanik. Kontuan hartu beharra dago, itzulgarritasunaren printzipioaren⁴ bitartez, eszena bera perspektiba ezberdinetatik interpretatzeko gai izanen dela (Piaget (1930) Gardnerrek aipatua (1982, 29.or).

Nerabezaro goiztiarrean, operazio formalei loturiko aldiari hasiera emanen zaie, non haurra gai izanen da entitate fisikoen zein sinboloen inguruan errepresentazio mentalak egiteko. Sinboloak manipulatzuz, aldatuz, etab. hauen inguruko proposizio logikoak burutzeko gaitasuna lortuko du. Etapa honetan haurra problema zientifikoak

² Sinbologia bidezko ezagutza: Esparru honen barnean literatura, artea eta errealtatera hurbiltzeko gizakiak erabiltzen dituen eredu sinboliko guztiak biltzen dira. Gizakia estetika eta edertasunera gerturatzeko bidea izanen da, arrazoia bestelako maila batean egonen den ezagutza izanik-

³ Barne ekintza edo ekintza mentalak: Piageten teorian (1930) gogoeta egiteko gaitasuna eta abstraktuki pentsatzeko gaitasunari deritza. Lau ezaugarri nagusi biltzen dira bere baitan: proposizio-logika, arrazoiketa zientifikoa, proposizio edo probabilitatearen inguruko arrazoiketa eta konbinaketa- arrazoibidea. (Linares, 2008)

⁴ Itzulgarritasun printzipioa: Ekintza fisiko edo mental bat burutzerakoan, ekintza horretan hasierako egoerara itzultzeko gaitasuna. Hots, amaierako emaitza edo egoera batetik abiatuz, dedukzio bidez, hasierako egoerara heltzeko gaitasuna (Linares, 2008).

burutu eta proposatuko ditu. Honezkerok, garai honetan haurra logikoki arrazoitzeko gaitasuna eskuratu du, “abstraktu” edo “teorikoa” den mailatik aldendu gabe. Hori dela eta, munduaren inguruko ondorioztapenak egiteko hitzak edo sinboloak erabiltzeko gai direlarik. Hori horrela, obra abstraktu edo errealean aurrean interpretazio bat burutzeko gai izanen dira, artearen inguruan egiten diren ebaluazio guztiak erlatiboak direla kontsideratzeko gai izanik.

Honen adibidetzat bi obra aurkeztuko ditugu alde batetik Kandinskyren lehenengo akuarela abstraktua, “El ideal de lo inmediato” (1910) eta bestetik Velazquezen “Las Meninas” (1656).



Irudi 1: Kandinsky, El ideal de lo inmediato (1910).



Irudi 2: Velazquez, Las meninas (1656).

Lehenengo obra abstraktua izanik, garai honetan haurrak gai izanen dira honetaz jabetzeko eta koadroa bere ikuspuntutik azaltzeko. Honetan, koordinazio alde batera uzten duen koadroa azaltzen zaigu, non kolore, lerro edota kolore orbanen artean elkarrekiko akordiorik ez den agertzen. Konposizioak ez digu dialogo formalik aurkezten eta haurrak horretaz jabetzeko gai dira, bere interpretazio propioak egiten dituztelarik, obrak tramitatzen dietena aintzakotzat hartuz. Bestetik, bigarren obraren inguruan hausnartzera bultzatzen zaienean, koadroa errealitatea adierazten duenarenen jabe dira, izan ere, pertsonak, txakurra, gelaren itxura, etab. ezagunak dituzten sinboloak edo formak dira, egunerokotasunaren parte eta pertzepzio bisualez identifikatu ditzatenenak, alegia. Hori dela medio, adin honetan, nahiz eta artista ezberdinen estiloak ezberdintzeko gai izan, haurrak oso literalak dira eta artea errealitatea kopiatzeko bide gisa ikusiko dute, hots beraiantzat geroz eta zehaztasun

gehiago eduki orduan eta hobearen izen da obra. Funtsean, nerabezaroan artearen inguruko irudikapen konplexuagoa daukate eta teknikoki konplexuagoak diren obrak nahiago dituzte, errealistak edo tradizionalak diren obrak onetsiz (Gardener, 1982, 129.orr). Horregatik, bigarren obra gailenduko dute lehenengoaren aurrean.

Piageten (1930) ustetan, lau etapa hauek edozein gizakian funtsezko izanen dira eta etapa bakoitza, aurrekoaren jarraipena izanen da, aldi berean, hurrengo etapetara igarotzeko oinarritzko bide izanen direlarik. Horrenbestez, denbora eta ingurunearekiko interakzio ezberdinak aintzat hartuz, haur guztiak lau etapa hauek zehaztutako prozesua burutu beharko lukete.

3. HAURRAREN GARAPEN ARTISTIKOA

Jarraian garatuko den atalean, Arte Hezkuntzaren gaian murgiltzearren haurrak alor honen barnean jasaten duen garapena aztertuko dugu ondoren, proposamen didaktikoa burutzerakoan, adin tarte bakoitzean haurrak izan ditzaketen gaitasunak kontuan hartzearren. Honetarako, haurraren irudimena eta prozesu artistikoaren garapenarekin lan eginen dugu, jarraian agertuko den moduan.

3.1. Haurraren irudimenak jasotzen duen garapen prozesua.

L.S. Vigotsky-k (1892) adierazten digun moduan, gizakiak zerbait berria sortzeko gaitasun orori jarduera sortzailea deritzo. Jarduera hau kanpo mundutik eratorritako edozein estimuluk eraginda edota gure garunaren eraikuntzak sortutako sentimenduen erantzuna izan daiteke.

Sormen prozesuari loturiko ekintza hauek haurtzaroko lehenengo urteetan nabarmendu daitezke, batik bat haurraren joko eta jolasetan. Haurren jolasak aztertuz gero, ikus dezakegu ez direla aurretik bizitako bizipenak birgogoratzera edo errepikatuzera mugatzen, baizik eta hauek birmoldatu, berregituratu edota aldaratu egiten dituzte, bere nahi eta beharretara egokitu nahirik. Jokoetan antzeman daiteken moduan, umeak gauzen inguruan amets egiteko daukaten joerak, beraien sormen jarduerekin zuzenki lotuak egonen dira.

Autore eta liburu berarekin jarraituz (1892), jarduera sortzailearen analisi psikologikoa eginez, esan dezakegu, hau mailakatutako prozesu baten erantzuna izanen dela eta formatatik hasiz, gradualki konplexuagoak diren estadioetara igarotzen joanen direlarik. Prozesu honetako maila bakoitzean, haurrak, norbanakoaren espresio bide propioa lortuko du, beraren garapen mailarekin bat egiten duena. Bidenabar, lanean murgildu ahala, emozioei loturiko atalean, aipaturiko prozesu honek haurraren garapen emozionalarekin daukan lotura zuzenaz jabetuko gara. Alabaina, emozioak hautematek ezagutzerako jautzia egiten dugu, hau garapen prozesu konplexu baten ondorio izanen delarik.

Irudimenaren mekanismoa ulertzeko fantasia eta errealitatearen arteko

ahaidetasunik abiatu beharra dago. Fantasia mundu errealetik eratorritako elementuez osatua egonen da. Horrenbestez, jarduera sortzaileak harreman zuzena izanen du norbanakoak metatutako edo bildutako esperientziaren aberastasun edota aniztasunarekin. Norbanakoaren esperientzia geroz eta anitzagoa izan, orduan eta aberatsagoa izanen da irudimenerako erabilgarria izanen dugun materiala.

Arestian aipatu bezala, irudimenak, konposizio prozesuaren barnean paper konplexua jokatzen du. Haurren sormen jardueraren hasiera markatuko duten lehenengo pausuak, haurrak berak ikusitako eta entzundakoan oinarrituko dira, hauek, etorkizunean, bere fantasia propioa eraikitzeko baliabide bihurtuko direlarik. Norbanakoaren barne faktoreak irudien berreraikuntzaz eta desitxuratzeaz arduratuko dira, nahiz eta kanpo faktoreez baldintzatuak egon. Horrenbestez, eta ondorengo ataletan zehatuko den bezala, gure obrak edo marrazkiak gure emozioak, sentimenduak, etab. adierazteko erabiliko ditugu, hauek norbanakoaren "niaren" ukitua izanen dutelarik.



Iruidi 3:Marrazkia, Maddi, HH 3. mailako ikaslea.

Horrela, umeak burutzen dituen kanpo espresioak umearen barne espresioengandik baldintzatuak egonen dira, hots, umearen arte lan batean handiagotze nabarmen bat aurkezten badu, bere barne gogoak horrela eskatzen

diolako izanen da (Vigotsky, 1982).

Honen adibidetzat, aurreko marrazkia daukagu non ikasleak burututako errepresentazioa, barne inpresiotik abiatua egonen da. Haurra edo pertsona marrazterakoan “gaixorik” dagoela azaldu digu, horregatik aurpegia berdez koloreztatzea erabaki du. Honetaz gain, argi ikus daiteken moduan eta haurraren garapen artistikoarekin bat eginik, ikus daiteke oraindik ere proportzioez jabetzeko gaitasuna ez duela eskuratu, izan ere, marrazki honetan haurraren aurpegiaren garrantzia nabarmena da, buru-gorputz proportzionaltasun erlazioa alde batera utziz. Honetaz gain, pertsona eta autoaren arteko tamaina proportzioaz ere ez dela jabetu gaitzke, haurra autoa baino askoz ere handigoa baita. Alabaina, espazioaren kudeaketa eta elementuen orden logikoa alde batera uzten ditu, marrazkien zerua eta lurra berezitu arren, bai autoa zein haurra hegan egongo balira bezala aurkeztuz. Honetan, haurrak marrazkiko pertsonan fokua jartzea erabaki du, hau beste objektuen aurrean gailenduz, bai tamaina zein koloreari dagokionez. Horrela, esan dezakegu gaixorik dagoen haurraren irudia burutzearen barne gogoak zuzendua, kanpo espresio gisa honako marrazkia burutu duela.

Asmatzeko, ezinbestekoa izanen da irudien bat-batekotasunaren agerpena, eta askotan, garunak, inkontzienteki mugimendu hauek norbanakoaren egoera emozionalarekin harramantzen ditu. Horrela, beharren edo nahien existentzia berak, irudimenaren prozesua martxan jartzen du, nerbioen kitzikapena sorrarazteko adina material eskainiz. Bi premisa hauek ezinbestekoak izanen dira sormen jardueraren barne diren prozesu guztiak ulertzeko.

Honen karira, irudimena, barnekotasunari egokitu ohi zaion ezaugarria dela esan dezakegu, neurri batean kanpo eragileez baldintzatua egonen dena. Aldiz, irudimen prozesu bera, barnetik bideratua egonen da, gizakiaren sentimendu edo beharretatik abiatuko delarik.

Haurraren garapen prozesuarekin bat, bere irudimena ere garatzen doa eta azkeneko honek helduaroan, garapen maila konplexuenera helduko da. Alabaina, haurrek bere fantasiaren fruituetan gehiago sinesten dute, hau gutxiago kontrolatzen dutelarik. Horregatik, asmatua den irudimena, hots errealitatetik aldentzen dena, haurrarengan nabariagoa da helduekin alderatuz.

Heltzen doazen heinean haurtzaroko sormenezko irudimena ez da erabat desagertzen. Irudimen honen garapenak, aldiz, epealdi kritiko bat jasotzen du, non haurtzaroko oreka apurtzen den helduaroaren organismoarekin loturiko oreka aurkitu baino lehen. Adin honetan, haurrak bere marrazki propioak kritikatu dituzte, haurtzaroko eskemak jada asetzen ez diren irudiak izanen direlarik, haurrak zer marraztu ez dakitela aldarrikatzen hasten dira (Vigotsky, 1982, 43-44. orr). Etapa edo momentu horretan, munduaren pertzepzioak eta ikusmen organoak jorratzen duten paperak garrantzi handiagoa hartuko dute, izan ere, lan honen lehenengo atalean azaldu dugun moduan, haurrak bere angelutik mundua ikuskatzen joanen da, honen konplexutasunaz jabetzen joanen direlarik. Era beran, errealitatearen errepresentazio fidel bat egin saiatuko da, eta burututako marrazkiak euren burua asetzen ez badute (bai teknika aldetik xumeak ikusten dituztelako, konplexutasun maila eza dela eta, errealitateko figurekiko atxikimendu eza dela medio, etab) marrazteko grina galduko dute eta euren marrazkiak kritikatu dituzte (Vigotsky, 1982, 110. orr).



Irudi 4: Nerearen marrazkia, 14 urte



Irudi 5: Iruneren irudia 22 urte

Honen adibide moduan bi marrazki hauek aurkeztuko ditugu. Bai Nereak zein Irunek errealitatearen errepresentazio fidelera hurbiltzen diren bi marrazki aurkezten saiatu dira (euren errealitatera, izan ere Irunek etxea marrazterakoan pisuz osatutako eraikin bat marraztu du; Nereak, aldiz etxe bat, etxe batean bizi baita). Gainera, Nerearen kasuan erregelaz baliatu dela ikus dezakegu, etxearen errepresentazio zehatz bat egin nahian nahiz eta perspektiba eta objektuen arteko oreka ez mantendu. Bi marrazkiak sinbologiaz beteta daudela ikus dezakegu (zuhaitza, eguzkia, zeruaren

kolorea, etxea, neska marrazteko modua, etab.) objektuen gaineko maila sinboliko orokorrean geratu direlarik. Esan beharra dago, bi neska hauek jaso duten ikaskuntza artistikoa xumea izan dela, horregatik euren marrazkiak kritikatzeko joera daukate: “8 urteko haur batek egindako marrazkia dirudi, nire marrazteko teknika txikia nintzeneko garaian naukan berdina izaten jarraitzen du”(Iruñe) edo “Oso gaizki atera zait baino beno zerbait egin dut” (Nerea).

Alabaina, esan beharra dago, gizartean, sormenezko gaitasuna arte plastikoetarako aparteko gaitasunak edukitzearekin erlazionatzen dela, aldiz, baieztapen okerraren aurrean gaude (Vigotsky,1982). Aurreko ideiarekin lotuz, askotan marrazki edo konposizio baten inguruan burutzen diren kritikak edo ebaluazioak, konposizioa edo marrazkiak errealitatearekiko daukan antzekotasun edo marrazkiaren kode estetikoak (kolorearen erabilera, saturazioan, trazuan, etab) aintzakotzat hartuz burutzen dira, haurren esperientzietan oinarritu ordez. Horregatik, sormenezko gaitasunak ez da arte plastikoetarako gaitasunaz baldintzatua egonen, sormenezko gaitasuna haurrak marrazketaz baliatuz bere pentsamendu propioak espresatzeko gaitasunarekin erlazionatuko da. Horrenbestez, garrantzitsua da haurrak bere sormenezko lanen gainean kritika positiboak jasotzea, berarengan konfiantza har dezan. Bide berean, arte plastikoetarako aparteko gaitasunak dituztenek soilik margotu dezaketela ideien aurrean, marrazketa espresio bidetzat erabiltzearen ideia gailendu beharra dago, haurraren marrazteko grina bizirik mantendu dadin (Acaso López-Bosch, 2000).

Honen ildora, esan daiteke, haurraren bizitzaren epealdi kritikoa, norbanakoaren barne nortasunaren trantsizio eta berreraiketa momentuak (adibidez, epealdi batetik bestera igarotzerako momentua, hots haurtzarotik nerabezarorakoa; identitate sexualaren garapena, gertuko norbaiten heriotza, lagun talde aldaketa, etab) direla, sentimendu eta emozioen agerpenean oinarritako aldiak izanik. Espresio artistikoak, bere aldetik, sentimendu eta emozio hauek adierazteko baliabidetzat aurkeztu ahal zaizkie haurrei (L. Vigotsky,1982, 66.orr).

3.2. Haurrengan ematen den prozesu artistikoak jasotako garapena.

Haurrengan ematen den prozesu artistikoaren garapena azaltzeko ezinbestekoa izanen da lan honetako lehenengo puntuan aurkeztu dugun garapen psiko - ebolutiboari lotutako prozesua aintzakotzat hartzea.

Sormen artistikoaren garapen prozesuan (Gardner, 1982, 93.orr) esan daiteke, marrazketa, haurren garapenaren epealdi goiztiarrean jarduera artistiko preziatuena izan ohi dela. Honekin bat, Luquensen (1892) aldarrikapena daukagu, honen arabera “A medida que el niño va creciendo y se acerca a la adolescencia empieza, por lo general, a apartarse y desilusionarse por el dibujo”.


Aspektu honetan, eskola aldi garaiak ezinbesteko garrantzia hartuko du, garapen aldi hauek aurrera eramanez diren ingurugiroak nahitaezko begirunea edukiko duelarik. Garai honetan ikasleek oraindik formakuntza artistikoa jasotzeko grina aurkezten dute, eta beraz, irakasle konpetenteak izanen dira grina hau asetzeko gai izanen diren bakarrak. Eskolaldian ere orain arte ulertezinak zitzaizkion metafora adierazgarriak eta psikologiakoak ulertzen hasten dira (Gardner, 1982, 121-123.orr).

Marrazketaren aurkako jarduerak hamar eta hamabost urte bitartean agertu ohi dira. Alabaina, hamabost hogeitau urte bitartean berriz ere honekiko interesa berpiztu ohi da, gehienetan alor artistikoan gaitasun handiagoa daukaten haurretan eman ohi den jarrera izanik (Viotsky, 1892, 93.orr).

Arestian aipatu bezala, haurren marrazketa prozesua mailakatua izanen da eta prozesu honen garapenaren lehenengo mailan eskemak egonen dira. Maila honetan haurra eskemaz⁵ baliatuko da objektuen errepresentazioa egiteko, alderdi errealetik aldentzeko delarik. Adibidez, hiru urteko haur guztiek marrazketaren lehenengo saiakuntzan “zapaburu”⁶ deituriko errepresentazioak burutzen dituzte. (Vigotsky, L.S, 1892, 94.orr).

⁵ Eskema: Haurra objektu baten inguruan daukan kontzeptuari deritzo. Nahitaezko esperientzia baten eragina jaso arte behin eta berriz errepikatua izanen dena (Lowenfeld y Brittain. 1972).

⁶ Zapaburu: Hiru urteko haurrak (gutxi gora behera) euren marrazteko lehenengo saiakeratan burutzen dituzten errepresentazioak. Hauek gorputzeko zenbait atalen falta dute eta zenbait oinarriko formak erabiliz marrazten dira (esfera eta lerroak batik bat). Zehazki, zapaburuak gorputzik gabeko errepresentazioak izanen lirateke, besoak burutik ateratzen zaizkion



Irudi 6: Marrazkia, Gartzot hiru urte.

Aurretik aipatutakoa aintzakotzat hartuz eta aurkeztutako marrazkian ikus daiteken moduan, hiru urteko haurrek euren marrazki propioak burutzeko “zapaburu” itxurako errepresentazioez baliatuko dira, irudikatu nahi dituzten objektu oro oinarritzko formekin adieraziko direlarik. Aurkeztutako irudi honetan, haurrak bere anaiak marrazten ari zutenari jarraikiz, pertsona bat, kotxea eta eguzkia marraztu zituela aitortu zuen.

Honetan, eskemek objektuen barne egitura adieraziko dute, oinarritzko formez, kolore edo ehunduraz (borobila, laukizuzena, etab.) irudikatuak izanen direlarik. Marrazketa prozesuan irudikatu nahi den objektuaren onspena autorearen irizpidearen eta helburuaren arabera izanen da. Adibidez, zirkunferentzia, puntu edo marra bat aski izan ahalko liriteke pertsona baten irudia, hiri oso batena, planea batena, etab.ena irudikatzeko. Horrela bada, haur batek bere burua irudikatzeko, askotan zirkunferentzia, obalo edo lerro zuzenen eskemaz baliatzen da. Baliteke, eskema edo marrazki honek bere ustetan irudikapen batek bete beharreko irizpide edo ezaugarri guztiak edukitzea, eta honekin konforme sentitzea, bere marrazkia amaitutzat utziz (Arnheim, 2002).

irudikapena izanik (Hargreaves, 1920). Hauek ez dute enborrik izanen eta borobil itxurako forma hartzen dute, buru-beso edo buru-oin erlazio adierazten dutelarik (Vigotsky, 1892).

Prozesu honetan pertzepzioaren eta errepresentazioaren arteko ezberdintasuna aztertzea beharrezkoa da. Pertzepzioak irudi baten erregistro fidela eskatzen ez badu, ikus - kontzeptuak ez dute zergatik forma esplizitua izan behar, ezaugarri globalen jasotzea garrantzitsuena izanen litzatekeelarik. Adibidez, buru baten errepresentazioak borobil bat marraztera eraman gaitzake, baino zirkunferentzia hau ez da errealtatean fidelki hautemangarria, ez baita buru zehatz baten eredu izanen. Badaude hautematea irudikatuko duten zenbait forma edo eskema zehatz, hala nola zirkunferentziak edo esferak. Aitzitik, haurrak bere irudia burutzeko erabiliko duen zirkunferentzia edo esfera ez da irudi beretik zuzenki eratorria izanen, bere asmakizuna izanen da, irudia irudikatzeko berarentzat errepresentazio fidelena izanen delarik. Berdin gertatuko da kolorearekin, ondoren ikusiko dugun moduan. Adibidez, objektu gehienek kolorea ez da uniformea ez espazioan ez denboran, eta askoan ere ezberdina izanen da ezaugarri berdinak dituzten objektuen artean (zuhaitz, lore, etab.). Bidenabar, haurrak bere marrazkietan zuhaitzei emanen dien kolorea adibidez, zuhaitzek berarentzat adierazten duten inpresio globalari atxikitzen zaion kolorea izanen da. Kasu honetan ere ez gara imitazio fidel baten aurrean egonen, haurra beraren asmazio baten aurrean egonen gara (Arnheim, 2002). Baieztapen hau bai Nerea zein Irunek eskainitako marrazkietan islatua ikus daiteke bai zeruari emandako kolorean, Nereak etxearen teilatua margotzeko erabilitakoan, zuhaitzetan edota belarraren kolorean.

Era berean eta haurrak pertsonen gain burutzen dituen marrazkiekin jarraituz, haurraren pertsona baten aurpegian daukan garrantzia dela eta, ez da harritzekoa haurraren marrazkiak, batez ere burua, aurpegi eta beste zenbait ezaugarri gutxietan fokua jartzea (Hammer, 1969, 83.orr). Gizakiaren oinarrizko forma aurkezten duen irudia, pertsonaren aurpegiaren aitzinaldearen errepresentazioa izanen da aldiz, beste autore batzuek (Arnheim, Meili- Dworetzki, Gridley, etab) adierazten dute aurpegiaren irudikapenaren bitartez, pertsona bere osotasunean irudikatuko dela (Machón,2010,397.orr).

Hurrek, garai honetan, gauzen inguruan dakizkiten gauzak marrazteaz gain, hauen inguruan interesgarrienak suertatzen zaizkienak edota hauen inguruan

irudikatzen dituztenak ere burutzen dituzte. Artista txikia sinbolistatza⁷ har daiteke, izan ere, ez du errealitatearen errepresentazio zuzena bilatzen, honen aurrean objektuen gaineko irudiak irudikatzen ditu. Haur batek adierazten duen moduan “Se puede pintar una cosa que no está ahí [...] sólo si uno tiene lentes invisibles en los ojos” (Gardener, 1982). Honen ildora, Büller autoreak egindako adierazpena daukagu:

...el esquema del niño es muy concreto porque tanto los esquemas como la comprensión se limitan a contener los rasgos esenciales y permanentes del objeto. Al dibujar, el niño lleva al dibujo todo lo que sabe del objeto que representa y no solo lo que ve. Por eso con frecuencia pinta cosas que no ve (Vigotsky, 1982,93-109.orr).

Era berean, haurrak bere marrazkietan marraztutako “gizontxoaren” eta haurra beraren artean dagoen harremana estua izanen da. Modu horretan, haurrak gizontxoaren marrazki horren bitartez bere bizimoduan dituen sentipenak azaltzeko gai izanen da, hots, bere buruaren inguruan daukan ikusmoldea azalduko digu. Ezezagunak zaizkigun baieztapenak dauden arren, esan daiteke gizakiaren irudi grafikoak barne esperientzietan jatorria daukala. Bidenabar, nola sentitzen naizen eta pertsona bezala nire buruaren inguruan zelako pertzepzioa daukadan, elkarrekin harreman zuzena izanen duten alderdi ezberdinak izanen dira (Meili- Dworetzki, 1979, 15.orr).

Aipatutakoaren adibide gisa, ondoko irudian ikus daitekeen moduan, haurrak pertsonaren garrantzia gailendu nahi izan du beste guztiaren aurrean, honetan, 1. Irudiarekin alderatuz, ikus dezakegu pertsonarengan buru-gorputz proportzioa landuagoa dagoela, aurpegi espresioan edo bereizgarrietan zehaztasun gehiago ikusten delarik (begiak tamaina berekoak dira nahiz eta aho zein sudurrarekin alderatuz tamaina handiagokoak izan, masailak marraztu dizkio,etab).

⁷ Sinbolismo: Frantzia, XIX. mendearen amaieran aurrera eramanean zen korrante artistikoa, objektuek edo hauen izena zein sentimenduak baztertu eta irudiez baliatuz hauek aditzera eman edo gogora ekartzeaz arduratzen dena. (RAE)



Irudi 7: Tasio, 8 urteko haurren marrazkia

Aitzitik, pertsona eta autoa edo hodeien arteko proportzioa betetzen jarraitu gabe mantentzen dela antzeman daiteke. Burututako errepresentazio honetan, haurrak objektuen gaineko irudikapen bat burutzeaz gain (kotxea, pertsona, hodeiak, adibidez) bere interesetatik abiatuz, pertsona paratxut batekin zerutik erortzen marraztea erabaki du. Honen inguruan galdetu zaiotenean, bere hegan egiteko grinarekin erlazionatua egonen den errepresentazioaren isla dela ohartu gara, izan ere haurrak aditzera eman digun moduan: “Txoriek hegoak dituzte, baina pertsonak ez, horregatik hegan egiteko modua paratxut batekin botatzea izango zen. Ni handia naizenen proba egin nahi dut zeren hegan egitea oso dibertigarria iruditzen zait.”

Bestetik, koloreari so eginez eta Arnheimen (2002) teoria aintzakotzat hartuz, ikus daiteke, aurkeztutako marrazki honetan haurrak zerua margotzeko urdina erabili duela, hau zeruaren errepresentazio globalarekin erlazionatu duen kolorea izanik. Honekin bat, esan daiteke gauza bera gertatzen dela bai neskaen aurpegiarekin zein ur tanten edo hodeien kolorearekin.

Psikologoek, bere aldetik, garai honetako haurren errepresentazioak, haurrek objektuen inguruan adierazi nahi duten kontakizun grafikoak direla defendatzen dute. Hauek, marrazten duen bitartean, bere irudimeneko objektuan pentsatzen dute, honen inguruan hitz egingo balute bezala (Vigotsky, 1892, 96.orr). Baieztapen honek kubismoarekin⁸ daukan harremana aipatzekoa da, kubistek objektuak aldatu eta landu

⁸ Kubismoa: 1907 eta 1914 urteen artean Pablo Picassok eta George Braquek aurrera eramandako mugimendu artistikoa, XX. mendeko testuinguru artistikoan eragin asko izan

baitzitzuten, XVI. Mendeko irudikapen teknikitik eta perspektiba geometrikotik aldenduz eta bi dimentsioetatik abiatuz, objektuen irudikapen berriekin ikertu zituztelarik. Horrela, objektuak ez zituzten ikuspuntu soil edo bakar batetik irudikatzen, ikuspuntu ezberdinetatik baizik. Hauen hitzetan, objektu baten inguruan ikusten zutena eta objektu horren gainean zekitena elkarren osagarri ziren eta era berean, hauen inguruko ezagutza, beraien esperientziarekin bat zetorren (Maurice Raynal, 1913). Hau bideratu ahal izateko, proposamen praktikoa hamaikagarren jardueran kubismoarekin loturiko ariketa bat aurrera eramanen da non ikasleei aurpegiaren konposizio ezberdinekin jolasteko eskatuko zaien.

Bidenabar, arteak, bere baitan, sinbolo sistema batekin harremanetan jarri ohi dira, soinu, lerro, kolore, forma, objektu, diseinu, ingerada ezberdinen manipulazio eta ulermenarekin, alegia. Lehenengo haurtzaro honi dagokion etapan, aldiz, umeak zailtasun asko aurkituko dituzte kulturak eraikitako sinbologia hau ulertzeko, izan ere mundua ezagutzen dihardu eta arestian aipatu bezala, sinbolo hauek gizartearen parte dira, horrenbestez, gizartean murgiltzen doan heinean honetan nabarmen diren sinboloen konnotazioaz jabetzen joanen dira (Gardner, 1982, 234.orr).

Haurren marrazketa prozesuaren garapenarekin jarraituz, bigarren mailan, haurra deskribatzen ari duen objektuaren ezaugarriak zerrendatzeari utziko dio eta objektuaren ezaugarrien arteko erlazioak ere pairatuko ditu, hauen uztarketa eginik. Honetan, eskematismoaren⁹ eta formalismoaren¹⁰ arteko errepresentazio grafiakoak aurkitzen dira, marrazkiak geroz eta eskematikoagoak izanik, baino errealitatearekiko gertuagoak. Etaba honetan zehaztasun gehiago nabari dira objektuen errepresentazioetan. Funtsean, gizaki irudietan adibidez, enberraren edo gorputzaren falta jada ez da sumatzen eta marrazkiak, benetako irudiaren antz gehiago hartzen

zuen. Argi-iluna eta perspektibarekin loturiko teknika tradizionalekin loturiko mugimendu artistikoak atzera utzi nahian, margolaritzaren aspektu bidimentsionala azpimarratzen zuten. Era berean, margolaritza errealitatea edo naturaren irudikapen fidela izan behar zutenaren ideiarekin hautsi nahi zuten objektuen deskonposizioan edo fragmentazioan oinarritzen zen errealitate berri bat aurkeztu nahian. (Cubismo, 1914)

⁹ Eskematismo: Eskema haur batek objektu baten inguruan daukan kontzeptu edo irudiari deritzo. Irudi hau uneoro errepikatuko da, hau aldatuko duen bestelako nahitaezko esperientzia bat egon arte (Martínez García, 2010).

¹⁰ Formalismo: Irudiari egiantzekotasuna emateko prozesua, hots irudikatu nahi den objektuari errealitatearekin bat datozen ezaugarriak aplikatzea, eskematismotik aldenduz (Vigotsky, 1892).

doa. Honen adibidetzat, Tasioren marrazkia daukagu non Maddinerarekin alderatuz, ikus daiteke bai buru-gorputz proportziori dagokionez zein pertsonaren irudiari dagokionez (aurpegi espresioa adibidez) aurrerapenak egin direla, errealitateri gehiago gerturatzen den marrazkia izanik.

Hau horrela izanik, zazpi-zortzi urte bitarteko haurrek, eta zenbaitetan lehenago, haurra gai izanen da bere kulturaren oinarrizko sinbologia bideak ulertzeko. Adin honetako haurrak, arte plastikoen arloan, konposizio eta eraikuntzan oreka mantentzen duten obrak aurkezten dituzte. Horrenbestez, esan daiteke haurrak gai direla beraien arte lanetan erabiltzen dituzten elementuak identifikatzeko eta erabiltzeko, marrazketa obretako errepresentazio ezberdinak “irakurtzeko” gai direlarik (Gardner, 1982, 235.orr).

Orokorrean, adin honetako haurrak teknika artistiko berriak ikasteko gaitasun handia daukate; asko gustatzen zaie ikaskuntza prozesu hau eta ez dira asko larritzen terminologiarengatik edo hutsegiteengatik. Ariketak eraginkortasunez jorratzeko prest agertu ohi dira, bide artistikoa eskuratzeko grina aurkeztuz. Baieztapen hau frogatzeko atal praktikoetan zenbait jarduera ezberdin proposatu ditugu, hala nola zigilu bidezko konposizioak egitea, collage teknika edo grattage teknikaren erabilera, etab.

Hirugarren maila honi dagozkion marrazkiak, irudiaren ingerada laua adierazten dute, objektuari dagozkion berariazko ezaugarriak azalaraziz. Irudiaren irudi errealaren adierazpena aurkeztea, haurraren marrazketaren garapen maila gorenari dagokio, gutxiren esku egonen den gaitasuna izanen delarik (Vigotsky, 1892, 97.orr).

Haurraren marrazketaren ikertzaileak, azaltzen du, marrazketa prozesuaren hirugarren periodoa adimeneko jardueraren goraiapatzearekin erlazionatzen dela. Honekin bat, etapa analitikoari hasiera ematen zaio, arrazionaltasuneko jarrerak ohikoak direlarik. Etapa hau haurtzaroko azkeneko adina arte eta zenbaitetan nerabazarora arte dihardu. Honetan, ikusmen organoak ezinbesteko garrantzia hartzen dute eta gutxinaka - gutxinaka nerabea bere munduaren ikuskari bihurtzen da. Horrela, mentalki, munduaren irudi bat eratzen du, munduaren konplexutasun hau gauzen arteko erlazioen eta hauen hobekuntzaren erantzun bezala ulertuz. Haurra prozesuan interesa jartzen du, kanpo munduan aurrera eramaten den prozesuan, alegia.

Errealitatearen errepresentazio zehatza burutzen saiatuko da (Bakushinskii, Vigotsyk aipatua, 1892, 100.orr).

Kersensteinerek bere aldetik, garapen prozesu honen laugarren maila hamaika urteetan kokatzen du. Honetan, sormen jarduera artistikoa, gaitasunen araberakoa izanen da, materialaren erabilgarritasunaren araberakoa, marrazteko ohituraren araberakoa, etab. hots, ez da bat-batekoa izanen. Burua, hankak eta besoak, haurren marrazketaren lehenengo mailetan agertu ohi dira, gorputzeko beste atalak eta arropari dagozkion ezaugarri bereziak, aldiz, haurra heltzen doan heinean agertuz joango dira (Vigotsky, 1892,97.orr).

Honetaz gain, nerabezaroan, ikasleak, maila berri batean hausnarketa kritiko bat gauzatzeko gaitasuna eskuratuko du. Horregatik, bere lanaren inguruko iritzi kritikoago bat aurkeztu dezake, bere lana, gertuko ikaskideek egindakoarekin alderatzen hasten baita (Gardner, 1982, 123.orr).Alde batetik asmatzeko grina landu behar da, baino bestetik, irudimenean eraturako irudien errepresentazio prozesuak ere, berezko ezagutza beharko du (Vigotsky, 1892, 104.orr). Hori dela bide, gaitasun artistikoen inguruko konpetentziak (marrazketa teknika ezberdinak, kolorearen erabilera, bolumena, planoaren kokapena, etab.) eskuratzea faktore garrantzitsua izanen da, haurrak prozesu honen parte bilakatzuz (Gardner, 1982, 234.orr).

Pospiélovak dioenez “Uno de los mejores métodos pedagógicos consiste en atraer la atención hacia cualquier actividad productora mediante la participación creadora en ella” (Vigotsky, 1892,105.orr).



Irudi 8: Cristinaren marrazkia, 50 urte.

Cristinaren marrazkian, antzeman daiteken moduan, nahiz eta azkar burututako marrazkia izan, antzeman daiteke arkatzez landutako teknika artistikoa menperatzen duela (argi-itzalak burutzerakoan, beltzaren saturazio maila aldatzerakoan efektu ezberdinak emateko, etab.) eta alor artistikoa garatua daukala. Berak aitortu digun moduan, txikitatik gustuko izan zuen marrazketa eta betidanik animatu izan zuten arlo honetan zeukan ezagutza zabaltzera bai irakasleek zein familiako kideek. Horrela, aunitz urtez marrazketa klaseetara bertaratu zen (teknika bat baino gehiago landu ditu) nahiz eta jada urte pilo bat bere kontu eta denbora daukanean marrazten jardun. Berak aitortzen duen moduan, garrantzitsuena da praktikatzen jarraitzea eta noiz behinka margoak hartzea. Horrenbestez, ikus dezakegun moduan gure marrazkien inguruan kritika positiboak jasotzerakoan eta teknika artistiko ezberdinak probatzeak gure marrazketa grina bizirik mantentzen lagun dezake. Aurreko irudiekin alderatuz, marrazki honetan nahiz eta sinbologia orokorreko objektuak agertu, teknika aldetik eta objektuen arteko oreka zein perspektiba aldetik garatuagoa eta konplexuagoa den marrazkia dela esan dezakegu; alde batetik perspektibak landu ditu argi ilunen bidez eta bestetik, errepresentazioa burutzeko koloreez baliatu ordez, txuri beltzean eta arkatzez burututako marrazki bat aurkeztu du.

Agidanez, haurrak alderdi praktikoaren aurrean azaltzen duen interesa mantentzerakoan soilik lortuko da edozein ekoizpen jardueraren aldeko interesa mantentzea. Bai haurra zein heldua, euren ingurunea arakatzeko interesa aurkezten dute eta artea, euren ideiak, sentimenduak eta haientzat garrantzitsuak diren kontzeptuak adierazteko espresio bide pribilegiatua izanen da. Artea baliabide izanik, besteentzat ulergarri den modu batean, subjektuak euren munduaren ikuspegia aurkeztu dezakete. Azken finean, artea baliabide pertsonal eta soziala izanen da, hots, pertsonaren barnekotasunetik sortzen den ekintza, kultura bateko kide guztiei bideratua egonen dena (Gardner, 1982, 126.orr).

4. ARTEA SENTIMENDUAK ETA EMOZIOAK ADIERAZTEKO BIDE GISA

4.1 Haurraren garapen emozionala

Norbanakoaren nortasuna harreman interpertsonalen baitan garatzen den alortzat hartu beharra dago. Haurra, garapenaren lehenengo urteetan familia testuinguruaren barnean kokatu ohi da. Aurretik ikusi dugun moduan, garapena aurrera doan heinean, haurrak testuinguru berriak ezagutzeko aukera daukate, eta beraz, bestelako iturriek bere nortasunaren garapenean ere eragina izanen dute. Pertsona guzti hauekin eraikitako harreman sozialen bidez, haurrak komunikatzen ikasiko dute eta honekin bat, jokabide arauak ulertzen eta berenganatzen hasiko dira, gizarteko balioak erdietsiz. Garapen sozial eta afektiboaren prozesu honetan, emozioen sorrera ematen da. Sorrera honekin bat, hauen adierazpenaren beharra agertzen doa eta haurrek baliabide ezberdinekin esperimentatuko dute eta honetan artearen garrantzia aipatu beharra daukagu. Lan honen bitartez, atal praktikoan aurkeztuko den moduan, adierazpen artistikoa gure barne sentimendu edo emozioak adierazteko bide gisa aurkeztuko da, kolore, konposizio, etab.en erabilerak eskaintzen dituen aukerak aintzakotzat hartuz. René Huyghe (1935) adierazten duen moduan , *A través del arte, el hombre se expresa más completamente y, por consiguiente, se comprende y realiza mejor. Gracias a él, el mundo se hace más inteligible y más accesible.*

Pertsona baten estatu emozionalak pertsona horrek mundua hauteman edo ulertzeko moduaren isla izanen da. ZaccagniniK (2004), bere aldetik honela definitzen ditu emozioak:

...son una compleja combinación de procesos corporales, perceptuales y motivacionales que producen en las personas un estado psicológico global, que puede ser positivo o negativo, de poca o mucha intensidad y de corta o larga duración, y que genera una expresión gestual que puede ser identificada por las demás personas (Gallardo Vázquez eta De Sevilla, 2007).

Emozioak, bere baitan, sentsazio eta sentimenduekin erlazionatu egin ohi dira. Sentsazioek estimulu edo egoera baten onuragarritasunaren inguruko informazioa

eskaintzen digute (Gallardo Vázquez eta De Sevilla, 2007). Bidenabar, esperientzia emozionala, haurrak bere ingurunearekin eta gertuko pertsonekin harremanetan jartzerakoan eraikitzen joaten da. Haurraren lehenengo urteetan, helduarekin sortutako lotura emozionalak, haurrari, zenbait estimuluren aurrean erantzuten lagunduko die. Modu honetan haurra bere identitatea edota nortasuna eraikitzen joanen da, moralitatea eta pentsamenduaren ideiak berenganatuz eta kanpo errealtateaz jabetuz.

Autoreek adierazten duten moduan, haurraren lehenengo urteetan, honek besteekiko erlazioak interpretatzen ikasiko du eta beraien esperientzia emozionalak ulertzen ikasiko du. Horrela, ideiak maneiatzen ikasiko dituzte, ideia hauek bere barnean sortzen diren ideiak izanen direlarik. Hizkuntzaren garapenarekin bat, ideia hauek hitzen bidez adieraziak izanen dira. Hala ere, marrazketa norbanakoaren esperientzia emozionala edo barne mundua adierazteko bide izan daiteke. Esan daiteke, norbanako bati pertsona bat marrazteko eskaera egiten zaionean, kanpo irudien esparrua hain zabala denez, haurra beharrezko informazioa beste iturrietatik hartzera behartua ikusten duela bere burua eta horri dela eta barne iturrietara jotzen du. Orduan, "introspektzioa edo barne proiektzioa"¹¹ deituriko identifikazioari bide ematen zaio. "Nia" edozein jarduera bideratzeko oinarrizko barne hasiera puntua izanen delarik (Harris, 1982, 58.orr).

Arestian aipatutako moduan, ikaslearen garapena aurrera doan heinean ingurunetik ikasten joanen da. Eskolaldiarekin bat, haurraren ingurune soziala hedatu egingen da, nahiz eta honen heldutasun pertsonalaren etorkizuneko garapenean familia ezinbesteko oinarria izaten jarraituko duen. Familia, ikaslearen afektibotasunean funtsezko entitatea izanen da, non portaerarekin loturiko arauak zein jokaera sozialak ikasiko diren.

Instituzio eta ingurune bakoitzak haurrak, inkontzienteki berenganatzen dituen bizitzaren aspektu ezberdinez jabetzea ahalbidetzen digute. Nolanahi ere, garrantzitsua da ingurune eta instituzio ezberdin hauek elkarreraginean aritzea, emaitza konstruktiboak eraikiz. Hau lotura zuzena izanen luke arestian aipatutako

¹¹ Introspektzioa edo barne proiektzioa: Pertsona batek bere gogamenaren eta bere buruaren inguruan egiten duen behaketa, ondoren, honen inguruan hausnartzeko (RAE).

garapen sinboliko eta estereotipatuarekin, izan ere, haurraren garapen artistikoan ikusi dugun moduan, gizartean kulturalki eta sozialki barneratzen goazen hainean honetan zabalduak dauden sinboloen jabe izanen da.

Harreman global hauek laster emozio espezifikoek bide emanen diete, eta kasu gehienetan lehenengo bizitza urtean honako emozioak garatzen hasiko ditugu: lehenengo poztasuna eta ezinegona, ondoren, harridura eta sumindura eta azkenik, tristezia eta beldurra. Horrela, aipaturiko emozio hauek oinarrizko sentimenduak izanen dira, haurraren haurtzaro garaian nabariak izanen direnak. (Harris, 1989). Pixka bat geroago, lehenengo haurtzaroaren amaieran, haurrak konplexuagoak izanen diren bestelako emozioak ezagutzen hasiko dira, hala nola, lotsa, errua edo harrotasuna. Aldi berean, emozioaren kontrola eta ulermenaren inguruko lehenengo urratsak ematen hasten dira. Haurtzaro eta nerabezaroan zehar, haurrak emozioen kontraesankortasunaren existentziaz jabetzen hasi beharko dira, horrela emozioak ezagutu eta espresatzen ikasi beharko dute, hauek kontrolatzen ikastearekin bat. Honek ikaslearen auto-erregulazio emozionalaren garapenari hasiera emanen dio.

Palacios eta Hildagoren (1999) arabera, egunean, aldi berean sentimendu positibo eta negatiboak eragiten dituzten egoerak ez dira gutxi. Haatik, esan daiteke antibalentzia honen antzemate esplizitua ez dela 7-8 urtera bitarte ematen. Hater eta Buddingek (1987) prozesu honekin loturiko garapen sekuentzia bat proposatzen dute:

Funtsean, emozioen ulermenaren garapena alor kognitiboaren garapenarekin bat etorriko da, beraz, haurra konplexutasun kognitibo maila nabarmen bat garatzea ezinbesteko izanen da antibalentzia emozionala ulertzeko. Beste alde batetik, hau emateko esperientzia soziala ere ezinbestekoa izanen da. Ingurune sozialak, bere baitan, emozio ezberdinak esperimentatzeko aukera ematen dio haurrari, besteen emozioei erreparatzeko aukerarekin bat. Ohiko esperientzietan, funtsean, helduek haurrei estatu emozional ezberdinak identifikatzen laguntzen dieten heinean, ulermen emozionalaren garapenean aurrera pausoak burutzen laguntzen ari dira (Palacios eta Hidalgo, 1999).

Honen karitatera, garapen emozionalari dagokion alorra hurrengo aspektuekin lotua egonen da: (Gallardo eta Velazquez, 2007)

Alde batetik, garapen emozionalak haurrak bere buruarengan daukan sentimendu positibistarekin lotua egonen da bai alor fisiko, psikiko eta sozialari dagokionez. Horrela, bere jarreraren bidez, haurrak berarengan daukan konfiantza aurkeztuko digu, bai bere boterea, arreta deitzeko nahia eta besteak bere burua balioesteko beharra. Baliteke zenbaitetan, frustrazio egoeratan ezinegona aurkeztea eta hauek kontrolatzen ikasi behar izatea. Arte hezkuntzaren ildotik aztertuta, kolorearen garrantzia azpimarratzekoa da, izan ere, koloreak konnotazio sozial bat daukate, kultura bakoitzaren erlazionatze kromatikoaz baldintzatua egonen dena. Honetan, mendebaldeko kulturaren, adibidez beltza heriotzarekin erlazionatzen da, gorria indarrarekin, zuria garbitasunarekin, urdina loriarekin, etab. Honek gure adierazpen artistikoetan eragina izanen du lan honetan zehar, ondorengo atalean ikusten joanen garen bezala. Alabaina, gure obretan adierazi nahi dugunaren arabera kolore bat edo beste aukeratuko dugu, gure emozio edo sentipenekin bat etorriko dena (Zelanski eta Pat Fisher, 1989,1994,1999).

Honetaz gain, haurrak aurkeztuen duen jarrera optimista, alaia edo ozarra ere kontuan hartzekoa da, izan ere haurra bere beldurrak erraztasunez kontrolatzen ikasiko du. Haurraren garapen intelektualean kualitatiboki eragin positiboa eragiten duen ekintzetako bat emozioen borondateko kontrola burutzea izanen da.

Haatik, aintzakotzat hartu behar dugu etapa honetan umearen erreferenteak hedatzen joanen direla familia alorretik, testuinguru sozial eta eskola testuingurura. Nahiz eta oraindik ere gurasoak eta anai-arrebak eredu bezala eduki; irakasleak, ikaskideak, lagunak eta gertuko inguruneko zenbait pertsonak ere eredu izaten hasten dira. Haurrak, zenbait eta gaitasun kognitibo gehiago eskuratu bere harreman sozialak ere zabalduko ditu eta honekin bat kulturarengandik baldintzatua egonen den kontrol emozionala ere hedatzen joanen da.

Sei urte aurretiko garaian, emozioen kontrolaren zenbait hastapen antzeman daitezke; adin honetatik aurrera, haurrek modu argi batez barne esperientzia emozionala eta kanpo espresioaren arteko bereizketa egiteko gai izanen dira. Horrela, haurrak euren sentimendu propioak ezkutatzeko euren kanpo jokaeren espresioak aldatu dezaketenaren jabe izanen dira.

Lau bost urte bitartean desira baten egoera aldatzeko, haurrek zenbait estrategiez baliatzen dira; hauetan ohikoena estatu emozional bateko egoera bestelako estatu emozionala sortzen duen beste egoera edo ekintza batengatik aldatzea izanen da, emozio positibo bat sorrarazten dien bestelako aukera bat bilatuz (Gallardo Vázquez eta De Sevilla, 2007).

Hau horrela izanda, hezkuntza etapa guztiak haurren garapen integrala bermatzera bideratuak egon beharko lirateke (bai hezkuntza akademiko, emozional zein soziala). Hori dela eta, hezkuntza arloan emozio eta sentimenduen aitorpena eman beharra dago eta hau bermatzeko baliabide moduan, lan honen bitartez, hezkuntza artistiko -plastikoa aurkeztu nahi dugu.

4.2 Koloreak emozioen adierazpen bide gisa.

Emozioen inguruko nozio egituratu eta sistematisatukoago bat burutzeko Spinoza eta Goethe bezalako zenbait autoreek analogia kromatikoa bat egitera jo dute. Hasteko, emozioa eta kolorearen arteko paralelismoa aintzakotzat hartu beharra dago, arkitektura, musika, marrazketa, diseinua, etab. bezalako arloetan. Sharpek (1979) emozio eta koloreen arteko harremana aztertzen du. Bere ikerketaren emaitzek zenbait gizarte eta kulturetan ematen diren harremanen kointzidentzia baieztatu dute, hala nola; laranja eta gorria bezalako “kolore beroek” energia edo urduritasunarekin daukaten harremana, edota berdea zein urdina bezalako “kolore hotzek”, baretasuna, egonkortasuna eta seguritatearekin daukatena. Kolore horia, bere aldetik, poztasunarekin erlazionatu ohi da eta morea, tristeziarekin.

Kolorearen inguruko azterketa egin ondoren, askotan, koloreen arteko bereizketa orokor bat egin ohi da arlo artistikoan, koloreak gama hotz edo beroen arabera sailkatuz. Aitzitik, esan beharra dago oso zaila suertatzen dela lehen mailako kolore edo kolore puruen sailkapen bat burutzea, gama hotz edo beroaren irizpidearen barnean, izan ere, ba al da gorri gordin bat saturazio bereko urdin puru bat baino beroagoa? Edo, hori gordin bat, hotz edo beroen barnean kokatuko genuke? Irizpide honen araberrako sailkapena nahasketa bidez lortutako koloreetan zentzu gehiago hartuko luke. Hori edo gorri urdinxka batek hotzagoak dirudite, gorri edo urdin horixka

baten moduan. Aurkara, hori edo urdin gorrixka batek beroago dirudite. Efektu hau lehen mailako kolorea zer koloreetara desbideratzen denaren arabera sortuko da (Arnheim, 2002). Atal praktikokoan proposatuko den 3. Jardueran (koloreetako formen bitartez mundua margotuz!) burututako konposizio ezberdinak burutu ondoren, sortu diren kolore nahasketak zer transmititzen duten galdetzerakoan, fenomeno honetaz jabetu gaitzke.

Kolorearen aldaberatasun honek euren tenperaturaren eragina izanen du. Kolore batek daukan ñabardura aldatzerakoan, bere tenperatura alda daiteke. Baliteke argitasunak eta saturazioak ere honetan laguntzea. Albers-ek proposatutako zirkulu kromatikoan kolore hotz eta beroak argitasunarekin edo iluntasunarekin bat datoz, kolore hotzak iluntasunarekin erlazionatuz eta beroak argitasunarekin. Baieztapen hau, modu orokor batean kolorearen nolakotasun adierazkorretara atxikitu dakioko. Koloreak sentrazio bat askatzen du, estimulazio termiko bat sorrarazten duena. Horrela, koloreen sailkapena burutzerakoan “hotz” edo “bero” bezalako hitzak erabiltzen dira, tenperaturaren arloan koloreak gudan sorrarazten duen eragin biologikoa dela medio.

Modu horretan objektu batek adieraztera ematen digun nolakotasun bat deskribatuko dugu, horren aurrean gure erreakzioa deskribatzeaz gain. Esperientzia hau ez du zergatik hautematezkoa izan behar, izan ere, askotan pertsona bat “hotza” dela esaten dugu eta horren aurrean erantzun bat aurkezten dugu, berarengandik aldentzea, adibidez. Bestetik, pertsona “bero” batek beraren aurrean konfiantza agertzea eragiten digu, erakarri egiten gaituelarik. Gisa berean, kolore beroek gonbidapen bat egiten digutela dirudi, obraren aurrean sentimendu positiboak sorrarazten digutelarik, kolore hotzak, aldiz, distantzia mantentzera gonbidatzen gaituzte. Horrenbestez, esan dezakegu, koloreak eta hauek gudan sorrarazten duten emozioak edo sentipenak harremanetan egonen direla (Arnheim, 2002).

5. ARTEA IDENTITATEA, AUTO-IRUDIA ETA AUTO-ESTIMUA LANTZEKO BIDE GISA.

5.1 Haurraren nortasuna, auto-irudia, auto-estimua eta identitatearen garapena.

“Niaren” kontzeptua abstrakzio bat da, haurrak, esperientzia bidez ikasten joanen dena. Norbanakoaren inguruko ezagutza errazten duten interakzioak anitzak dira, bakoitza bere ezaugarri historikoekin harremanetan jarriko dituztenak. Horrenbestez, haurraren lehenengo urteetan bere gertuko hiztun komunitateak (guraso eta familia batik bat) norbanakoaren “nia” eta nortasuna eraikitzen lagunduko duten aitzindari gertuenak izanen direla. Haurra hazten doan heinean komunitate hau zabaltzen joanen da. Egoera hauetan, bere mundu soziala anitza dela esan dezakegu, haurraren rol sozialak sustatzen joanen direlarik. Hori dela medio, ingurugiro sozial guztietara egokitzen den “niaren” garapenaren beharra aldarrikatu egiten da, hauetan egoki moldatzen ikasteko. Horrenbestez, “nia” edo norbanakoaren identitatearen eraikuntza ingurugiroaren baldintzapenen arabera izanen da (Luciano, Gómez, eta Valdivia, 2002).

Jarraian “niaren”, norbanakoaren nortasunaren eta identitatearen garapenaren inguruan hitz eginen dugu, auto-ezagutza deituriko eduki psikologikoa oinarritzat hartuz. Honetarako Skinner (1974), Hayes (1984), Kohlenberg eta Tsai(1991), Luciano(1996) eta Barnes-Holmes, Hayes eta Dymonen (2001) hitzak kontuan hartuko dira.

“Nia” non kokatzen dugunaren arabera, norbanakoaren ezagutza aldakorra izanen da. Horrela, haurra umetxoa denetik, bere inguruneko objektu eta pertsonen izendapena ikasten joanen da, hauekin erlazio anitzak eraikitzen joanen delarik. Sortzen diren harreman sozial hauek jarraikorrak izanen dira eta hauek, egoeraren arabera ezberdinak izanen dira (berdintasunezkoak, oposiziokoak, konparaziozkoak,

etab). Horrela, haurra munduak eskaintzen dizkion ekintza edo egoera ezberdinei modu erlazional¹² edota sinbolikoan erantzuten ikasiko du.

Auto-ezagutzari loturiko jokamoldeak “niaren” garapen prozesua antzinara joaten den heinean agertzen joanen dira. Haurra hitzaren bitartez gustuko duena balioesten ikasiko du eta honekin bat bere hitzak zein besteenak jarraitzen ikasiko du, beti ere bere nahiak asetzeko bide gisa (Bijou, 1976).

M.C. Luciano, I.Gómez eta S.Valdiviaren (2002) arabera, askotan haurrei zerbait “egokia” edo “desegokia” den balioesteko eskatzen zaie. Modu honetan, bere bizitza eta historia aintzat hartuz, “egoki” edo “desegoki” bezala ulertzen dituen ekintzetara joko du eta ekintza hauekin alderatuz bestelako objektu edo ekintzak balioetsiko ditu. Beste batzuetan, haurrak, berarentzat garrantzitsuak diren beste pertsona batzuk egindako balioespenak aintzat hartuko ditu eta hauek burututako balorazio bera imitatuko du. Honetaz gain, haurrei esplizituki egoera baten aurrean modu konkretu batez jokatzeari eskatuko zaio (askotan modu natural batez jokatuko du, beste batzuetan aldiz, helduek esandakoari men eginen diote).

Aditu berdinekin jarraituz, haurra bere bizitzako lehen interakzioei esker inguratzen dion mundua eta bere jokabidea “azaltzen” ikasiko duela. Honekin loturik, auto-estimua kontzeptua daukagu, haurtzaroan zehar gertatutako interakzioen bidez garatzen joanen dena, nerabezaro goiztiarrean garapen maila gorenera heltzen joaten delarik. Auto-estimua hitzezko feedbackari -balorazioari- deritzo eta norbanakoak berak burututako ekintzei lotua egonen da. Auto-estimua jokamolde natural edo sozialaren emaitza izan daiteke. Haurrek jasotako kanpo epaiketek (guraso, irakasle, berdinkide, etab. eginikoak) auto-estimuan paper garrantzitsu bat jokatuko dute. Haurra zerbait burutzen ari den bitartean kanpo feedback positiboa jasoz gero, bere auto-estimua indartu egiten da, eta alderantziz.

Horrenbestez, esan bezala, momentu bat helduko da non haurrak ez dute besteen kanpo motibazioa behar, beraiek burututako prozesu edo ekintza egindako

¹² Adibidez, zazpi urteko haur bati zaldi bat marratzea eskatzen zaionean, lehenik eta behin zaldi horrek izango lituzken ezaugarriak zerrendatzen eta adierazten ditu: burua, isatsa, bi aurretiko hanka eta bi atzetiko hanka, etab. horrela bere memorian daukaten irudi sinbolikoa deskripzio grafiko batekin osagarri izanen dira eta erlazio hori burutuz, irudi edo objektu hori irudikatzen gai izanen dira. (Machón, 2009)

lanaren arabera balioesten ikasiko dutelako. Horrela, hurrek bere jokamoldearen bitartez lortutakoaren inguruan hausnartzen ikasiko dute eta emaitza lortu ezean besteei errua bota gabe. Haatik, modu sistematiko batean haurra zerbaiten inguruko balioespena egiteko besteen balorazioa behar izanez gero beraien auto-estimua besteen menpe egonen dela esan daiteke.

Auto-estimua kontzeptu hau zuzenean lotua egonen da identitatearekin. Identitatea, zentzu subjektiboan, norbanakoaren onarpen errealista gisa ulertu ohi da; hots norbanakoaren auto-estimua ebaluazio gisa, norbanakoak bere pertsonaren inguruan dituen sentimendu, irudi, jokamolde eta ideia gisa, hain zuzen ere. Gazteak, arestian aipatutako moduan, beraien identitatea besteen bitartez eraikitzen doaz eta horrenbestez, bere lagun-taldeko kide bezala euren identitate psikosoziala eraikitzen doaz. Hala ere, gazteak ez dira influentzien hartzaile soilak izanen, influentzia hauek zalantzan jartzeko gaitasuna ere baitute (Gonzalo Vegas, 2012).

Haatik, gazteak edo haurrak bere burua ikusten duten modua, askotan besteek beraren inguruan daukaten iritziaren arabera baldintzatuak egonen direla. Elkarrekin lan egiten dugunean, ikasleak edo haurrak berain historia propioa eta esperientzia sozial partekatzen dituzte. Bidean, talde interakzioak norbanakoaren identitatearen eraiketan lagunduko du eta horrenbestez, taldean aritzeak norbanakoaren formakuntzarako baliabide izan daiteke arlo akademikoan (Gonzalo Vegas, 2012).

Honekin guztiarekin, aipatu nahi da, ikasleak edo haurrak laguntzeko gauzarik hoberenetariko bat euren auto-estimua sendotzea dela. Bere buruarekin ongi sentitzen diren pertsonak bizitzarekin ongi sentitu ohi baitira; segurtasunarekin, aurkezten zaizkion erronka edo erantzukizunei aurre egiteko gai direlarik.

José Luis Tranchek adierazten duen moduan:

... la mayoría de los/las expertos en el tema entiende que las personas con un autoconcepto ajustado y positivo son más capaces de actuar de forma independiente, elegir y tomar decisiones, interactuar con los demás, afrontar nuevos retos, asumir responsabilidades, contradicciones o fracasos...; en definitiva, están mejor preparadas para participar de manera responsable en las distintas actividades e instancias sociales y alcanzar un mayor nivel de felicidad

tanto propia como ajena. Parece indudable, pues la incidencia que tiene el autoconcepto en la organización mental de los individuos y en el control y dirección de sus conductas y realizaciones (Gonzalo Vegas, 2012).

Eskola arloan haur bakoitzaren auto-estimua lantzea eta arlo honetan murgiltzea ezinbestekoa izanen da. Hori dela eta, lan honen bitartez, auto-estimua eta identitatearen eraikuntza honetan, garapen artistikoak izanen duen eragina aztertu nahi dugu, artea norbanakoaren adierazpen bide bezala aurkeztuz, norbanakoaren identitatearen errepresentazio bide gisa, alegia. Horrela, talde kohesioa bultzatzeko eta elkarrekiko harremanetan sakontzeko baliabide gisa errepresentazio artistikoak aurkeztu nahi dira. Gisa berean, jarduera artistikoa komunikazio bide bezala aurkeztu nahi da, non abiapuntu bezala, norbanakoaren identitate propioan eragina bilatu nahi den, sormenaren bitartez berrinterpretatuz.

5.2 Arte plastikoak norbanakoaren irudia eta identitatea espresatzeko bide gisa.

Lan honetan proposatuko diren jarduera ezberdinen bitartez, norbanakoaren subjektibitatean sakontzea bilatuko da aurretik azaldu den moduan, arte plastikoak bakoitzak bere buruarekin dituen dialogoak eta barne irudiak azalarazteko bide bezala aurkeztuz (Ojeda, 2011).

Norbanakoaren pertsonalitatearen eraikuntzan gure auto-kontzeptua definitzen joan gara, denboraren poderioz estatikoa eta zurruna izanen den gure gaineko irudiarri forma emanez. Zenbait aspektuekin egiten dugun identifikazio hori zurrun egiten gaitu, gure nortasuna eraikiz. Honekin bat, hala ere, izan nahi ez dugunaren zenbait aspektu ukatu egiten ditugu (Ojeda, 2011).

Arte plastikoen bitartez agerian jarri nahi da guztiok daukagun barne borroka hori; gauzak nolakoak diren, nolakoak izan beharko liratekeen eta nolakoak izatea gustatuko litzaigukeen arteko eztabaida pizten dutenak. Artea, nire gaineko dudak irudia eta azalarazten dudana, nire pertsonaren inguruan onartzen dudana edo baztertzen dudana edota besteei azalarazten didana edo ezkututzen dudanaren arteko kontraesan horien adierazpide gisa daukagu. Sormenezko esperientzia honek

posiblea egiten du alor guzi hauei lekua ematea, norbanakoari, espresatzeko aukera eman. Horrela, haurrei aukera eman behar zaie barnean daukatena azalarazteko, honi bideratutako espazioa eskainiz, bere lanak epaitu gabe (Ojeda, 2011).

Gure barnearekin kontaktuan jartzen garenean gure obra artistikoan barnean ditugun irudiak azaltzen hasten dira. Barnean daukagun gauza edo sentimendu orori forma emateak “niaren” esperientziarekin kontaktuan jarriko gaitu. Horrela, gure baitan kontzientzia eta ikusmira jarriko dugu eta gure obrak berak gure barneko isla azalaraziko digu (Ojeda, 2011).

Horrenbestez, kontuan hartu beharra dago, burututako obra ikusten dugunaz haratago joan daitekeela, askotan obran esplizituki agertzen denak barne konnotazioa izan baitezake, gure sentimendu edo sentsazioekin lotura izanen duena. Proiekzio artistikoak gure ideien, sentimenduen edo ekintzen isla izan daiteke. Honen ildora Katharina Widmerren hitzak kontuan hartu behar ditugu:

...Lo que necesita ser pintado no se debe confundir con pintar lo que uno quiera, aunque eso puede coincidir en algún momento del proceso. Es más bien aprender a aceptar lo que quiere ser pintado. Con otras palabras, atender a la figura que quiere emerger, es aprender a retirarse”(Widmerren, Ojedak aipatua, 2011, 11.orr).

Errepresentazio artistiko bat burutzeko hasierako puntua: gai edo behar konkretu bat, kolore bat, keinu bat, gorputz sentsazio bat, etab izan daitezke. Modu honetan irudi batek beste batera eramaten gaitu, pertsona beraren bizitzarekin zerikusia izanen duten istorioak elkarren artean lotuz (Ojeda, 2011).

Obra batean garrantzitsuena ez da sortzen den azkeneko produktua, garrantzitsuena nola sortzen den izanen da. Pertsona edo artistak bere obrarekin daukan harremana, hots, honen aurrean egiten dituen keinuak, espresioak etab. aztertuz gero, artistak berak dauzkan gaitasun eta beharrez konturatuko gara.

Van Menenek (2003) azaltzen duen moduan, bai idazmena zein irudi artistikoak bizi dugun esperientzia esperimendatzen dugun moduan azaltzeko bide izan daitezke. McNiff (1922) bere aldetik, “autenticidad¹³” hitzaz baliatu da mota honetako

¹³ Autenticidad: Berezkoa edo norbanakoarena izatearen gaitasuna (RAE).

adierazpen artistikoak izendatzeko. Honek adierazpen artistikoak ez ditu profesionalen sormenezko prozesuekin erlazionatzen, norbanakoaren barne prentsamendu eta interpretazio indibidualekin lotzen baititu. Aldiz, Sartrek (2008, 1943) adierazten duen moduan, “nia” ere bestearen begiradaren objektua izanen da: nire buruaren gainean daukadan irudia, besteek nire inguruan daukaten irudiaz baldintzatua egonen baita. Besteak ere eraikitzen nau, nire irudia itzularaziz. Kasu honetan, kontuan hartu behar dugu, identitatearen eraikuntza eta lanketa honetan berdinkideak ere ezinbestekoak izanen direla.

Bestearen begirada (gehienetan berdinkideena) askotan gure borondatea bihurtu ohi da, batik bat taldearen onespina bilatzen dugulako. Horrenbestez, gorputzaren bizipena eta norbanakoaren auto- irudiaren onespina subjektibitatearen ondorio izanen dira. Ideia hau errealismoan¹⁴ irudikapenak egiteko joerarekin erlazionatu eta landu dezakegu, jarraian proposatuko diren ariketetan egingen den moduan. Horrela, norbanakoaren identifikazioaren inguruan zein besteek subjektuarengan daukaten ikuspuntua ikertu daiteke, taldearen barnean norbanakoak jokatzen duen papera aztertu eta enpatia lantzeko bide gisa. Folcauten (1986) arabera, “la subjetividad no es una producción individual de autoconciencia libre e indeterminada. La subjetividad es un subproducto de la relación entre el saber y el poder; el sujeto está constituido por circunstancias exteriores, es un *sujeto sujetado*.” Hori horrela izanik, kulturak zein gure ingurune sozialak gure barne irudiaren edota “niaren” eraikuntzan eragin zuzena izanen duela esan dezakegu, aurretik ikusi dugun moduan. Identitatea, kultura batean bereizgarriak diren faktoreak (kanpo faktoreak) eta norbanakoaren bereizgarriak direnak (barne faktoreak) aldiberekotasunean aktore sozialen onespina jasotzen duen heinean eraikitzen doa. Hau da, identitatea, norbanakoen bereizgarrietatik abiatuz, subjektuek barneratutako kultura besterik ez da izanen. Hori dela eta, ulertu dezakegu kultura eta identitatearen kontzeptua elkar osagarriak direla, kulturak gure barne irudian eragin zuzena izanenen duelarik (Giménez, 2014).

¹⁴ Errealismoa: 1840. Urtean sortu zen mugimendu artistiko eta literarioa izan zen. Mugimendu honen helburua errealitatearen errepresentazio fidel eta objektiboa burutzea zen. Lantzen ziren gaiak egunerokotasuneko errealitatean oinarritzen ziren (Gombrich, 1950).

Hau horrela izanik, aspektu hauek guztiak kontuan hartu nahi izanen dira lan hau aurrera eramaterako orduan. Horrenbestez, haurrak diren bezala onartu nahian ingurugiro egoki bat eskaintzea bilatzen da, norbanakoa den bezala azaltzeko aukera emanaz. Bidean, norbanakoa ezagutzeko besteak ere ezagutu behar ditugu, eta besteak ezagutzeko gure buruaren auto-irudi bat behar dugu izan. Horrela elkarlanean, elkarri- begiesten ikastea bilatuko da (Ojeda, 2011).

Horregatik, garrantzitsua izanen da kontzeptu hauek lan giroan eta kooperazioan lantzea. Norbanakoaren irudia lantzeko besteen begirada kontuan hartu behar da eta beraz, lanketa hau talde kohesioarekin, inkusioarekin, integrazioarekin, berdintasunaren balioekin etab. erlazionatu daiteke. Modu honetan, arte plastikoak ikasgela batean barnean norbanakoaren irudia, auto estimua, emozioen kudeaketa eta nortasunaren ondorioz sor daitezken arazoei aurre egiteko bide moduan aurkeztu nahi da.

II. ATAL PRAKTIKOA

Praktika aldi garaian jabetu ahal izan naizen moduan, norbanakoa taldean bere lekua aurkitzeko bide horretan zenbaitetan zailtasunak agertzen dira, ikasleen rol ezberdinak direla eta. Aniztasun horretan, bakoitzak bere nortasuna edota identitatea garatzen doa eta antzeman daiteken moduan auto-estimua inguruko lanketa bat eman ezker, ikasle asko zailtasunak aurkezten dituzte, bai euren buruaren identitatea zehazteko zein hortik habiatuz talde baten partaide sentitzeko.

Bidean, kontuan izan behar da gizarte baten barne garen heinean, gure identitatea besteengandik baldintzatua egonen dela. Arestian ikusi dugun moduan, identitatea besteen ikuspegitik abiatuz eraikitzen joanen da. Alabaina, norbanakoaren identitate psiko - sozialaren garapenean, lagun taldeak edonolako garrantzia izanen du (Gonzalo Vegas, 2012). Haurrak bere buruaren inguruan daukan ikuspegia besteek bere gain zelako ikuspegia dutenekin harremanetan egonen da. Horregatik, elkarrekin lan egitea eta euren historia pertsonala eta bizitza sozialaren arteko uztarketa bat gauzatzea ezinbestekoa izanen da, talde interakzioak identitatearen eraikuntzan lagundu egiten baikaitu.

Praktika artistikoak norbanakoa bere garapen pertsonala eta identitatearekin identifikatzeko bide gisa erabili nahi da proposamen honen bitartez, non proiektu artistikoen emaitza gure nortasunaren aztarna izanen den, forma, kolore, etab.en erabilera, gure espresioaren erantzun bezala aurkeztuko delarik.

Horrenbestez, haurrak artistak sentiaraztea bilatuko da, beraien bizitza eraikitzeke aukera duten artistak, hain zuzen ere. Horrela, sorkuntza artistikoaren aurrean ikasleen motibazioa kitzikatzen saiatuko gara, artea euren oreka pertsonala, emozio, sentimendu, nahi, etab.en espresio bide bezala aurkeztuz. Alabaina, nortasunaren integrazioa kanpo egoera eta norbanakoaren barnekotasunaren arteko uztarketari deritzo (Vegas, 2012) eta prozesu honetan arteak bilaketa pertsonal bat egiteko aukera eskaintzen digu. Winnicottek (1971) adierazi zuen moduan, gizakia marrazketa, eskultura, etab. praktika artistikoen ondorio diren irudi eta sinbolo bidez, beraien buru irudikapenak eta esperientziak aurkezteko gaitasuna izanen du.

Lan honetan proposatuko diren jardueren bitartez, haurrei, sormen artistikoan oinarritutako komunikazio hautabide bat eskaintzea bilatuko da, beraien identitatea eraikitzeke eta berrinterpretatzeko bide gisa. Horretarako haurren auto-estimua eta mozioekin lanean harituko gara, beti ere talde giroa aintzakotzat hartuz. Marrazketa eta margolaritza gure helburuak lortzeko aliatu ezin hobetzat aurkeztuko dira. Honekin loturik, margolaritzak espresio bide moduan eskaintzen digunaren azalpen borobil bat egiten digu Schaverienek(1989):

...Ninguna pintura puede ser explicada totalmente a través de la palabra; si así fuera, no tendríamos ninguna necesidad de hacerla. La pintura, la expresión artística ofrece un modo de exteriorizar los sentimientos que hace que tengan vida propia, más allá de los recuerdos y los suelos, aunque estos estén a veces presentes en las imágenes (Schaverienek, 1989).

Hau kontuan izanik, gure lanaren garapenera ekinen diogu. Horretarako, lana aurrera eramateko ikasleei mugimendu artistiko eta zenbait autoreekin erlazionaturiko atal teoriko bat aurkeztuko zaie, proposamen didaktikoak aurrera eramateko beharrezko materialak eta baliabideak eskaintzeaz batera. Era berean, esan beharra dago proposamen hau aurrera eramateko batik bat bi informazio iturrietan oinarritu naizela; alde batetik *La educación artística y el arte como terapia. Un camino para*

contruir la identidad del adolescente (Gonzalo Vegas, 2012) deituriko doktoretza lanean eta bestetik; Aplicaciones de arteterapia en aula como medio de prevención para el desarrollo de la autoestima y el fomento de las relaciones sociales positivas: “Me siento vivo y convivo”(Fernández, 2007) artikuluan.

1. TESTUINGURUA

1.1 Ikastetxea eta ikasgelaren aurkezpena.

Praktikak Iruñeko Zizur Txiki herrian kokatzen den San Fermin ikastolan burutzen ari ditudanez, nire proposamen didaktikoa bertan aurrera eramatea erabaki dut, egokitu zaidan ikasmilan eta praktika burutzen ari ditudan gelan, LH3.mailako B ikasgelan, alegia.

San Fermin ikastola oso ikastetxe zabala da eta partaidetza sozialeko ikastetxea izanik, 3 eta 18 urte bitarteko heziketa bere gain hatzen ditu, Haur Hezkuntzatik Batxilergora bitarteko ikaskuntza maila guztien ikaskuntza eskaintzen duelarik.

1.2 Ikasleak eta euren garapen maila.

Ikastaldea 26 ikasleez osatuta dago, hauen artean 12 neska eta 14 mutil daudelarik. Aipatu beharra dago, eta aniztasun arretari so eginez, ikasgelaren barnean harreman sozialak aztertzeko froga bat pasa ondoren (soziograma) baztertuak edo ahaztuak sentitzen diren haurren kopurua nahiko altua dela. Honetaz gain, frogaren emaitzak ikertu ondoren, ikasle baten gainean fokua jartzea erabaki da, bullying kasu baten aurrean egotearen susmopean. Horrenbestez, egoera honen jabe izanik eta egunerokotasunean ikusten diren praktiken erantzunbide gisa, Arte Hezkuntzatik abiatuz, ikasteen auto-estimua, sentimendu eta talde kohesioa lantzeko unitate didaktiko baten garapena eraikitzea izanen da lan honen funtsa.

Piageten (1930) teoriaren aburuz, eta lan honetako lehenengo atalean aurkeztu den moduan, maila honetan ikasleak garapen psiko- ebolutiboaren hirugarren etapan kokatuko dira, garapenaren honako ezaugarriak garatzen joanen direlarik:

- Buru eragiketak burutzeko gai izanen dira, hauek ekintza itzulgarriak direla barneratuz.
- Ondorio logikoak ateratzeko gaitasuna eskuratzen hasiko dira eta objektu fisikoak izango luketen perspektiba irudikatu eta hautatzeko gai izanen dira.
- Euren diskurtsoak koherentzia handiagoarekin aurrera eramanez dira, pertzepzio edo itxurari kasu egin gabe zenbait gaien inguruan argudiatzeko edo arrazoitzeko gai izanik.
- Itzulgarritasun eta ukatzearen printzipioak ulertzen joanen da.
- Euren arreta selektiboa izanen da, euren arreta sortzen duen estimulua azkarrago eta zehatzago bilatzeko joera handiagoa adieraziko dute, hautemate edo pertzepzioa garatuz.
- Informazioa memorizatzeko eta gogoratzeko estrategien hobekuntza emanen da.
- Elkarrizketak jareagoa izanen dira, testuinguru soziokulturalean gero eta partaidetza handiagoa izanen baitute.
- Emozioen ulermen hobea eta errealistagoa eta adiskidetasun harreman trinkoagoak eta sakonagoak dituzte.
- Autonomia pertsonak handiagoa eta auto-kontzeptuaren doikuntza handiagoa eskuratzen doaz.
- Kulturaren sinbolo ezberdinak berenganatzen hasten dira, kultura estandarren inguruko kontzientzia gehiago berenganatuz eta honetan interes gehiago aurkeztuz.
- Arte plastikoaren arloan, oreka, konposizio eta eraikuntzan, oreka mantentzen duten obrak aurkezten dituzte.
- Gai dira beraien arte lanetan erabiltzen dituzten elementuak identifikatzeko eta erabiltzeko, marrazketa obretako errepresentazio ezberdinak "irakurtzeko" gai izanda.

2. CURRICULUMA

Lanaren atal honetan *60/2014 FORU DEKRETUA, uztailaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumean azaldutako argibideak eta*

zehaztapenak kontuan hartuko dira plantatuko den proposamen didaktikoaren oinarri izanen direnak, hain zuzen ere. Horrenbestez, hemendik aurrera curriculumaren inguruan hitz egiten denean, agiri hori erreferentzia egingen zaio.

2.1 Gaitasunak

LOMCE-k Lehen Hezkuntzako curriculumak ondorengo gaitasunak zehazten ditu. Gaitasun hauek, gure proposamen didaktikoan zehar garatuko dira, proposatuko diren jarduera ezberdinen bitartez. Honakoak dira landuko diren gaitasunak eta hauek aurrera eramateko erabiliko diren zenbait jardueren adibideak:

1. Hizkuntza eta komunikazioa: 1. Eta 6. Jardueretan adibidez, ikasleek autore eta liburu ezberdinen informazioaren gainean lan egin behar dutenean.
2. Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasuna.
 - 2.1 Matematika gaitasuna: 5. Jardueran adibidez, proportzioak eta planoko kokaguneak lantzen dituzte.
 - 2.2 Zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasuna: 15. Jardueran edo 1.ean adibidez, informazioa bilatu behar dutenean.
3. Gaitasun digitala: 15 edo 1. Jardueran informazioa bilatu behar dutenean.
4. Ikasten ikasi: Jarduera guztietan ematen da, batik bat euren lanak besteei aurkeztu behar dietenean zein bestekin lan egin behar dutenean.
5. Gaitasun sozio zibikoak: Jarduera guztietan ematen da, batik bat euren lanak besteei aurkeztu behar dietenean zein bestekin lan egin behar dutenean.
6. Ekimena eta ekintzailea: Jarduera guztietan ematen da, batik bat euren lanak besteei aurkeztu behar dietenean zein bestekin lan egin behar dutenean.
7. Kultura kontzientzia eta adierazpena: Jarduera guztietan ematen da, batik bat euren lanak besteei aurkeztu behar dietenean zein bestekin lan egin behar dutenean.

2.2 Helburuak

Lana aurrera eramateko kontuan hartu beharreko helburuak lautan antolatuko dira. Hasteko, Helburu Orokorrak aztertuko dira, *curriculumean* hirugarren orrian azaltzen direnak. Hauetan gure gaiarekin harremanetan egonen direnak eta batik bat Arte Hezkuntzarekin lotuak egonen direnak aukeratuko dira, b), d), j) eta m), hain zuzen ere.

Hauen artean lehenengo hiruak balio sozio - zibikoekin lotura zuzena izanen dute, baina gure helburua norbanakoaren identitatea eta talde integrazioa lantzea izanen denez, helburu hauek ere aintzakotzat hartuko dira:

Taula 1: Helburu orokorrak. Curriculuma

b) Taldeko nahiz bakarkako lanerako aztura, ikastean ahalegina egiteko eta erantzukizunez aritzekoa, eta norberarengan konfiantza, zentzu kritikoa, ekimena, jakin-nahia eta sormena ikasketa prozesuan, eta ekintzailletza.

d) Kultura ezberdinak eta pertsonen arteko desberdintasunak ezagutu, ulertu eta errespetatzea eta, halaber, emakume eta gizonen arteko eskubide eta aukeren berdintasuna, eta desgaitasunen bat duten pertsonak ez diskriminatzea.

m) Nortasunaren arlo guztietan eta besteekiko harremanetan ahalmen afektiboak eta indarkeriarekin, edonolako aurreiritzi eta diskriminazioen eta estereotipo sexisten aurkako jarrera garatzea.

Hezkuntza artistikoarekin loturiko helburu orokorrari dagokionez, j) hizkiari dagokion honako adierazpena har dezakegu kontuan:

“j) Era askotariko irudikapen eta adierazpen artistikoak erabiltzea, sentikortasun estetikoa, sormena eta artelanez eta arte adierazpenez gozatzeko ahalmena garatzea, eta ikusizko eta ikus-entzunezko proposamenak garatzen hastea.”
(Nafarroako foru komunitateko lehen hezkuntzako curriculuma, 2014)

Ondoren, Hezkuntza Artistikoaren arloari dagozkion helburu orokorrak zehaztuko dira, gure unitatea garatzeko ezinbestekoak izanen ditugunak. Haatik, curriculumak ez digu hauen inguruko informaziorik eskaintzen. Horrenbestez, hauek bermatu ahal izateko, Hezkuntza Artistikoaren arloan, Lehen Hezkuntzako 6. Mailara (129. orrialdera) joko dugu eta honetan aurkezten diren ebaluazio irizpideetatik abiatuta Hezkuntza Artistikoari dagokion helburu orokorrak zehaztuko dira (beti ere Plastika arloarekin zerikusia izanen dutenak, izan ere, Hezkuntza Artistikoak bere baitan musika eta plastika biltzen ditu, baino gure lanaren fokua plastika izanen da.):

- A. Animazio film bat egitea, stopmotion animazio teknika erabiliz.
- B. Bere irudia baloratu eta ezagutzea zein besteen irudiak errespetatzea, bere irudi zein besteenaren pribatutasuna onartzen eta errespetatzen duelarik.
- C. Kolorearen ezaugarriak definitu eta identifikatzea (tonua, argitasuna eta asetasuna), ahoz eta idatziz, eta bere sorkuntzetan erabiltzea, erabilitako koloreak nahita aldatuz.
- D. Arte abstraktua, figuratiboa ez bezalako adierazteko modua dela ulertzea.
- E. Obra artistikoen bidez bere emozioak eta ideiak transmititzea.
- F. Material artistiko ezberdinen eta zehazki tenperen adierazpen-ezaugarriak erabiltzea, bere konposizioak sortzeko.
- G. Gorputz geometriko nagusiak ezagutzea eta hauek garatuz konposizioak eraikitzea.

Aurretik zehaztutako helburuak aintzat harturik, hautatutako mailari dagokion helburuak zehaztuko dira, hots Lehen Hezkuntzako 3. mailari dagozkionak. Honetarako Curriculumera (124. orr eta 125. orr) joko dugu eta Arte Hezkuntzako arloan, Plastika atalean, Lehen hezkuntzako 3. mailari dagozkion ebaluazio irizpideak oinarri hartuko ditugu. Honakoak izanen dira proposamen didaktikoa aurrera eramateko aintzat hartuko diren mailako helburuak:


- a. Irudi finkoak modu simple batean aztertzeke gai da tamaina (handia, txikia), forma (horizontala, bertikala), gaia eta elementuak (figurak, hondoa) kontuan hartuz.

- b. Animazio film bat sortzeko oinarrizko pausoak ezagutza (ideia, gidoia, story boarda, sekuentziak prestatzea, sonoritatea, muntaketa, etab) eta zinemako sormen prozeduraren oinarrizko urratsak eskuratzea.
- c. Planoa formaren konfigurazio-elementu gisa identifikatzea, bai lan artistikoetan zein norbanakoaren produkzioetan.
- d. Oinarrizko koloreak zerrendatzea eta ezagutzea eta bere lan artistikoetan hauek erabiltzeko gaitasuna eskuratzea.
- e. Testura ezberdinak ezagutzea eta bere konposizioak eta obrak sortzeko hauek erabiltzea.
- f. Bere konposizioak burutzeko material ezberdinez baliatzea (margoak, errotulagailuak, etab) baino zehazki, tenperak egoki erabiltzen ikastea.
- g. Forma lauetan bolumena irudikatzea, argi iluna erabiliz. Honekin bat, irudi geometrikoen konposizio sinpleak burutzea.

Behin curriculumarekin loturiko helburuak zehaztu direlarik, jorratu nahi dugun gaiarekin loturik egonen diren helburu zehatzak aurkeztuko dira, honetarako Fernández (2007) artikuluan egindako ikerketan oinarrituko gara :

- i. Auto-estimua garapena bermatzea, berdinkideen arteko harremanak sendotzea bilatzen den heinean.
- ii. Norbanakoaren sentimendu eta emozioen ezagutza bideratzeko artista ezberdinen obreakin lan egitea, haurrak euren pentsamenduen interpretazioari bide ematea, artea bide izanik.
- iii. Norbanakoaren identitatearekin lan egitea eta espresio bide artistikorako baliabide eta forma ezberdinak ezagutzea eta erabiltzea; ez bakarrik alor artistikoa edo estetikoarekin lan egiteko, baizik eta norbanakoaren emozioak eta bizipenak adierazteko bide edo aukera ezberdinak eduki ditzaten.
- iv. Berdinkideen arteko komunikazioa eta harremanak sustatu eta indartzeko sormen artistikorako aukera ezberdinak miatzea. Era berean, norbanakoaren eta gertuko ingurunearen inguruko auto-gogoeta egitea, artearen bitartez lotura- sozialak eta elkarbizitza harremanak landuz.

- v. Sormen adierazpenaren garapenarekin lan egitea, honetarako espazio eta baliabide egokiak eskainiz. Norbanakoaren identitatea, nortasuna eta auto-irudiarekin eta era berean, besteenarekin lan egitea, honen eraikuntza eta baieztapen prozesuaren jabe izan daitezten.



(Irudi 9: Helburuen garapena)

2.3 Edukiak

Curriculumean antzeman daiteken moduan, Arte hezkuntzari (122.orr- 130.orr) arloari dagokion atala bi zatitan banatzen da: *Plastika hezkuntza eta Musika Hezkuntza*. Era berean, zati horietako bakoitza hiru multzotan banatzen da. Aitzitik, gure proposamen didaktikoa aurrera eramateko, batik bat Plastika Hezkuntzari dagokion atala aztertzea erabaki da. Arlo honi dagozkion hiru blokeak honakoak dira: Ikus- Entzunezkoen hezkuntza, adierazpen artistikoa eta marrazketa geometrikoa.

Aurrera eramanen den programazioan, hiru bloke hauetan zehaztuak dauden edukiak landuko dira, 16 jarduerako proiektu didaktikoaren bitartez. Horrenbestez, proiektu integral bat garatuko da, non haurrak aldiberekotasunean zenbait eduki jorratuko dituzte, arestian aipatutako helburuak lortzeko helburuz.

Honen karira, edukien sailkapen eta aukeraketa bat egin da curriculumera aintzakotzat hartuz. Sailkapen hau jarduera bakoitzarekin bat aurkeztuko da proiektu didaktikoa aurkezten den heinean.

2.4 Ebaluazioa

Lehen Hezkuntzako curriculumak ezartzen duenaren arabera, “Ikasleek eskubidea dute ebaluazio objektibo bat izateko eta beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez baloratuak eta aitortuak izan daitezten”. Bideanabar, premisa hau Arte Hezkuntzaren esparrura zabalduko dugu. Arlo honetan, ebaluazioa bi motatakoa izan daiteke, alde batetik emaitzari bideratua egonen dena eta bestetik, prozesuari bideratua egonen dena. Ebaluazioaren erdigunean, subjektu bezala, ikaslea agertuko dela kontuan izanik, prozesuan oinarritutako ebaluazioan begirada jarriko dugu, non, behaketatik abiatuz, egunerokotasunean gertatzen diren jokamolde, ohitura, jokabide, jarrera etab. Kontuan hartuz, haurrak kalifikatu egingen dituen.

Arte Hezkuntzaren kasuan, behaketan oinarritutako ebaluazioari ekinen zaio, izan ere, Arte Hezkuntzako saioek eskaintzen duten dinamikotasuna, askatasuna, espresiorako aukera, sormenerako adierazpena, etab. direla eta, emaitzei bideratutako ebaluazioa (testak, azterketak, etab.) bermatzea ez da eraginkorra izanen .

Haatik, ebaluazioa bermatzerako orduan, ez dugu soilik ikaslea ebaluatuko, izan ere, aldi berean prozesu, produktu, jarduera kalitatea, norbanakoaren jokamoldea, klasearen eraginkortasuna, ariketak, etab.en balorazio kritikoa ere egingen da, hauek, etorkizunari begira erabakiak hartzen lagunduko digutelarik.

Arte Hezkuntzan, ebaluazioa burutu ahal izateko, Arte Hezkuntzari loturiko helburu zehatzak eta gure helburu pertsonalekin loturiko helburuak izendatuko dira (aurretik egin den moduan), adierazleak zehazteko baliagarriak izanen direnak.

Formulatutako adierazleak baliagarriak izanen dira ikasle bakoitzari nota bat jartzeko eta hauek burututako garapena eta prozesuan izandako gorabeherak eta arazo edo jokamoldeak ikustarazteko eta balioesteko. Honetaz gain, jarreraren inguruko ebaluazioa ere egingen da, honek, ikasgai honetako ebaluazio prozesuan pisu handia izanen baitu. Honetan ikasleak parte hartze aktiboa izatea, errespetuzko

jarrera aurkeztea, portaera egokia izatea, proposatutako jardueretan saiatzea, etab. bezalako aspektuak aintzakotzat hartuko dira, hots, prozesu guztian zehar ikasleak aurkeztutako izaerarekin lotuak egonen direnak, bai ikasgai, material, espazio, irakasle zein ikasleekiko.

Horrela, eginiko ebaluazioa proposatutako jarduerekin loturik egunean egunekoa izateaz gain, egunerokoa izanen da, prozesu baten parte izanen delarik. Aitzitik, irakasleak egindako ebaluaketaz gain, ikasleak, Arte Hezkuntzaren arloan beraien burua ebaluatzeko aukera era izanen dute. Proposatuko zaien auto-ebaluazioa jorrotutako lanaren gainean, egoera psiko-afektibo pertsonalaren gainean zein egoera psiko-sozial edo talde kohesioaren inguruko hausnarketa bat burutzeko gonbidapena izanen da. Horrela, ikasleei aukera ere emanen zaie ebaluazioaren parte sentitzeko eta prozesuaren agente aktibo bihurtzeko. Hau ere, irakasle moduan baliagarria izanen zaigu ikasleen interes, nahi, proposamen, larritasun, buruhauste, etab. ezagutzeko.

Ebaluazioa aurrera eramateko, aipatutako moduan adierazle batzuk jarraitu beharko dira, bai jarrera zein edukien barneraketaren inguruan burututako ebaluazioetan. Hauetan, %50a kontzeptuzko eduki eta prozedurazkoei loturiko ebaluazioari eskainiko zaio (hauetako lehenengoei %20ko balioa emanaz eta bigarrenei %30a) eta ebaluazio edo kalifikazio nota finala jartzeko %50 hau osagarri izanen da jarreraren ebaluazioarekiko. Honetarako irakasleak eranskinetan atxikituak aurkitu daitezken errubrikak erabili ditzake.

Azkenik, ikasleei ere euren burura zein irakaslearen rola ebaluatzeko aukera eman behar zaie, horretarako auto-ebaluazio fitxa bat zein koebaluazio fitxa bat betetzeko eskatuko zaielarik.

2.5 Metodologia

Programazio honetan, erabiliko dugun metodologia zehaztu baino lehen, aipatu beharra dago, ezinbestekoa dela zenbait alor aintzat hartzea, izan ere erabakigarriak izanenen dira ikasgaia eraginkortasunez aurrera eramateko. Kontuan hartu beharreko arloen artean, testuingurua edo ingurugiroa, ikasmailaren nolakotasuna, burutuko diren jarduera motak, hauen bitartez lortu nahi diren

helburuak, materialak, printzipio metodologikoa, etab. aurkitzen dira. Bideanabar, aipatutako faktore guzti hauek kontuan hartuz, metodologia bat edo beste aukeratuko dira proposamenetan zehar, klasearen dinamikotasunera egokitzeko, proiektuan zehar estrategia metodologiko ezberdinak erabiliko direlarik.

Curriculumari so eginez, eta LH3. Mailan kokatuko garelarik, Arte hezkuntzako arloak metodologia aktibo baten beharra eskatzen duela adierazi beharra dago. Izan ere, ikasleen parte-hartze aktiboa sustatzea oinarriko irizpideetako bat izanen da, hauen inplikazioa bultzatuz, landuko diren esparru ezberdinetan autonomia eta auto-erregulazioa lor dezaten.

Honetaz gain, helburua ikaskuntza esanguratsua bermatzea izanik, ikasleek gaiaren inguruan dituzten aurre ideietatik abiatzea aproposa izanen da, ezagutza berriak berenganatzeko prozesuan interesa piztea bilatuko delarik. Horrela, gure proposamenean, ikasle bakoitzaren esperientziatik abiatuko gara, bere nahiak eta gaitasunak kontuan hartuz, gaian murgiltzen saiatuko ditugularik. Hau bermatzeko, irakaslearen inplikazioa faktore garrantzitsua izanen da, izan ere, motibazioz, hurrei gaian murgiltzen lagunduko die, honetarako baliabide ezberdinak eskainiz. Bederen, aipatzekoa da irakasle- ikasle zein ikasleen arteko komunikazioa kontuan hartu beharreko ezinbesteko faktoreak izanen direla. Elkarrenganako komunikazioa eraginkortasunez ematen bada, lan erritmoa egokia izanen da.

Arte Hezkuntzako proiektu honen bidez lortu nahi diren oinarriko helburuen artean, ikasleen errespetuzko jarrera eta parte hartze aktiboa bermatzea egonen dira. Arestian aipatutako moduan, proposamenaren oinarriko helburuen artean haurrek estereotipo sozialen aurrean dituzten ideien zabalkuntza bideratzea egonen da.

Horrela, berdintasuna (genero, estatu sozial, berdinkide, etab.en artean), errespetua, elkarlana, talde kohesioa, inklusioa, integrazio, norbanakoaren auto ezagutza, etab. bezalako balioak garatzea bilatuko da. Ikasleak bere barnean begiratzen ikastea izanen da lortu nahi den premisetako bat eta horretarako bere auto-irudiaren eta nortasunaren inguruan gogoeta egitera animatuko zaio. Aurkeztuko diren proposamenen bidez, haurrak mundua eta bere ingurugiroaren inguruan dituen ideien onarpena hedatu edo zabaltzen saiatuko gara. Horretarako haurrak bere

gorputza eta identitatearen jabe izan behar da, ondoren inguratzen dion munduaren isla kritikoki aztertzeke eta balioesteko.

Prozesu hau bidertzeke, horrenbestez, ikasleak indibidualki zein kolektiboki lan egiten ikasi beharko dute, honekin lotutako zenbait balore barneratuko dituztelarik. Ikasleen autonomia eta auto erregulazioa lantzeaz gain, ezinbestekoa izanen da ere hauek ingurunearekin zein ikaskideekin daukaten harremanetan enfasia jartzea. Ikasleak, kolektibo baten parte izanen direlarik, lan espazio, material eta ikaskideak errespetatzen eta talde lanean aritzen ikasi beharko dute. Horretarako, kooperazioan oinarritutako zenbait proposamen eginen dira. Taldekako jardueretan harremanak eta elkar eragina sartzan dira jokoan, horregatik, inklusioa eta talde kohesioa bermatzeko, irizpide ezberdinak kontuan hartu beharko ditugu (behin taldea ezagutzen dugularik estrategia ezberdinez baliatu gaitzake taldeak osatzeko, ikaskideen artean egonkortu nahi diren harremanak edo azertu nahi diren elkarreraginak aintzakotzat hartuz), landu nahi diren: talde txikiak, talde handiak, homogeen edo heterogeenak, banakakoak, binakakoak, etab.

Honakoak izanen dira erabiliko diren metodologia estilo aipagarrienak:

- *Proiektuetan oinarritutako irakaskuntza estiloa:* Modu zabal eta kolektibo batean lan egiteko bideratua dagoen metodologia. Honetarako, ikasle guztien inplikazioa ezinbestekoa izanen da talde lan kolektiboa bultzatuz eta kooperazioa oinarri izanda. Metodologia hau bideratzeko zenbait aukera egonen dira, jarraian aipatutako metodologia estrategiekin zerikusia izanen dutenak, horrenbestez, ondoren proposatutako metodologiak biltzen dituen proposamenaren aurrean aurkitzen gara (Metodologikoak, 2014).
- *Elkarrekiko ikaskuntzan oinarritutako estiloa:* Metodo honen ideia nagusia, ikasleak elkarren artean gauzak ikasteen datza. Bakoitzak funtzio bat izanen du eta funtzio guztiak ezberdinak izanen dira, haien artean osagarriak izanik. Funtzio guzti hauek, helburu komun bat lortzera bideratuak daude eta besteei funtzio hori burutzeko pausoak irakatsiko zaizkie. Estilo honek ikasleen parte hartzea sustatuko du, kide batengandik feedbacka eman eta jasoko delarik. Burutzen diren jardueren gauzatzea behatu, alderatu eta irakasleak

esandakoarekin kontrastatu behar da; jasankortasuna, duintasuna eta tolerantzia bezalako balioak garatuz (Metodologikoak, 2014).

- *Arazoetan oinarritutako irakaskuntza estiloa:* Hasiera puntu gisa arazo bat aurkezten da (erakargarritasun bat, pizgarri bat, agertoki bat etab.). Arazoa ikaskuntzaren emaitza bat edo hainbat hartzeko diseinatua egonen da, emaitza hauek, gertakizunak, kontzeptuak, gaitasun tekniko edota praktikoak izan daitezkelarik. Metodologia hau bideratzeko, zenbait estrategia egon daitezke, ikasleari ematen zaion autonomia eta erantzukizunaren arabera. Horrela, proposamenak irakasleak gidatuak izan daitezke, honek jarduera segidak zehaztuz, edo ikasleei autonomia gehiago eman, beraiek prozesuaren protagonistak izanik (Metodologikoak, 2014).
- *Zereginetan oinarritutako irakaskuntza estiloa:* Arazoen kasuan bezala, ikasleak proiektu bat aurkeztuko die ikasleei. Proiektu hau burutzeko, aldik, jarraitu beharreko zenbait pausu edota zeregin planteatuko dira. Horrela, ikasleen helburua zeregin hauek eraginkortasunez gauzatzea izanen delarik, proiektuaren garapena planifikatu behar da, lan- taldean ardurak zehaztu, proposamena garatu etab. Kasu honetan, irakaslearen esku egonen da honek saioaren helburuak hautatu eta hauek lortzeko ariketak prestatzea. Irakasle-ikasle arteko elkarreragina ematea ezinbestekoa izanen da bai jarduerak aurrera eramateko unean zein ebaluazio garaian. Irakasleak euren ikasleengan konfiantza izan beharko du, eta hauek, bere aldetik, autonomia eta idenpendentziaren hastapenak esperimendatuko dituzte zereginak burutzeko hartzen dituzten erabaki guztietan (Metodologikoak, 2014).
- *Ikaskuntza kooperatiboa:* Estrategia didaktikoa den heinean helburua ikasleak talde lanean haritzea bilatuko da. Ikasleak ez du bakarrik ikasiko. Indibidualki lan egiteaz gain, talde baten kide ere bada, horrenbestez, taldean eginkizunak garatu, erabakiak hartu etab. guztien artean egin beharko dituzte. Taldekide guztiek zehaztutako ikaskuntza helburuak bete beharko dituzte eta ebaluazioa taldearen lorpenaren menpe egonen da, lankidetzan sustatuko delarik. Honen barnean aurreko estrategia metodologikoak bildu ditzakegu (Metodologikoak, 2014).

- *Aurkikuntza gidatuan oinarritutako irakaskuntza estiloa:* Irakaskuntza estilo honetan irakasle- ikasleak hartutako rola aldatzen dira. Irakasleak helburuak hautatu eta hauek lortzeko galdera sekuentzia bat planteatuko die ikasleei. Kasu honetan ikaslearen erantzunaren pean egonen da, etengabeko feedbacka eskainiz eta onarpen eta pazientzia giro bat sortuz. Estilo honek irakaslearen gaitasun handiagoak eskaintzen ditu, honen ardura oso handia baita. Arazoen ebazpenean oinarritutako irakaskuntza estiloarekin alderatuz, kasu honetan esan dezakegu, arazoaren aurrean jokatzeko, ikasleak aukera ezberdinak izanen dituela, aukera bakarrean fokua jarri ordez. Horrela, ikasleak bere gaitasun kognitiboa garatuko du, ohikoak diren erantzunetatik haratago joanez (Metodologikoak, 2014).

Proposamen didaktikoan garatutako jarduerekin bat metodologia estilo eta beharrezko materialen bilduma aurkeztuko da.

3. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Aipatutako alorrak kontuan izanik eta gure proposamen didaktikoaren helburuak aintzakotzat hartuz, jarraian pairatuko dugun unitate didaktikoa proposamena aurrera eraman da. Honen bitartez, zeharkako modu batean garapen artistiko zein sormen artistikoarekin loturik dauden zenbait alor garatu nahi izan dira. Gehienetan, jarduera plastikoetan ikus-pertzepzioari garrantzi handia eman ohi zaio, kolorea, forma eta “perfekzio artistikoan” fokua jarriz, perfekzio artistikoa errealitatearen antzekotasunarekin edo zehaztasun artistikoarekin erlazionatu ohi delarik. Bideabar, erlazio honek zenbait haurrengan frustrazioa sor dezake, horrenbestez, jarraian proposaturiko jardueren bitartez, adierazpen artistikoak sortzeko baliabide, material eta modu berriak eskainiko dira.

Honen karitatera, burututako proposamen guztiak auto estimua, identitatea, nortasuna, auto irudia edota talde kohesioa zein elkar- harremanak lantzeko bideratuak egotearen premisaren azpian lan egingen dugu.

Jarraian, proposamenaren barnean sailkatu eta aurrera eramanez diren jarduerak aurkeztuko dira. Aitzitik, kontuan hartu beharra dago, plastikaren arloari

eskaintzen zaizkion orduak urriak direnez (ordu bakarra astean), zenbait jarduera saio-ordu honetatik at burutuko direla, euskara bezalako arloei eskainitako orduak probestuz. Honela, integrala izanen den proposamena aurrera eramane da, izan ere, arlo ezberdinetan landu beharreko edukien uztarketa bideratzea bilatu izan da.

3.1 Jardueren sekuentzia:

1. *Jarduera: Artisten munduan murgiltzen naiz!*

(*Taula2: 1. Jarduera curriculum zehaztapenak*)

Edukiak			
Curriculuma		Eduki propioak	
1. Blokea: Ikus-entzunezko hezkuntza Irudi digitala: irudiak bilatzea. Irudi finkoa: Analisia		Enpatia Margolarien ezagutza. Taldea lana Taldea kohesioa	
Helburuak			
Orokorrak	A.H orokorrak	Mailakoak	Propioak
b),d),m),j)	D,E	a, c,d	ii,iv
Materiala: Artista bakoitzaren informazio testua eta galderak. (I. ERANSKINA)			
Metodologia estiloa: Elkarrekiko irakaskuntza eta zereginetan oinarritutakoa.			
Lan dinamika: Indibiduala eta Taldekakoa (6 pertsonako 4 talde)			

Sormen Artistikoari loturiko proposamen didaktikoari sarrera ematearren, egokia ikusi dugu ikasleak zenbait korrante eta mugimendu artistiko zein hauetan nabarmenak izan diren artisten munduarekin kontaktuan jartzea. Haurrak artearen munduan barneratzeko, sarrera jarduera gisa euren egonezina, bizitzako gertakizunak, izaera psikologikoa, etab. produkzio artistikoetan pairatu dituzten zenbait artisten arteko aukeraketa egin da.

Hauen artean honakoak ditugu: *Matisse (Fauvismoa), Frida Kalho (Surrealismoa), Andy Warhol (Pop Art) eta Picasso (Kubismoa)*.

Autore hauek aukeratuak izan dira gizarte mailan entzunak diren autoreak direlako, horrenbestez, baliteke ikasleei ezagunak egitea. Honetaz gain, hauek bultzatutako mugimendu artistikoei artearen munduari egindako ekarpenak direla eta, egokiak izan daiteke.

Jarduerari hasiera emateko, ikasleei autoreetako bakoitzaren koadro bat aurkeztuko zaie arbelean (I. eranskina: 1. Jarduerari loturiko material didaktikoan, galdera sortetan, amaieran agertuko den irudi bera izanen da), eta hauen inguruan, ozen eztabaida bat irekiko da, non ikasleei galdera batzuk eginen zaizkien: *Zer ikusten duzue koadroan?, Ze kolore dira nagusi?, Zergatik uste duzue erabili dituela kolore horiek?, Zer uste duzu adierazi nahi izan duela autoreak koadro honekin?, Zer sorrarazten edo sentiarazten dizu koadroak zuri?*

Eztabaida irekia izanen delarik, txandak errespetatuz, hurrei airean utzitako galdera hauei erantzuteko aukera emanen zaie, gaiaren gainean dituzten iritzi ezberdinak partekatzeko aukera emanen zaielarik. Honen bitartez, bakoitzak errealitate beraren aurrean edo kontzeptu zein objektu beraren aurrean daukan ikuspegia ezberdinez jabetzeko aukera emanen zaie. Honek, errealitatearen erlatibitatearen inguruan eta norbanakoaren ikuspegiaren inguruan hausnarrarazteko aukera emanen digu, hau ondoren praktikan ikusi dugun kontzeptua izanik.

Behin haurrak gaien testuinguratu direlarik, taldeka antolatuko dira. Talde bakoitzari autore baten inguruko informazioa biltzen duen testu bat banatuko zaie. Testu hau moldatua izanen da, adina kontuan harturik (I. Eranskina: 1. Jarduerari loturiko material didaktikoa). Testu hauei aurretik ikusi dituzten koadroak lotuko zaizkie, hurrek hauen inguruan daukaten informazio eremua edo esparrua zabaldu dezaten.

Behin baliabideak banatu zaizkielarik, ulermen ariketa bat burutzea eskatuko zaie ikasleei. Adin honetan ulermenari loturiko jarduera anitz burutzen dituzte, izan ere, maila honen amaieran, ulermen maila altu bat eskuratu beharko dute. Horrenbestez, ariketa honen bitartez ulermena lantzea erabaki dugu, arte hezkuntza eta Euskal Hezkuntzari dagokion edukien arteko uztarketa bat eginez.

Ikasleei testsua eta irudia ikusi ondoren, ulermen bisuala zein idatzizkoa lantzeko ariketa sorta bat eskainiko zaie (galdera sortan amaieran agertzen den irudi bera izanen da). Honetan, ikasleek zenbait galderei bakarka erantzun beharko dituzte (I. Eranskina: 1. Jarduerari loturiko material didaktikoa) eta hauei erantzun ondoren, taldeka erantzunak komunean jarriko dituzte eta irakaslearen laguntzaz erantzunak zuzenduko dituzte. Behin talde bakoitzak dagokion autorearen inguruko informazioa

eskuratu ondoren, fitxa bat banatuko zaie eskuratutako informazioaren inguruko sintesi laburpen bat egin dezaten, ondoren bere gelakideei aurkeztu ahal izateko. Jarduera honen amaierako fasean, ikasleei euren gelakideei taldean prestatutako aurkezpena azalduko diete, besteek ere zenbait artisten inguruko informazioa eskuratu dezaten.

Aipatzekoa da sarrera jarduera hau burutzeko euskarako klaseak erabiliko direla, sormen artistikorako gaitasunekin lantzea ez baitu eskatzen.

2. **Jarduera: Emozioen maskarak!**

(**Taula3:** 2. Jarduera curriculum zehaztapenak)

Edukiak			
Curriculuma		Eduki propioak	
2. Blokea: Adierazpen artistikoa Kolora: Oinarrizko koloreak(magenta, horia eta ziana). Teknikak eta materialak: tenperak. Bolumena: bi dimentsio bidez irudikatzea. Argi iluna.		Emozioak Sentimenduak Errespetua. Auto irudia. Auto ezagutza. Adierazpena	
4. Blokea: Dantza eta mugimendua Gorputz adierazpena: Keinuz lagundutako kantua		Aurpegi Espresioak Talde lana Talde kohesioa	
Helburuak			
Orokorrak	A.H orokorrak	Mailakoak	Propioak
b),d), m),j)	C,E,F	d,e,f	I,ii,iii,v
Materiala: Papera, arkatza, bendak, ura, komuneko papera, tenperak, pintzelak.			
Metodologia estiloa: Zereginetan oinarritutakoa eta elkarrekiko irakaskuntza estiloa.			
Lan dinamika: Bikoteka			

Jarduera honen bitartez ikasleei emozioen lanketari loturiko jarduera bat aurkeztuko zaie, material ezberdinekin lanketa bat burutzeko aukera ere eskainiz. Ikasleak maskarak burutu beharko dituzte, emozioekin loturiko aurpegi espresioen adierazpenekin lotuak egonen direnak. Honetan, oinarrizko emozioekin lan egiten da: alaitasuna, tristura, haserrea eta beldurrarekin batik bat.

Hasiera batean alaitasuna, tristura, haserrea eta beldurra entzuten dutenean zer motatako aurpegia jarriko luketen pentsatzera animatuko zaie, eta horrela taldean daudelarik elkarren artean aurpegiak jarriko dituzte, emozio horiek espresatzeko aurpegi mimikarekin jolastuz. Proposamen honen bitartez, aurpegi adierazpena eta emozioen uztarketa burutzearekin, gaian murgiltzen saiatuko gara, ikasleen gaiarekiko interesa piztuz.

Ikasleak gaian sartuak daudelarik, jarduera aurrera eramaten jarraituko da, eta hurrengo urratsa aurkeztuko zaie. Horrela, ikasleei, aurretik aipaturiko emozioen espresioa, paperean nola adierazi edo marraztuko luketen galderaren aurrean erantzuna grafikoki espresatzeko eskatuko zaie (bozetu bat egitearekin aski izanen litzateke).

Behin bakoitzak beraien espresioak paperean burutu dituztelarik guztien artean komunean jarriko dira, euren arteko berdintasun edo ezberdintasunak komentatzearen. Baliteke eta posibleena da, gehiengoan kasuan antzeko adierazpenak aurkeztea. Ondoren, lanketa honekin jarraitzeko eta gaur egun teknologia berriek eskaintzen duten baliabideak probestuz, haurrentzat ezagunak diren emotikonoekin lan egingen da, aurpegi espresio eta emozioen arteko lotura azaltzeko.

Horrenbestez, aurretik mahai-jarritako lau emozioekin loturiko emotikono ezberdinak hautatuko dira eta ikasleak taldeka hauek sailkatu beharko dituzte. Hau burutzeko, “bikoteen jolasean” bezala, emozioak hauen adierazpen grafiko edo emotikonoekin lotu beharko dituzte eta ondoren espresio edo adierazpen grafikoaren aztarnak idatzi beharko dituzte, jarraian aurkeztuko den adibidearen antzera:

<i>Emozioa</i>	<i>Adierazpen grafikoa</i>	<i>Espresioa</i>
Alaitasuna		Begi handiak, bekainak arku bat marrazten eta ahoa irribarre handi bat marraztuz.

Behin adibidearen moduan proposatu zaizkien lau emozioen sailkapena burutu dutelarik, bikoteka emozioen maskarak burutzeari ekinen zaio (bikotekide bakoitzak emozio bat). Maskarak burutzeko honako prozesua jarraitu beharko dute:

- Ikasleak bikoteka jarri (bikote bat hasieran maskara egilea izanen da eta bestea maskara egingo diotena).
- Bere aurpegiaren maskara eginen dioten haurrak aurpegi espresio bat jarriko du (ondoren maskaran islatua ikusiko dena).
- Maskara egileak bestearen aurpegia kremaz igurtziko du eta igeltxoak ez itsastearren aurpegiko aldeetan komuneko paper pixka bat jarriko dio.
- Bendak aurpegiaren neurriko tira ezberdinetan moztuko dira.
- Bendak uretan bustiko ditugu eta gutxinaka-gutxinaka aurpegiaren gainen jartzen joanen dira, aurpegiaren forma ongi markatuz.
- Igeltxoak lehorra dagoenean, kontu handiz ikaskidearen aurpegitik kenduko dugu.
- Lehortzen utziko digu, azkenik apaindu ahal izateko.

Proposamen honen bitartez, modelaketa antzeko eredu batekin lan eginen da, non ikasleek maskaren eraketa eta apainketa burutzeko prozesuak garrantzi handia izanen duen. Honetaz gain, maskarak egoera emozional baten estatu dinamiko bat adieraziko du, sentimenduak eta emozioak norbanakoaren baitakoak eta adierazpen ezberdinak izan dezaketela ohartarazteko aukera izanen dutelarik. Proposamen honen bitartez ikasle bakoitzak bere lan pertsonala burutzea bilatuko da, non aurretik landu diren ideien adierazpena aurrera eramateaz gain, material ezberdinekin eta objektu ezberdinekin (maskara dekoratzeko kolore-emozioen inguruan ikasitakoa aplikatzeaz gain, objektu birziklatu edo testura ezberdinak dituzten paperekin lan egin ahalko duten) inpresio ezberdinak burutuko diren. Bidenabar, lan honen bitartez metafora batekin lan eginen da, izan ere, maskarak “aurpegia estaltzeko” erabili dira, hau da besteek gure identitateaz ez jabetzeko. Hala ere, jarduera honen bitartez kontzeptu honi bira bat eman zaio, eta maskarak gure nortasuna eta egoera emozionalaren adierazpen bihurtu ditugu.

3. **Jarduera: Kolorearen interakzioa.****(Taula 4: 3. Jarduera curriculum zehaztapenak)**

Edukiak			
Curriculuma		Eduki propioak	
1. Blokea: Ikus-entzunezko hezkuntza Irudi finkoa: analisia		Hautematea Pertzepzioa	
2. Blokea: Adierazpen artistikoa Planoa: forma taxuzko elementuak Kolorea: oinarritzko koloreak (magenta, horia eta ziana)		Emozioak	
Helburuak			
Orokorrak	A.H Orokorrak	Mailakoak	Propioak
b),d),m),j)	C	a,c,d,g	iv
Materiala: Kolore ezberdinetako kartulinak			
Metodologia estiloa: Aurkikuntza gidatua oinarritutako irakaskuntza estiloa eta arazoetan oinarritutakoa.			
Lan dinamika: Lan taldeka (4 pertsonako 4 talde eta 5 pertsonako 2)			

Jarduera hau aurrera eramateko Josef Albers (1989) *La interacción del color* liburuan aurkezten dituen jardueraz baliatuko gara, pertzepzioa eta hautematearen ikuspuntutik koloreak adieraztera ematen digunarekin lanean arituz.

Aurkeztutako liburu honek kolorea ikasi eta irakasteko modu esperimental bat aurkezten digu. Pertzepzio edo hautemate bisuarekin kolorea ez da fisikoki edo errealtatean ikusten dugun kolore bera bezala aurkezten. Honek, kolorea arteak erabilitako baliabiderik erlatiboenean bihurtzen du. Horrenbestez, kolorea egoki erabili nahi bada, kontuan hartu beharra dago honek uneoro iruzur egiten gaituela. Premisa hauen pean, Josef Albers (1989) autoreak jarduera honetan landuko dugun liburua aurkeztu zuen.

Lehenik eta behin, kontuan hartu beharra dago kolore batek irakurketa ezberdinak onartzen dituela. Kolorearen armonia kromatikoarekin loturiko legeak aurre- suposatuta edo mekanikoki aplikatu ordez, kolorearen interakzioarekin loturiko hautematearekin efektu ezberdinak bideratzen saiatuko gara. Horrela, ezberdinak diren koloreen antzekotasunarekin lan egingen dugu.

Jarduera honen helburua, esperientziaz gozatuz koloreekin lan eginen da, ikusmena kolore ezberdinen aurrean garatuz. Horrenbestez, koloreen ekintza ezberdinak aztertuko dira, hauen arteko erlazioaren inguruko gogoeta egiteaz gain.

Hau aurrera eramatearren, ikasleei zenbait lamina emanen zaizkie, Josef Albersek (1989) liburuaren azken orrialdetan planteatzen dituenak, alegia. Honekin, ikasleek hautemate edo pertzepzio bisualarekin jolasteari ekinen diote. Horrela, ikasle bakoitzak kolorea ulertzeko daukan ikusmira aurkeztuko du.

Ikasleak lamina bakoitza ikertu ondoren, irakasleak horren interpretaziorako irizpideak emanen dizkio. Honetarako, aurkeztutako liburuak ematen dizkigun argibideez baliatuko gara, eranskinetan (II. Eranskina, taula... Laminen azalpena) aurkituko duguna aintzakotzat hartuz.

4. **Jarduera: koloretako formen bitartez mundua margotuz!**

(Taula 5: 4. Jarduera curriculum zehaztapenak)

Edukiak			
Curriculum		Eduki propioak	
1. Blokea: Ikus-entzunezko hezkuntza: Irudi finkoa: analisia		Emozioak Sentimendunak	
2. Blokea: adierazpen aristikoa: Planoa: forma taxuzko elementuak Teknikak eta materialak: tenperak Kolorea: oinarritzko koloreak (magenta, horia eta ziana) Bolumena: bi dimentsio bidez irudikatzea. Argi iluna.		Talde lana Talde kohesioa Errespetua Partekatzea	
Helburuak			
Orokorrak	A.H orokorrak	Mailakoak	Propioak
b),d),m),j)	B,C,D,E,F,G	a,c,d,f,g	i,ii,v
Materiala: Goma eva, kartoi edo poliespaneko euskarria, tenperak (oinarritzko koloreak), pintzelak, itsaskia, siluetak, artaziak, orriak.			
Metodologia estiloa: Aurkikuntza gidatua eta ikaskuntza kooperatiboan oinarritutako irakaskuntza estiloak.			
Lan dinamika: Lan taldeak (4 pertsonako 4 talde eta 5 pertsonako 2)			

Matisse margolariaren collage eta grabatu tekniketarik abiatuz, ikasleei koloreak, forma eta emozio zein sentimenduen lanketa uztartzen dituen ariketa bat proposatuko zaie. Jarduera hau burutzeko ikasleei hiru oinarritzko emozioekin lanean

arituko garela azalduko zaie: Alaitasuna, poza eta beldurra. Horrela, jarduera aurrera eramateko argibideak zehaztuko dira:

Silueta eta koloreekin lan egingo dugula azalduko zaie, grabatu teknikatik abiatuz. Honetan, hasiera batean zeregin bat planteatuko zaie, ikasleek beraiek lan egiteko lan tresnak edo materiala sortzea, hain zuzen ere. Hau burutzeko talde lanean arituko dira. Materialaren sorkuntzari dagokionez, ikasleei euren zigilu propioak eratzeko teknika bat erakutsiko zaie. Horretarako, goma eva materiala zein poliespaneko edo kartoizko plantxak behar izango ditugu. Materialaren eraikuntza honetan datza: Ikasleei zenbait irudien silueta ezberdinen adibideak emanen zaizkie. Ondoren, silueta hauek moztu eta goma evan kalkatzeko edo marrazteko eskatuko zaie. Behin goma evan marrazkia izanik, hau moztu eta Kartoizko egituran itsatsi beharko dute, zigilua eratuz. Horrela, forma ezberdinez osaturiko zigiluak izanen dituzte.



Irudia 10: Txori irudiko zigilua.



Irudi 11: Zigiluekin eta oinarritzko koloreekin margotzen

Behin materiala eskuratua izanik, beste zeregin bat planteatuko zaie ikasleei: Hiru egoera edo emozio ezberdin planteatuko zaizkie (beldurra, alaitasuna eta tristura), honetan, ikasleak hiru egoera edo emozio hauek sorrarazten dietenaren inguruan pentsatu beharko dute. Hau kontuan izanik, egoera hauetako bakoitzarekin zerikusia daukan konposizio bat eratu beharko dute, aurretik sorturiko materialaz baliatu beharko direlarik. Jarduera honen bitartez, koloreekin eta tenperekin lan egingen da. Funtsa egoera edo emozio bakoitza zirkulu kromatikoko kolore ezberdinekin harremanetan jartzea izanen da eta honen arabera, konposizio bat edo beste eratzea. Behin bakoitzak bere konposizioa osatua duelarik, euren ikasleei burututako lana

aurkezteko aukera emanen zaie, horrela erabilitako kolore edo formen zergatia eta konposizioaren funtsa eta egitura azaltzeko aukera emanen zaielarik.

Jarduera honek izanen dituen baldintzapenen artean, lehen mailako koloreak erabiltzea aurkituko da eta beraz, ikasleak hauen arteko konposizioekin jolastu beharko dute. Irudietan ikusi daitezkeen moduan, irudi ezberdinetako siluetak eskainiko zaizkie ikasleei (hauen artean irudi geometrikoak) eta hauen bitartez, euren konposizioak eratu beharko dituzte, errealitatetik at joan daitezkeenak, sinbolismoarekin lotuak egon daitezkeelarik. Izan ere haurraren garapen artistikoaren teorian azaldu den moduan garai honetan jada gai dira irudiei edo sinboloen arteko konposaketei errealitatetik at aldentzen den esanahi bat emateko. Honekin emozioen espresioarekin eta emozio-koloreen arteko harremanarekin gertutasuna biltzen saiatzen da, beti ere ikasleei ludikoki material ezberdinekin eta teknika ezberdinekin praktikatzeko aukera eskainiz. Horrela, nahiz eta hasierako baldintza batzuk proposatu burutu dezaketen konposizioa librea izanen da bere irudimenari bide emanez.




Irudi 12: Zigiluen bidezko konposizioak eraten



Irudi 13: Ikasle batek burututako konposizioa

Jarduera honen bitartez talde kohesioa eta talde lana bultzatzea bilatu da, non ikasleek elkarrekin material sorta eraiki duten, ondoren, elkarren artean partekatuz, konposizio ezberdin asko eratzeko aukera izanen duten. Bidenabar, elkarren arteko harreman eta elkarrizketak sortzeko aukera eskaintzen duen ariketa izanik, ikasleei taldean ekintzak errazago edo hobe burutu daitezkeela ikustarazi nahi zaie, elkarren artean hitz egitera, akordioetara heltzera, etab. etara bultzatuz. Horrenbestez, funtsa material partekatua eta guztien artekoa izanen dela azalduko da hasieratik.

Honetaz gain, jarduera honen bitartez, aurreko jardueran (3. Jardueran: kolorearen interakzioan), Josef Albersen teoriarekin ikasi dutena praktikan jartzeko bestelako modu bat aurkeztuko zaie. Honetan, oinarrizko koloreetatik abiatuz eta forma ezberdinak erabiliz konposizio ezberdinekin jolastu dezakete, paperean, koloreen arteko nahasketak burutuz (zigilu batek utzitako arrastoa bestaren gainean jarritz, argazkietan ikus daiteken moduan) eta irudi ezberdinak osatuz, pertzepzio edo hautematearen forma ezberdinekin lan eginen dutelarik.



Irudi 14: Ikasle batek burututako konposizioa, "hosto bikoitza"

5. **Jarduera: Egoera emozionalak!**

(Taula 6: 5. Jarduera curriculum zehaztapenak)

Edukiak			
Curriculum		Eduki propioak	
1. Blokea: Ikus-entzunezko hezkuntza: Irudi finkoa: analisia Irudi digitala: irudiak bilatzea		Emozioak Sentimenduak Errespetua.	
2. Blokea: Adierazpen artistikoa: Testurak: testura naturalak eta artifiziala		Auto irudia. Auto ezagutza. Adierazpena Auto-estimua Collage	
Helburuak			
Orokorrak	A.H Orokorrak	Mailakoak	Propioak
b),d),m),j)	B,D,E,F	a,c,f	i,iii,iv
Materiala: Aldizkariak, testura ezberdinetako laminak, artaziak, margoak eta itsaskina.			
Metodologia estiloa: Aurkikuntza gidatua eta zereginetan oinarritutako irakaskuntza estiloa.			
Lan dinamika: Indibiduala			

Aurreko jardueraren ildo beretik jarraituz, proposamen hau collage teknikan oinarrituko da, kasu honetan aurreko egoera edo proposamen aintzakotzat hartuz, ikasleei collage bat eratzeko eskatuko zaie oinarriko 3 emozioekin loturik (alaitasuna,

tristura, haserrea). Horretarako, ikasleak, aldizkari eta irudi ezberdinetatik eskuratu dezaketen materialetatik abiatuz, hiru konposizio eratu beharko dituzte. Azkenik, euren konposizioa besteen aurrean aurkezteko aukera emanen zaie.

Proposamen hau aurrera eramateko, aurretik collage teknikaren nondik norakoak azaldu beharko zaie.

Collage teknika, aurretik forma zehatza daukaten pusketak moztean datza. Horretarako eta konposizio konposatu eta antagonikoak sortzeko helburuarekin, aurretiko obra edo bestelako irudi bisual zein testuetatik ateratako mezuak aukeratzen dira, ondoren hauek alboan edo bat bestearen gainean jarriz lan egiten delarik.

Horrenbestez, efektu ezberdinak abiapuntu izanik, osagai heterogeneoen elkartzea egiten da; euren hasierako testuingurua, esanahia edo mezua eraldatzen duten arren, euren hasierako forma edo konposizioa mantentzen jarraitzen dutenak. Collage teknikaren aitzindariak aurkitzeko 1912. Urtera jo behar dugu non proposamen piktoriko bezala Pablo Picassok lehenengo collage-a margotu eta itsasteari ekin zion. Kubistek letrak, zifrak, partiturak etab. margotzen zituzten zeinak marrazten zituzten forma lauak, bolumena zeukaten objektuekin kontrastatu egiten zituzten. Honek koadroaren inguruan ikuspegi multifoka bat eskaintzen zuen. Elementuen nahasketa honek, ilusioa eta errealtatearen zein erretorika tradizional eta errepresentazio figuratiboaren arteko mugak apurtzen ditu (Yurkievich, 1986).

Teknika honen bitartez, curriculumak azaltzen duen moduan, ehundura ezberdinekin (natural eta artifizialak) lan egingen da. Hauekin lan egingen denez, ikasleei ehundurek helarazten duen efektuen inguruan hausnartzera bultzatuko zaie. Ikasleei objektuek bere baitan dituzten testura ezberdinak aratzerakoan, euren adierazpena edo objektuak berak igorri dezaken mezua alda daitekeela ikustarazi nahi zaie, honekin jolastera animatuz.

Bakoitzak hautatutako elementuen kokapenaz arduratu beharko da, espresatu nahi duenarekin gehienbat datorren material aukeratuz (adibidez, alaitasuna adierazten duen konposizio bat burutzeko kolore edo ehundura alaiak erabiltzea, etab.). Horrela, teknika ezberdinez baliatuz, egunerokotasunean ikus ditzaketen animazio, aldizkari, etab. aurki ditzaketen irudiek transmititzen dutenaren inguruan pentsatu dezakete, hauen testuingurua aldatuz, bestelako mezu bat transmititu

dezaketela erakutsaraziz. Honekin, konposizio eta tetsura ezberdinek helarazi dezaketen mezu bisuala eta gure hauekiko pertzepzioaren inguruan lan egin dezakegu.

6. **Jarduera: Ametsen argi-itzalak!**

(**Taula 7: 6. Jarduera curriculum zehaztapenak**)

Edukiak			
Curriculum		Eduki propioak	
2. Blokea: Adierazpen Artistikoa Planoa: formak taxutzeko elementu. Teknikak eta materialak: tenperak. Bolumena: bolumena bi dimentsio bidez irudikatzea.		Emozioak Sentimenduak Errespetua. Auto irudia. Auto ezagutza. Adierazpena Auto-estimua	
Helburuak			
Orokorrak	A.H orokorrak	Mailakoak	Propioak
b),d),m),j)	B,E	a, e,f	i,ii,iii,v
Materiala: DINA4 orriak, argizariak, tenpera beltza edo tinta txinatarra, zotzak.			
Metodologia estiloa: Zereginetan oinarritutako eta aurkikuntza gidatuan oinarritutako irakaskuntza estiloa.			
Lan dinamika: Indibiduala			

Jarduera honen ildo nagusia bakoitzak bere bizitzako zer sentipen, emozio, bizipen gertaera etab. zer momentuan edo nori aurkeztu edo kontatu aukera dezaketela ikustaraztea da. Halaber, bakoitza bere bizitzan zehar zenbait emozio edo sentimendu ezberdinak sorraraziko dizkieten zenbait bizipenen jabe izanen direla ulertaraztea abiapuntutzat hartuko da. Aldiz, ariketa honen bitartez, bizipen hauen bisualizazio edo erakuspen irekiarekin lan egingen da, hots, emozio edo sentipenen kontrolarekin eta adierazpenarekin.

Hau kontuan izanik, ikasleei azalduko zaie bere bizitzan zehar beraiek izanen direla emozio, sentipen edota euren bizipenen jabe. Horregatik, hauen kudeaketaren eta adierazpenaren inguruan hausnarketa bat egitera bultzatuko zaie. Horrela, ikustarazi nahi zaie, bizitzen ari diren zenbait egoerek, askotan kudeaketa baten beharra daukatela, nahiz eta berain erabakia izan gertaera bat publikoki adieraztea edo ez. Horrenbestez, zerbait kontatzeko edo adierazteko beste baliabide batzuk

daudela erakutsarazi nahi zaie (adb: paper batean idaztea eta ondoren sutan erretzea, espresio grafiko edo marrazki batean pairatzea, eguneroko batean idaztea, etab).

Ildo berean, jarduera honen bitartez euren adierazpenen kudeaketaren partaide izateko modu edo aukera bat eskainiko zaie, non beraiek erabakiko duten besteen aurrean zer azalean utzi eta zer ezkutatu.

Horretarako, jarraian aurkeztuko den moduan marrazketarekin loturiko bi ariketa proposatuko zaizkie zeinetan tenpera edo tinta txinatarrarekin lan egingen den. Jarduerari hasiera emateko ikasle bakoitzari DINA4 folio bat banatuko zaie. Folioa lau zati berdinetan zatituko da (zati hauek banatzeko zabaleraren erdia eta luzerarena hartuko dira erreferentzia gisa, eta neurri hauek ondoren oroitu beharko dituzte). Behin lau zati eginak dituztelarik, eta aurretik kolorea eta konposizioaren inguruko ikerketa eta azterketa egin dutela probestuz, (aurreko jardueratan) ikasleei lehen mailako hiru koloreak (horia, magenta, ziana) gehi laugarren bat aukeratu beharko dituzte. Hauek aurrean izanik folioan banatutako zatietako bakoitza kolore batez margotuko dute, koloreari saturazio¹⁵ maila ezberdinak eman ahal diezaioketela kontuan hartuz. Lau zatiak margotuak izanik, papera tenpera edo txinatar tinta beltzarekin estaliko da. Ondoren, grattage¹⁶ edo arraskatze teknika erabiliz, ikasleei marrazki bat burutzeko eskatuko zaie, aurretik margotutako koloreak aintzakotzat hartuz.

Ikasleek burututako marrazkiak amaitzerakoan hauen azalpena egin beharko dute kolorea edo saturazio mailaren arabera zer motatako marrazkiak egin dituzten ikusi nahi baita, hauek ikasle bakoitzari transmititzen dietena frogatzearren. Horrela, ikasleek sinbolikoki koloreak eta koloreen saturazio maila ezberdinak hautematera ematen diotena aztertuko da.

Proposamen honen ondoren eta teknika berarekin lanean jarraitzearren bigarren proposamen bat aurkeztuko zaie non ikasleek aurretik egin duten moduan folio bat lau zati berdinetan banatu beharko duten. Zati hauetako bakoitzean marrazki bat burutuko dute. Hauen artean, beraiei emozio bat sorrarazi dien momentu bat

¹⁵ Saturazioa: Kolorearen teorian, saturazioa ñabardura zehatz batek daukan intentsitateari deritzo. Saturazio maila altua duen kolore baten intentsitatea altua izanzen da, aldiz saturazio maila baxua daukan kolore bat kolore gabe dagoela dirudi (Albers,2002).

¹⁶ Grattage edo arraspatu teknika: gainteko gainazal bat arraspatzean datza, beheko gainazalean dagoena azalean utziz. Teknika hau praktikan jartzeko zotzak, espatula, boligrafoa, etab. erabili dezakegu.

marraztea eskatuko da, hots, beraientzat garrantzitsua izan den momentu bat. Ikasleei laguntzeko, lau emozio ezberdinekin loturiko egoerak pentsatzera animatuko zaie, alaitasunarekin, tristurarekin, haserrearekin eta beldurrarekin, adibidez.

Behin bakoitzak euren lau irudikapenak burutuak izanik eta grattage teknika oinarritzat hartuz, ikasleei galdera bat planteatuko zaie: *Marraztu dituzuen lau gertaeren artean zein izanen litzateke zuen ikasleei kontatuko zenioketena?*

Horrela, ikasleek ikustaraziko dute beraiek direla euren bizipenen jabe eta horregatik beraiei nahi duena kontatzeko aukera dute, ezkutuan eduki nahi dena errespetatuz. Bederen, ezkutuan edo bere baitan gordeta eduki nahi dutena noizbait azalaraztea erabakitzen badute, “gaineke kapa beltza” kendu beharko diotela azalduko da, euren bizipena azalean utziz. Hau metafora baten modura jokatu du, non espresio grafiko eta bisualen bidez, gure bizitzan gertatu ohi zizkigun egoerak adierazteko bidea aurkitzen dugun.


7. *Jarduera: “Ez naiz perfektua”*

(*Taula 8: 7. Jarduera curriculum zehaztapenak*)

Edukiak			
Curriculuma		Eduki propioak	
Euskara arloari loturiko edukiak		Enpatia Talde kohesioa Talde lana Errespetua	
Helburuak			
Orokorrak	A.H orokorrak	Mailakoak	Propioak
d),b),m),j)	B,F	A	ii,iii,iv,v
Materiala: Prestatutako informazio testuak eta hauei dagozkien galderak (III. Eranskinak)			
Metodologia estiloa: Elkarrekiko irakaskuntza eta ikaskuntza kooperatiboan oinarritutako ikaskuntza estiloa.			
Lan dinamika: Lan taldetan: (4 pertsonako 4 talde eta 5 pertsonako 2)			

Jarduera honen bitartez, emozio eta sentipenen esparrua zabalduko dugu eta identitatea, nortasuna eta auto estimu zien auto irudiaren gaiak irekiko dizkiegu. Eduki berri hauei hasiera ematearren eta haurrak gaiak kokatzearen Jimmy Liaoren

(2011) “No Soy Perfecta” liburuan oinarrituko gara. Liburu honek ilustrazioez baliatuz Perfecta Nuevo, hirugarren mailako neskatxa baten deskripzioa aurkezten digu.



Irudi 15: No soy perfecta liburua.

Hala ere, deskripzio hau Perfekta Nuevok bere buruaren inguruan eginiko deskribapena da, hau burutzeko berak dauzkan inperfekzio guztiez baliatzen delarik.

Liburuxka hau aukeratu da ikasleek protagonistarenganako aurkeztu dezaketen enpatia dela eta, izan ere, protagonista beraien adin bereko neskatila da, bere egunerokoan bizitzen dituen esperientzia ezberdinen aurrean bere burua nola ikusten duen kontatzen diguna. Aitzitik, liburua gazteleraz dago eta horretaz gain, baliteke erabiltzen duen hizkuntza edo espresio literarioen konplexutasun maila 3.mailako ikasleentzako handiegia izatea. Horregatik, jarduera aurrera eramateko liburuaren fragmentu ezberdinak aukeratu dira (erraztasun maila handiago bat aurkezten dutenak, III. Eranskina: 6. Jardueraren material didaktikoa) eta hauek, ilustrazioa liburuan dagoen moduan mantenduz, euskarara itzuli egin dira.

Aurkeztutako liburuaren zenbait atal aukeratuko dira, jarraian aipatuko ditugunak:

- Este es un primer plano perfecto (8.orr)/ Hau lehen plano perfektu bat da.
- El nombre perfecto varía en función de la persona (10.orr)/ Izen perfektua pertsonaren araberakoa da.
- El constante afán de la perfección (12.orr)/ Perfektua izateko uneoroko grina.
- Los colores perfectos son los del arcoiris (112.orr)/Kolore perfektuak ortzadarrarenak dira.

- Las tragedias perfectas tienen pinceladas de comedia (64.orr)/ Tragedia perfektu guztiak bere komedia puntua daukate.
- Este es un niño perfecto (30.orr)/Hau haur perfektu bat da.
- Tabla de evaluación A y tabla de evaluación B (28 eta 29. Orr)

Proposamenari bide emateko ebaluazio taulak deituriko irudietatik abiatuko gara non protagonistaren profil ezberdinen ilustrazioak aurkezten zaizkigu, bere inperfekzioak seinalatu eta kokatu dituelarik. Hasiera batean, irudia eta bertan aurkitzen diren deskripzioak modu orokorrean aztertuko ditugu eta hauen inguruan komentatuko dugu, hurrek euren hasierako ideiak zeintzuk diren ikusteko.

Ikasleak gaira hurbildu direlarik, ikasle bakoitzari, aurretik aipaturiko 6 testuetako bat banatuko zaie (4 ikasleek testu bera izanen dute). Behin bakoitzak bere testua izanik, hau irakurri eta galdera batzuk erantzuteko (Eranskinak 2) eskatuko zaie. Ondoren, testu bera duten ikasleei talde bat osatuko dute. Taldean daudelarik, testuan irakurritakoa komentatzeko eta honen inguruan hausnartzeko eskatuko zaie. Horretarako, DIN A3 orri bat edo kartulina bat emanen zaie eta bertan, irakurritakoaren arabera eta galderetan erantzun dutenaren arabera, poster handi bat burutzeko eskatuko zaie. Bakoitzak bere posterra osatua izanik euren gelakideen aurrean azaltzera animatuko ditugu, ondoren poster guztiak kortxoan esekiko direlarik.

Jarduerari amaiera emateko eta “Ebaluazio taula A ea B” txostenei berriz ere so eginez, taldean, taldekideetako bakoitzari beraientzat pertsona bat perfektua izateko izan behar duen ezaugarri bat pentsatzera animatuko zaie. Bakoitzak bere ezaugarria pentsatua duelarik taldekideen artean komunean jarri beharko dituzte. Azkenik, lortu dituzten lau ezaugarri horietaz baliatuz, taldeka euren pertsonai propioa eratzera animatuko zaie, ondoren ere besteen aurrean aurkeztuko dutena.

Jarduera honen funts nagusia bizitzan gauza perfekturik ez dagoela ohartaraztea izanen da, ikasleek dituzten irudipen edo estereotipoen gainean hausnarketa eta hauekiko hauste bat bilatu nahi delarik. Izan ere, askotan perfektua izatea irudi zehatz batekin lotu ohi dute, beraientzat erreferentea edo ospetsua den batekin harremanetan egonen dena. Honenbestez, gizaki guztiak ezberdinak garela eta aniztasun horren baitan guztiak berdin tratatuak izan behar garela adieraztea bilatzen

da, inor baztertu edo mespretxatu gabe. Aniztasuna errespetatu behar dela helarazi nahi zaie, ikaskuntza holistiko baten ildotik abiatuz.

8. *Jarduera: Nire irudiaren isla!*

(*Taula 9: 8. Jarduera curriculum zehaztapenak*)

Edukiak			
Curriculum		Eduki propioak	
2. Blokea: Adierazpen artistikoa Planoa: forma taxutzeko elementu. Bolumena: bolumena bi dimentsio bidez irudikatzea.		Erretratua Auto irudia Auto ezagutza Espresioa Adierazpena Auto- estimua Emozioak	
Helburuak			
Orokorrak	A.H orokorrak	Mailakoak	Propioak
b),d),m),j)	B, E	a, c, g	i, ii, iv
Materiala: DINA4 orriak eta margoak			
Metodologia estiloa: Zereginetan oinarritutako ikaskuntza estiloa.			
Lan dinamika: indibiduala			

Jarduera hau aurreko jardueraren jarraipena izanen da eta norbanakoaren auto-irudiaren lanketari ekinen zaio.

Jarduera burutu ahal izateko, hasiera batean bere buruaren inguruko deskribapen bate egitea eskatuko zaie. Horretarako hiru zutabe dituen taula bat banatuko zaie (Fisikoa edo itsura, izaera edo nortasuna eta nire gustuak, beldurrak, etab.) eta taula hori zutabe bakoitzeko hiru- bost ezaugarriekin betetzeko eskatuko zaie. Behin hau bete dutelarik, koadernoan aipaturiko ezaugarriak aintzakotzat hartuz beraien inguruko deskribapen bat idatzi beharko dute. Azkenik, jarduera honi amaiera emateko euren buruaren marrazki bat burutu beharko dute, aurretik aipaturikoa bilduko duena. Osatu dituzten marrazki guztiekin liburuxka bat eratuko da, “klaseko kide guztien” fitxa-liburuxka alegia.

Jarduera honen abiapuntua norbanakoa bere gorputz-gogamen- nortasun eta irudiaren jabe izatea izanen da. Honetarako, beraien inguruan dituzten igurikapen

propioak aztertzeraz animatuko zaie. Bakoitza bere burua definitzeko modua eta aukeratutako ezaugarrien inguruan hausnartzera bideratua egonen den proposamena dugu hau. Bidean, bere burua taldearen barnean nola ikusten duen ikusteko bidea izan daiteke, izan ere, atal teorikoan azaldu dugun moduan, gure identitatea besteek gure gain dituzten irudipenez baldintzatua egonen da. Aitzitik, ariketa honen bidez, pertsonak garen heinean, osotasunean aztertuko gara, gure buruaren inguruan pentsaraziz, ariketa gure osotasunaren isla azalduko duen ispilua bailitzan.

9. **Jarduera: Nire bizitzaren espresioa!**

(Taula 10: 9. Jarduera curriculum zehaztapenak)

Edukiak			
Curriculum		Eduki propioak	
1. Blokea: Ikus-entzunezko hezkuntza Irudi finkoa: analisia		Erretratua Auto irudia	
2. Blokea: adierazpen artistikoa Planoa: forma taxutzeko elementu Kolorea: oinarritzko hiru koloreak (magenta, horia, ziana)		Auto ezagutza Espresioa Adierazpena Auto-estimua Emozioak Konposizioa	
Helburuak			
Orokorrak	A.H orokorrak	Mailakoak	Propioak
b),d),m),j)	B,E	a,c,f	i, ii, iii, iv
Materiala: DIN A5 neurriko orriak eta margoak			
Metodologia estila: Zereginetan oinarritutako ikaskuntza estila.			
Lan dinamika: Indibiduala			

Proposamen hau aurrera eramateko, Frida Kalho margolariaren obretan oinarrituko gara. Autore hau lantzea erabaki da honen inguruan ikusitako ilustrazio batek sortutako asaldura eta interesa dela medio. Hori dela bide eta Frida Kalhoren obra ezberdinak aintzakotzat hartuz, Fridaren marrazketaren erabileraren funtsa oinarritzat hartu da, ondoren, ikasleei euren bizitzaren jabe diren zenbait gertaera burutzera bideratua egonen den jarduera hau burutzeko.

Frida Kalhoren obra "surrealistatza" hartzen da, bere obra artistikoak artistak beraren bizitzako momentu edo irudipen ezberdinen adierazpena dira; izandako

istripua, kultura mexikarrarenganako sentimenduaren isla, bere senar Diego de Riverearekin bizitako harremana, etab. Artistak bereak adierazten zuen moduan *Nunca pinto sueños o pesadillas. Pinto mi propia realidad* edo *En realidad no sé si mis cuadros son surrealistas o no, pero sí sé que representan la expresión más franca de mi misma* bere obra artistikoak bere bizitzaren irudipenaren isla izanen lirateke, bera bere obraren musa izanen litzatekeelarik (De Toro, 2008).

Jarduera hau dela medio, ikasleei, Fridak bere koadroetan egiten zuen modura, beraiei ere marrazketa bere bizitzako momentu ezberdinen adierazpena burutzeko bide gisa bezala aurkeztu nahi zaie. Horrela bere bizitzaren partaide diren heinean, beren obra artistikoen partaide izatera animatu nahi dira.

Proposamena aurrera eramateko, bere bizitzako hiru gertaeren inguruan pentsatzea eskatuko zaie: Alaitasuna edo momentu alai bat irudikatzen duen bat, bestetik, beldurra sorrarazi dien momentu bat eta azkenik, tristura edo haserrea sorrarazi dien hirugarren bat. Behin momentuak aukeratu dituztelarik, horien inguruan hiru galderei erantzutea eskatuko zaien, euren obra sortzeko abiapuntua izanen direnak. Ondoren, hauek euren obraren “fitxa” bezala erabiliko dira, non obran adierazten dena aurkeztuko den. Galderak honakoak dira:

- Zer momentu da eta zergatik aukeratu duzu momentu hori?
- Zer kolore erabili/ko dituzu hau margotzeko eta zergatik?
- Nola sentitu zinen momentu honetan?

Galderei erantzuna bilatu ondoren, lau gertaeretako bakoitza irudikatzen duen marrazkia egitera animatuko zaie DIN A5 neurriko orrialdeetan. Ondoren, marrazki bakoitza dagokion fitxa teknikoarekin (erantzuniko galderekin) elkartuko dute. Azkenik, “klaseko momentuen liburuxka” osatuko da, ikasle guztien momentuak bilduko dituena. Horrela, ikaskideek beraien artean besteen gertaerez, sentipenez, etab. bizitzeko eta jabetzeko aukera izanen dute, euren ikaskideak hobe ezagutzeko aukera izanik.

Jarduera honen bitartez, ikasleei beraien emozioak adierazteko aukera ezberdinak emanen zaizkie. Honetaz gain beraien bizitzaren gertakari ezberdinen inguruan hausnartzeko aukera emanen zaie, marrazketa hauek espresatzeko bide

bezala aurkeztuko zaielarrik. Honen bitartez jarduera artistikoa komunikazio bide gisa aurkeztea bilatu da, non ikasleak hitz – marrazki - pentsamendu edo sentimendu loturarekin lan egin dezaketen. Honetan hitzezko edo idatziko adierazpenak baliabide artistikoekin uztartu dira, gure barneko zenbait aspektu adierazteko nahian. Marrazki edo irudien bitartez narrazio bat aurrera eramaten dugu, askotan guregandik argituak izan ohi direnak, ariketa honetan proposatu den moduan.

10. **Jarduera: Nire azala kolorez bete!**

(Taula 11: 10. Jarduera curriculum zehaztapenak)

Edukiak			
Curriculuma		Eduki propioak	
1. Blokea: Ikus-entzunezko hezkuntza. Irudi finkoa: analisisa		Erretratua Auto irudia	
2. Blokea: Adierazpen artistikoa. Planoa: forma taxutzeko elementu Kolorea: oinarritzko hiru koloreak (magenta, horia, ziana)		Auto ezagutza Espresioa Adierazpena Auto- estimua Emozioak Konposizioa	
Helburuak			
Orokorrak	A.H orokorrak	Mailakoak	Propioak
b),d),j),m)	B,D,E,F	a,c,d,f	i, ii, iii, v
Materiala: DINA4 orriak, ikasleen argazkiak eta margoak.			
Metodologia estiloa: Zereginetan oinarritutako ikaskuntza estiloa.			
Lan dinamika: Indibiduala.			

Jarduera honetan norbanakoaren irudiaren gainean lan egingen da. Horretarako, hasteko adierazi beharko genuke jarduera hau aurrera eramateko Andy Warhol-en¹⁷ lan ospetsu bat aintzakotzat hartuko dela: Marelyn Monroe-rena, hain zuzen ere.

Aipatutakoa aintzakotzat hartuz eta Marilyn Monrroeren marrazki edo irudiaren sekuentziazioa zein tonalitate ezberdinen bariazioa kontuan hartuz, gure

¹⁷ Andy Warhol Pop Art mugimendu artistikoaren barnean kokatzen den artista daukagu. Mugimendu honen barnean kokatzen diren autoreak “mass medien” bidez zabalduak izan ziren objektuak aintzakotzat hartuz euren obra artistikoak sortzen zituzten. Warholen obra ezagunenetariko bat Marilyn Monroe daukagu, xehetasunei erreparatu gabe irudikatua izan dena, muturreko tonalitate lauetan oinarrituz margotua izan delarik. Bere obretan, errealitatetik ateratako argazkiaz baliatzeaz gain, errepikapen serie bat aurkezten du, arte aplikatuaren teknika jorratzen duelarik. Warholek teknika honen aplikazioak aurkezten zuen irudi inpersonala gustuko zuen. (Browne, 2007)

proposamena aurrera eramaten da. Horrenbestez, jarduera honen bitartez tonalitate aldaketa eta margo saturazioarekin eta honek adieraztera ematen duen inpresioarekin lan egingen da.

Hau aurrera eramatearren, haurren argazkietatik abiatuko gara. Horrenbestez, haurren argazkiak (eskolako fitxa egiteko egindako argazkiak adibidez) erabiliz, folio batean, lau argazki jarriko dira, Andy Warholek Marilyn obra burutzeko erabili zuen konposizio modu bera simulatuz. Hau kontuan izanik, ikasle bakoitzeko kopia bat aterako da eta hau beraiei banatuko zaie. Behin ikasleetako bakoitzak bere buruari dagokion kopia izanik, (DIN A4 batean bere buruaren lau argazki izanen ditu bata bestearen ondoan) lan egiteari ekinen zaio.

Honetarako ikasleei azalduko zaie argazkietako bakoitza kolore gama batez margotuko dela, kolore bariazioak lehen mailako koloreen arteko kontraste eta saturazio mailatik abiatuko direlarik. Horrela lehenengo argazkia hori tonalitate eta saturazio maila ezberdinekin margotuko da, bigarren argazkia urdinarekin, hirugarrena magenta edo gorriarekin eta laugarrena kolore ezberdinekin.

Behin margotuak dituztelarik, argazki bakoitzaren inguruan, kolore horiek transmititzen edo sorrarazten dioten sentazioaren inguruan hausnartu beharko dute. Azkenik, azkeneko argazkia margotzeko erabili dituzten tonalitate eta kolore ezberdinen zergatia azaltzeko eskatuko zaie. Kolorea eta honek adieraztera eramaten duenaren gaineko harremana aztertzea bilatu da jarduera honen bitartez. Alabaina, norbanakoaren hautematea ere landuko da, hots bakoitzak ikusten duenaren eta horrek sorrarazten dion sentazioa aztertuko dira. Bere buruaren argazkiaren gain lan egingen dutenez, beraien indibidualtasun eta auto irudiarekin lan egingen da. Ariketa honen bitartez, ikasleak kolorea, emozioa eta honek helarazitako mezu bisualarekin lan egitea bilatu nahi zian da. Horrela hautematen dugunak, gudan emozio edo sentipen ezberdin bat sor dezakeela ikus dezakegu, nahiz eta pertzepzio bisuala berdina izan, hots irudi bera izan.

11. **Jarduera: Nire aurpegiaren konposizioa!****(Taula 12: 11. Jarduera curriculum zehaztapenak)**

Edukiak			
Curriculum		Eduki propioak	
1. Blokea: Ikus-entzunezko hezkuntza Irudi finkoa: analisia		Erretratua Auto irudia	
2. Blokea: Adierazpen artistikoa Planoa: forma taxutzeko elementu. Testurak: naturalak eta artifizialak. Bolumena: bolumena bi dimentsio bidez irudikatzea.		Auto ezagutza Espresioa Adierazpena Auto-estimua Emozioak Konposizioa Collage	
Helburuak			
Orokorrak	A.H Orokorrak	Mailakoak	Propioak
d),b),m),j)	B,C,D, F	a, c, d, f	i, ii, iv
Materiala: Argazkiak eta margoak.			
Metodologia estiloa: Zereginetan oinarritutako ikaskuntza estiloa.			
Lan dinamika:			

Erretratuaren lanketari hasiera emateko eta norbanakoaren irudiaren inguruan hausnartzeko, bakoitzaren aurpegiaren argazkia aintzakotzat hartuz, ondorengo jarduera proposatuko zaie.

Hau burutzeko aurretiko jardueran erabili diren beraien aurpegiaren argazkiak banatuko zaizkie ikasleentako bakoitzari. Ondoren, erregelaz baliatuz bakoitza bere argazkia erditik moztu beharko du, aurpegiaren simetria ardatza aintzat hartuz. Horrela, euren aurpegiaren bi perfilak (eskuinekoa eta ezkerrekoa) geratuko zaizkie eta honekin jarduera aurrera eraman beharko dute.

Jarduera aurrera eramatearren, euren aurpegiaren aldeetako bat aukeratzeko eskatuko zaie, beraiek gehien gustuko daukatena. Hau abiapuntutzat hartuz, euren aurpegiaren berreraikipena burutu beharko dute, simetria bezalako elementuak ere landuko direlarik.

Proposamen honen bitartez, aurreko jarduerakoari jarraikiz, norbanakoaren irudiaren auto-ezagutzarekin lan egin izan nahi da. Autorretratua landuko dutenez, ikasleak honen aldaketa, moldeaketa, desitxuratzea, etab.ekin jolastu ahalko dute.

Horrela, ikasleak euren itxuraz haratago doan auto-erretratu burutzeko aukera izanen dute, beraien irudi propioa manipulatzeko aukera emanen zaielarik, zeinetan euren pertsonalitatearen zenbait bereizgarri azalarazi ahalko dituzten. Horrela, beraien adierazpen edo konposaketaren bitartez errealismoaren muga zeharkatzeko aukera izanen dute, non bere aurpegiak baliatuz, emozioak edo bestelako adierazleak pairatu ahalko dituzten. Honela, bere identitatearen, irudiaren eta nortasunaren gain hausnartzeko aukera emanen zaie, auto estimuaren eta auto irudiaren eraikuntza landuz.

Aurreko ariketaren bariazio bat ere proposatuko da. Honakoan, euren aurpegiaren fragmentu bat hautatu beharko dute, beraiek gehien gustuko dutena, alegia. Hau aukeratu dutelarik, euren argazkian alderdi honi dagokion zatia moztu beharko dute eta bestelako orri batean irudia osatu (DIN A4 batean). Ondoren, aukeratutako fragmentuaren gainean bakoitzak bere irudimenari bide emanaz, plastikoki esku hartu beharko du, horren gain aurpegi baten errepresentazio plastikoa edo erretratu burutu beharko dutelarik. Argi utziko zaie horren gainean egin dezaketen errepresentazioa euren argazkiko errealitateetik aldendu daitekeela, hots bestelako errepresentazio bat burutu dezaketela, beraiek zer aldatuko luketen aintzakotzat hartuz.

Azkeneko proposamen honen bitartez, aurrekoaren lanketa bera burutu nahi izan da, urrats bat gehiago gehituz eta norbanakoaren auto irudiarekin jolas egiteko aukera zabalduz. Horrela, auto-erretratuaren bitartez gure barnean daukagun adierazpenak plasmatzeko aukera aurkeztu nahi izan da. Honetaz gain, gure bertute edo fazeta preziatuenak zeintzuk diren adierazteko baliabide egokia izan daiteke, gure gain daukagun irudiaren baitan gehiago murgiltzeko aukera izanen dugularik.

12. **Jarduera: Nire itsura desfiguratu!**

(Taula 13: 12. Jarduera curriculum zehaztopenak)

Edukiak			
Curriculuma		Eduki propioak	
2. Blokea: Adierazpen artistikoa Planoa: forma taxutzeko elementu. Testura: testura natural eta artifizialak. Bolumena: bolumena bi dimentsio bidez irudikatzea.		Erretratua Auto irudia Auto ezagutza Espresioa Adierazpena Auto- estimua	
3. Blokea: Marrazketa geometrikoa Oinarrizko elementuak. Angeluen konparazioa eta sailkapena. Eraldaketa geometrikoak: translazioak, biraketak eta simetriak.		Emozioak Konposizioa Collage Irudi geometrikoak	
Helburuak			
Orokorrak	A.H orokorrak	Mailakoak	Propioak
b), d),m),j)	B,C,D,E,F,G	a, c, d, f,g	i, ii, iii, iv, v
Materiala: Kartulina, itsaskina, orri zuriak eta margoak.			
Metodologia estiloa: Aurkikuntza gidatua eta arazoetan oinarritutako ikaskuntza estiloa.			
Lan dinamika: Indibiduala			

Proposamen hau aurrera eramateko, kubismoari loturiko genero artistikoa aintzakotzat hartuko digu. Honetarako Recursos para educación infantil (2018). *Bloglovinetik* aterata. Esos locos bajitosde infantil.blogspot.com-etik ateratako proposamena aintzakotzat hartuko dugu.



Irudi 16: Jarduera bururtzeko adibidea. Esos Locos bajitos.

Jarduerari bide emateko, ikasleei, kubistek egindako modura, euren itxura desfiguratzeko jokaera edo konposizio ezberdinekin lan egitera animatuko zaie, beraien burua puzzle bat izango balitz bezala eraikiz. Horretarako ikasle bakoitzari koloreetako kartulinak emanen zaizkie.

Norbanakoaren erretratuaren puzzlea eraikitzeari ekin baino lehen, pieza ezberdinak eratu beharko dituztela azalduko zaie. Hau aurrera eramateko, aldiz, zenbait baldintza jarriko zaizkie. Baldintzen artean, oinarrizko egitura geometrikoak (triangelua, esfera, laukia, erronboa, laukizuzena, obaloa, etab.) erabiltzearena aurkituko dute. Horrela, ikasleei oinarrizko egitura geometriko hauetatik abiatuz koloreetako kartulinetan edo folio zurietan aurpegi batek izan ditzakeen organo edo atal ezberdinak (sudurra, begiak, ezpainak) irudikatzen eskatuko zaie. Honetarako, komenigarria da hasiera batean adibide bat eskaintzea.




Irudi 17: Maite. Ikasleei aurkeztutako eredu.

Behin bakoitzak bere aurpegiaren atal ezberdinen irudia eraikia duelarik, hau moztu eta koloreztatzeko eskatuko zaie, irudiak kontrastea eta kolore gehiago eduki dezan. Behin bakoitzak kolore ezberdinetako eta forma ezberdinetako aurpegi zatiak eraikiak dituelarik. Ikasleetako bakoitzari DINA3- DINA4 (erabili dituzten neurrien

arabera) tamainako kartulinak edo folio zuriak emanen zaizkie. Bertan aurpegi baten itsura edukiko duen forma marraztu beharko dute. Eta itsaskinaz baliatuz, lehenagotik sortutako aurpegiaren atal edo zati ezberdinekin konposizio ezberdinak sortu beharko dituzte. Horrela, aurpegi batek izan ditzaken aldaera ezberdinekin jolastuko dute. Horretarako, emozioekin zein koloreekin ere jolastu dezakete, izan ere, aurpegiei espresioak marraztu diezaiekete eta hauen arabera, koloreztatzeko kolore bat edo beste erabili.

Ariketa honen bitartez ikasleei erretratuaren konposizio ezberdin batekin jolasteko aukera aurkeztuko zaio, kubismoaren oinarrizko ezaugarrietatik abiatuz. Horrenbestez, errealitatek aldentzen den konposizio edo irudiak eratu dituzte, errealitatean aurkituko diren estereotipoetatik aldentzen direnak. Beraien zein ikuslegoaren irudimena estimulatzen duen konposizio bat osatu beharko dute, non aurpegiaren hazpegi ezberdinak handizkatu edo aldatu ditzaketen, irrigarritasunarekiko beldurra alde batera utziz. Honen bitartez, ikasleek euren irudiaren ezaugarri propioak balioesteko eta auto-irudiaren gainean hausnartzeko aukera emanen zaie.



Irudi 18: Erretratu kubista, Alaitz, 8 urte.



Irudi 19: Erretratu kubista, Adriana, 8 urte.

13. **Jarduera: Nire ikaskideak ezagutzen ditut!***(Taula 14: 13. Jarduera curriculum zehaztapenak)*

Edukiak			
Curriculuma		Eduki propioak	
2. Blokea: Adierazpen artistikoa Planoa: forma taxutzeko elementu. Bolumena: bolumena bi dimentsio bidez irudikatzea.		Erretratua Auto ezagutza Errespetua Talde kohesioa Talde lana Enpatia Elkar- ezagutza Emozioak	
Helburuak			
Orokorrak	A.H orokorrak	Mailakoak	Propioak
d),b),m),j)	B,C,E	a, c, d, f	i, iii, iv, v
Materiala: DINA4 orriak eta margoak			
Metodologia estiloa: Arazoetan oinarritutako eta ikaskuntza kooperatiboan oinarritutako ikaskuntza estiloa.			
Lan dinamika: Lan taldeka (4 ikasleko 4 talde eta 2 bosteko) zein indibiduala.			

Proposatutako ariketa hau bideratzeko ikasleek euren ikaskideen inguruan zer dakiten ikustera animatu nahi dira. Horrela, talde kohesioa landuko da eta honekin bat bere ikaskideak gehiago ezagutzeko aukera emanen zaie.

Proposamena burutu aurretik, ikasle bakoitzari, beraien izena aipatu gabe, paper batean taula bat eratzea eskatuko zaie, hiru zutabe ezberdinez osatua egonen dena (Itxura fisikoa, izaera eta nire gustuak). Ondoren, hiru zutabeetako bakoitzean, zazpigarren jardueran egin duten moduan, beraien burua alderdi horietan definitzeko erabiliko zituzketen bost ezaugarri idazteko eskatuko zaie.

Bakoitzak bere taula osatua duelarik, talde ezberdinetako paperak beste taldeetan zehar banatuko dira, ikasleetako bakoitzak bere ikaskide baten papera eskuratuko du, alegia.

Ondoren, paper horretako taula irakurri beharko dute eta taulan aurkituko duen ezaugarri ezberdinetatik abiatuz, marrazki bat burutu beharko dute, bertako ezaugarriei atxikitzen zaion irudia eraikitzen saiatuz. Marrazkia burutu aurretik jaso

dituzten ezaugarriak pertsona batekin erlazionatu beharko dituzte, beraientzako bere klase-kideen artean ezaugarri horiek dituzten pertsonekin hain zuzen ere.

Bakoitzak ezaugarri-pertsona erlazioa burutu ondoren eta marrazkia gauzatu ondoren, zergatik egin duen erlazio hori azaldu beharko du ikaskideen artean. Horrela, norbanakoa bere buruaren inguruan daukan irudiaren inguruan eta besteek ikaskideen inguruan dituzten irudikapenen arteko ezberdintasunen inguruan jabetzeko aukera emanen zaie, besteek gudan daukaten ikusmira eta ideia eta gu gure buruaren inguruan daukagunarena ezberdinak izan daitezkeela ikustaraziz. Honekin harreman eta talde egitura ezberdinak aztertuko ditugu.

14. **Jarduera: Taldean nire lekua eraiki!**

(**Taula 15: 14. Jarduera curriculum zehaztapenak**)

Edukiak			
Curriculuma		Eduki propioak	
2. Blokea: Adierazpen artistikoa Planoa: forma taxutzeko elementu. Testura: testura natural eta artifizialak. Bolumena: bolumena bi dimentsio bidez irudikatzea.		Collage Auto irudia Auto estimua Auto ezagutza Talde kohesioa Sentimenduak Emozioak Talde lana	
Helburuak			
Orokorrak	A.H orokorrak	Mailakoak	Propioak
d), b), m), j)	B, D, E, F	a, c, e, f, g	i, ii, iv, v
Materiala: Euren argazkiak, DINA3 edo DINA4 orriak, itsaskina eta margoak.			
Metodologia estiloa: Zereginetan oinarritutako ikaskuntza estiloa.			
Lan dinamika: Lan taldeka (5 pertsonako 5 talde eta 6 pertsonako bat)			

Jarduera hau aurrera eramateko Gonzalo Vegas-en (2012) lanean egindako proposamena aintzakotzat hartu da, bigarren proposamena hain zuzen ere.

Ikasleak fotomuntai bat eraiki beharko dute, arestian ikusi duten collage teknikaz baliatuz. Fotomuntai hau taldeka burutuko dute. Horretarako, lehenik eta behin argazkiak pilatu beharko dituzte, argazkiak oraingoak edo lehen aldikoak izan daiteke, beraien familiarekin edo lagunekin, etab. (argazkiak kopiak izanen dira, izan

ere originalak beraiek eduki nahiko dituzte, moztu edo lan baterako erabili ordez). Ondoren, ikasleei gai bat aukeratzeko esanen zaie, edo testuinguru zein ingurugiro bat (lore zelai bat, basoa, itsasoa, etab.). Testuingurua edo gaia erabaki dutelarik fotomuntaia egiten hasiko dute, honetan, bakoitzak testuinguru horren barnean jokatu duen papera erabakiko dute eta argazkiekin zein bestelako elementu artistikoekin (errotulagailuak, paper mota ezberdinak, testura ezberdinek edozein paper, etab.) murala eraikiko dute. Horrela, testura ezberdinekin lan eginez, talde mural kolektibo bat burutuko dute, egoera bat irudikatuko duena.

Mural honetan bakoitzari esleitu zaien funtzioa bai murala edo fotomuntaia burutzerakoan zein muralean bertan bakoitzak duen posizioak taldearen barnean ikasleak izan dezakeen posizio soziala erakutsi dezake.

Jarduera honek, testura bisual ezberdinekin lan eginez, bere burua ezagutzeko aukera aurkeztuko dio ikasleari, bere identitatearen eraikuntzan sakonduz eta taldean jokatzeko duen paperaren jabe eginez.

15. **Jarduera: Koloreen blai!**

(**Taula 16:** 15. Jarduera curriculum zehaztapenak)

Edukiak			
Curriculum		Eduki propioak	
2. Blokea: Adierazpen artistikoa Planoa: forma taxutzeko elementu. Kolorea: oinarritzko koloreak (magenta, horia eta ziana) Bolumena: bolumena bi dimentsio bidez irudikatzea. Teknikak eta materialak: tenperak.		Auto irudia Auto estimua Auto ezagutza Talde kohesioa Sentimenduak Emozioak Talde lana	
Helburuak			
Orokorrak	A.H Orokorrak	Mailakoak	Propioak
d),b), m), j)	B, C, E, F	a, c, d, f	iii, iv, v
Materiala: Paper handia (230cm×160cm gutxi gora behera) eta tenperak			
Metodologia estiloa: Ikaskuntza kooperatiboa eta zereginetan oinarritutako ikaskuntza estiloa.			
Lan dinamika: Lan taldeka (7 pertsonako 2 talde eta 6 pertsonako 2)			

Jarduera hau taldeka aurrera eramanen da eta honen bitartez kohesioa eta norbanakoa taldean hartzen duen espazioa edo lekua aztertzea bilatuko da.

Honetarako, talde bakoitzari paper zati handi bat emanen zaie, honetan euren silueten gainean lan egin beharko dutelarik. Aurrera eramanen den proposamen plastiko honen bitartez ludikoki taldean parte hartzea bilatuko da. Honekin bat talde kohesioa eta taldean norbanakoak jokatzeko duen paperaren inguruko hausnarketa bat burutzeko baliogarria izanen zaigu.

Errealizazio prozesuak ikasle guztien parte hartzea eskaintzen du eta honetarako jarraian azalduko den proposamena aurrera eramanen da. Honetan ikasleek eskainitako marrazketa espazioan edo euskarrian batak bestearen silueta marraztu beharko du. Hala ere, jarduera ez datza siluetaren marrazketa soila burutzeko, honetaz gain beste bi zailtasun izanen ditu: ikasleek besteen silueta marrazterakoan utzitako nahi gabeko inpresioei, giza gorputzaren forma eman beharko diete eta bestetik, besteekin espazio tarte bat partekatzeak sortzen duen gatazkari ludikoki aurre egiten saiatu beharko dira. Behin siluetak marraztu dituztelarik eta eskaini zaien espazioa bete dutelarik, silueten irudia margotzera ekinen diote. Honetan, marraztutako silueta bakoitza taldeko kideetako batekin harremandua egonen denez, bakoitza non kokatu den eta zergatik azaldu beharko dute, izan ere euren adierazpen grafikoan adierazitakoa, taldean jokatzeko duten rolaekin bat etor daiteke. Honetaz gain, behin honen inguruan hausnartu ondoren, silueten gain lan egingen da eta hauek margotzeari edo hauei forma emateari ekinen zaio

Aitzitik, taldean lan egiten ari direlarik, dialogorako aukera egokia izanen litzateke, eta horrela lan honen bitartez ere ikasleek aukera izanen dute elkarren artean hitz egiteko eta besteei euren sentimenduak, nahiak, emozioak edo gustuak adierazteko.

Horrenbestez, intentzio espresiboa zeukan ariketa edo jarduera batetik abiatuz, talde kohesioa eta norbanakoaren limiteekin lan egin da. Honekin bat, berdinkideen arteko elkarbizitzaren inguruan hausnartu dezaten saiatu nahi da.


16. **Jarduera: Amaierako proiektua!****(Taula 17: 16. Jarduera curriculum zehaztapenak)**

Edukiak			
Curriculuma		Eduki propioak	
1. Blokea: Ikus-entzunezko hezkuntza Irudi finkoa: analisisa. Irudi digitala: irudiak bilatzea. Animazio zinema: film bat sortzeko prozesua.		Auto irudia Auto estimua Auto ezagutza Talde kohesioa Sentimenduak Emozioak	
2. Blokea: Adierazpen artistikoa Planoa: forma taxutzeko elementua. Kolorea: oinarrizko koloreak (magenta, horia, ziana) Pinturako gaiak: natura hila. Teknikak eta materialak: tenperak		Talde lana Pertsonaiak Adierazpena Antzezlanak Talde lana Enpatia	
4. Blokea: Dantza eta mugimendua Mugimendua, atsedena eta espazioan mugitzea. Orientazioa espazioa eta denboran (aurrera, atzera, zirkulua, etab.)		Rol ezberdinak Story board Animazio filma	
5. Blokea: Interpretazioa Adierazpenerako baliabideak. Arnasketa. Ahoskatzea. Artikulazioa.			
Helburuak			
Orokorrak	A.H Orokorrak	Mailakoak	Propioak
d), b), m), j)	A, B, F	a, b, c, d, f, g	i, ii, iii, iv, v
Materiala: Grapenaren arabera zehazten joanen da.			
Metodologia estiloa: Proiektuan oinarritutako, arazoetan oinarritutako eta ikaskuntza kooperatiboan oinarritutako ikaskuntza estiloa.			
Lan dinamika: Lan taldeka (6 pertsonako bi talde eta beste bi 7koa)			

Kurtso amaierako proiektuari begira, ondorengo proposamena aurkeztuko zaie ikasleei. Aurretik zehaztua daukaten moduan, proiektu gisa antzezlan bat burutu behar dute, beste kurtso bateko ikasleei aurkeztu beharko dietena eta munduko beste leku bateko kulturaren edo pertsonai enblematiko batean oinarritua egonen dena. Hau kontuan izanik eta lehen landuriko autorea izanik, Frida Kalho eta mexikar kulturaren inguruko antzezlan bat aurrera eramatea proposatuko zaie.

Hau aurrera eraman haurretik, Fridaren inguruko informazio gehiago eskuratu beharraz gain, sstoryboard ¹⁸teknika edo lan egiteko modua aintzakotzat hartuko dela azalduko zaie ikasleei curriculumak zehazten duenari jarraikiz.

Informazioa lortzeko, “txoko zuria” ¹⁹ deiturikoa probestuko dugu. Fridaren proiektua aurrera eraman nahi delarik, ikasleei hilabete bateko epealdiarekin autorearen inguruko informazioa bilatzen joateko eta aurkezten joateko eskatuko zaie. Horrela, elkarrenganako irakaskuntzaren bitartez autorea ezagutzen joanen dira, ondoren, lan egiteko informazio nahiko izanen dutelarik. Honetan lan egiteko ere autorearen inguruko gazte eta haurrei bideratutako liburuak eskaini ahal zaizkie: Adibidez, Frida Kahlo, El dolor convertido en arte (Morán, 2018)



Irudi 20: Liburuaren proposamena.

Hau kontuan izanik, lau talde nagusitan banatuko dira. Ondoren, storyboard-a, eratzeko Frida Kahloren bizitzaren lau sekuentzia edo gertaera nagusi aukeratu beharko dituzte (bat talde bakoitzeko) eta eskuratutako informazioaz baliatuz, eta aurretik euskara ikasgaiari ipuin bat eta dialogo bat nola burutu ikasi dutela probestuz story board bat eraikiko dute, ondoren antzerkira eramane dutena.

¹⁸ Storyboard: Gidoi grafiko bat burutzeko teknikari deritzo. Modu sekuentzian irudikatutako ilustrazioak izanen dira, istorio bat ulertzeko baliagarriak izanen zaizkigunak. Honekin animazio bat aurretik irudikatzea edo pelikula bat aurretik egituratzea bilatuko da. Esan daiteke, biñeta batzuen serieazioa izanen dela, narrazio baten arabera ordenatua izanen dena.

¹⁹ “Txoko zuria”: San Fermin ikastolan haurrek lantzen ari duten gaiaren inguruan informazio gehiago eskuratzeko eta ikasleei informazio hau helarazteko ekintzen zaien aukera daukagu. Horrela, ikasleek lantzen ari duten gaiaren inguruan, euren etxean informazioa bilatu eta landu beharko dute, liburuak, argazkiak, muralak, materiala, objektu ezberdinak, etab. aurkezteko aukera daukatelarik.

Proposatu ahal zaizkien sekuentzien artean honakoak aurkitu daitezke: kultura mexikarrarekiko atxikimendua (etxe urdina), marrazkilaritza, izan zuen istripua eta Diegoerekin izan zuen harremana. Hala ere, baliteke beraiantzat informazio interesgarriagoren bat egotea eta beraz, beraiei ere askatasuna emanen zaie.

Behin informazioa, irudiak eta testua izanik, pertsonaiak zehaztu eta paper banaketa egin beharko dute. Honetaz gain, pertsonaien eta gertaeren karakterizaioa eta testuingurua osatzeko beharrezkoak dituzten material etab.ertan pentsatu beharko dute, guztien artean antzeztu behar dituzten ingurugiroak osatzeko. Azkenik bakoitzak bere papera ikasi beharko du. Bidenabar, ikasle batzuei informazioa azaltzearen papera emanen zaie (asko direnez, batzuk, era labur batean eta klasean daukaten informazioa probestuz, eszena bakoitzaren aurrean margolariaren bizitzaren inguruko gertaera baten informazioa azaldu beharko dute).

Azkenik, azkeneko preformance gisa, prestaturiko antzezlanak laugarren mailakoei aurkeztuko diete.

Proiektu honen bitartez, ikasleak artisten mundura murgiltzeaz gain, talde kohesioa bultzatzea eta talde lanean aritzea bilatu izan da. Honetaz gain, enpatiaren irmoa aintzakotzat hartuz, ikasleak Frida Kalho-ren bizitza aztertu beharko dute. Honekin bat antzezlanak ere espresio bide moduan aurkeztu nahi izan zaie, pertsonai baten azaletik barnean daukazuna espresatzeko bide gisa, alegia.

Funtsa talde lanean aritzea, rolak banatzea eta lan talde baten partaide sentitzea izanen da, guztiak proiektuaren parte sentiaraziz eta bakoitzari, taldearen barnean egiteko bat esleituz, inor baztertuta sentitu ez dadin. Lan honen bitartez, ikasleak taldearen barnean beharrezkoa sentitzea bilatuko da.

3.2 Unitate didaktikoa aurrera eramateko kronograma

Aurretik aurkeztutako proposamen didaktikoa aurrera eramatearren, 2018-2019 urteko egutegia aitzakotzat hartuz, jardueren banaketa egin da, kontuan izanik San Fermin ikastolan LH3. mailan testuinguratua egonen dela, aurtengo ikasturtean. Bideabar, bertan praktikak eraman ditudan heinean, Hezkuntza Artistikoaren barnean plastika arloari dagokion klasea asteartetan aurrera eraman ohi da. Mahiz eta

proposamena aurtengo ikasturtean oinarritu hurrengo ikasturteei begira ere erabili daiteken proposamena daukagu.









Proposamena urte osoan aurrera eramateko planteatzen da, hala ere, kontuan izan beharra dago praktika aldia otsailetik apirilera epealdian egin dela eta jada bere proiektuak bideratuak zituztela. Horrenbestez, proposamenaren barnean hiru jarduera soilik aurrera eramateko aukera izan dut. Jarraian, aurkeztuko den kronograman, proiektu osoa aurrera eramateko saioen banaketa hipotetikoa egingen da, LH3. mailako organigrama aintzakotzat hartuz.









Jarduerak urritik aurrera eramaten dira, izan ere irailean oraindik egokitzapen denboraldian egonen dira eta honetaz gain LH3. mailara pasatzerakoan ikastaldez aldatzen dituztenez, iraila ikasleak elkar ezagutzeko eta harreman berriak sortzeko epealdia izanen da, irakaslea harreman eta osatzen diren talde ezberdinaz jabetzeko epealdia izateaz gain. Horrenbestez, komenigarria ikusi da proposamena urritik aurrera garatzen hastea, jarraian agertzen den kronogramak erakusten duen moduan.

IRAILA/SEPTIEMBRE							URRIA/OCTUBRE							AZAROA/NOVIEMBRE							ABENDUA/DICIEMBRE							URTARRILA/ENERO								
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I		
					1	2	1	2	3	4	5	6	7				1	2	3	4						1	2				1	2	3	4	5	6
3	4	5	6	7	8	9	8	9	10	11	12	13	14	5	6	7	8	9	10	11	3	4	5	6	7	8	9	7	8	9	10	11	12	13		
10	11	12	13	14	15	16	15	16	17	18	19	20	21	12	13	14	15	16	17	18	10	11	12	13	14	15	16	14	15	16	17	18	19	20		
17	18	19	20	21	22	23	22	23	24	25	26	27	28	19	20	21	22	23	24	25	17	18	19	20	21	22	23	21	22	23	24	25	26	27		
24	25	26	27	28	29	30	29	30	31					26	27	28	29	30			24	25	26	27	28	29	30	28	29	30	31					
																					31															
OTSAILA/FEBRERO							MARTXOA/MARZO							APIRILA/ABRIL							MAIATZA/MAYO							EKAINA/JUNIO								
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I		
					1	2	3					1	2	3	1	2	3	4	5	6	7				1	2	3	4	5						1	2
4	5	6	7	8	9	10	4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14	6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9		
11	12	13	14	15	16	17	11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21	13	14	15	16	17	18	19	10	11	12	13	14	15	16		
18	19	20	21	22	23	24	18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28	20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23		
24	26	27	28				25	26	27	28	29	30	31	29	30						27	28	29	30	31			24	25	26	27	28	29	30		

	Jaiegunak/Festivos
	Ikasturte hasiera eta bukaera/ Comienzo y final de curso
	Egun erdia/ Media jornada

Irailak 7	Ikasturte hasiera/ Fecha de comienzo de clases
Ekainak 21	Ikasturte bukaera/ Fecha de finalización de clases
175	Eskola egun kopurua/ Nº total de días lectivos

	1. Jarduera: Artisten munduan murgiltzen
	2. Jarduera: Emozioen maskarak!
	3. Jarduera: Koloreen integrazioa
	4. Jarduera: Koloretako formen bidez mundua margotuz!
	5. Jarduera: Egoera emozionalak
	6. Jarduera: Ametsen argi-itzalak
	7. Jarduera: Ez naiz perfektua
	8. Jarduera: Nire irudiaren isla.

	9. Jarduera: Nire bizitzaren espresioa
	10. Jarduera: Nire azala kolorez bete
	11. Jarduera: Nire aurpegiaren konposizioa
	12. Jarduera: Nire itsura desfiguratu
	13. Jarduera: Nire ikaskideak ezagutzen ditut
	14. Jarduera: Taldean nire lekua eraiki
	15. Jarduera: Koloreetan blai
	16. Jarduera: Amaierako proiektua

(Irudi 21: Jarduera ezberdinen kronograma)

ONDORIOAK

Gradu Bukaerako Lanari amaiera ematearren eta arestian aipatutakori so eginez, Atal Praktikoan proposatutako eta Arte Hezkuntzaren arloari bideratutako Urteko Programazioa, maila teoriko batean garatua, hots hipotetikoa izanen litzateke. Azken batean, praktika aldiaren denbora tartea dela eta, denbora tartea urria izan da eta bi jarduera soilik eraman ahal izan dira aurrera. Honetaz gain, esan beharra dago jarduera hauek ez dutela proposatzen den ordena jarraitu, testuingururik gabe burutu direlarik. Hortaz, proiektuaren eraginkortasuna ezin izan da behar bezain ongi frogatu eta ikerketa edo saiakera bide bezala hartu beharko litzateke, etorkizunari begira.

Ildo honetan, etorkizunari begira bai LH3. maila zein Lehen hezkuntzako ikasturte ezberdinetan aurrera eramateko proposamen didaktikoen prestakuntzarako lehen urratsa izan dela esan daiteke, aurrera begira prestakuntza honekin jarraitzea interesgarria izanen litzatekeelarik. Horrenbestez, proposamen honetan planteatu den moduan, Lehen hezkuntzako etapari bideratutako jarduerak proposatzen dira, ikasgela baten barnean suerta daitezken elkarren arteko liskarrak konpontzen saiatzeko eta talde kohesioa lantzeko, beti ere norbanakoaren auto-irudia, auto-estimua edota nortasunetik abiatuz. Azken finean, gure buruarekin ondo sentitzen ez bagara oso zaila egingen zaigu besteekin harreman osasungarri bat bermatzea. Hau landu eta bultzatzeren, modu praktiko batez eta teknika ezberdinen bitartez ikasleei Arte hezkuntzarekin erlazionaturiko unitate didaktiko bat planteatu da, kasu honetan San Fermin ikastolan LH3.mailan A gelako testuinguruan oinarritua egonen dena.

Arlo teorikoan ikusi izan ahal dugun moduan eta zenbait artikulutan oinarrituz, ikus daiteke jarduera artistikoek auto-estimua garapenean eta talde kohesioaren garapenean eragina izan dezakeela. Horrela, beti ere curriculumean aukeratutako adin tarteari dagozkion edukiak aintzakotzat hartuz, hurren garapen emozional, pertsonal, sozial eta moralaren lanketa emanen da, adierazpen plastikotik abiatuz.

Nahiz eta proposamen honetan planteatu diren helburuak gauzatzearen ahaleraz gabetu behar izan (denbora tartea dela eta), aurretik jasotako informazioan oinarrituz, ondorioztatu daiteke garai honetako haurren, material ezberdinak edo aldizkakoak eskaintzerakoan, planteatutako jardueren aurrean aurkeztu duten

motibazioa handiagoa dela. Horrenbestez, bide honetan orokorrean ikasleen adierazpenerako gaitasuna gradualki handiagotuko litzateke, komunikazio eta espresio-bide modu berriagatik gozatzeko aukera izanen dutelarik.

Bidenabar, ikasleen segurtasun emozionalari lehentasuna ematea ezinbestekoa izanen da, ikasleen parte hartzea, tolerantzia eta errespetua bezalako balioak bultzatu beharko ditugularik, bai berarenganakoak zein berdinkideenganakoak. Honetan, erlazio testuinguru ezberdinekin lan egitea bilatuko da beti ere norbanakoaren “barne” ezagutzatik abiatuz. Horrenbestez, auto estimu eta auto irudiaren lanketarekin hasiko gara (erretratuaz baliatuz) kolorearen balio emozionalaren inguruan aritzeaz gainera.

Errealitatean planteatutako jarduerak izan dezaketen eragina aztertzeko, bi jarduera proposatu dira, 4. Jarduera eta 12. Jarduera. Hauen artean lehenengoa talde lanean aritzeko eta talde kohesioa sustatzeko bideratua egonen litzateke, kolorea espresio bide moduan erabiltzera biratua egoteaz gain. Arestian ikusi dugun moduan, jarduera honetan ikasleak taldeka jarri behar ziren eta elkarren artean, ondoren euren konposizioa sortzeko erabili behar zituzten materialak (zigiluak, alegia) eratu behar zituzten. Ariketaren nondik norakoak azaldu zitzaizkienean bakoitzak 2 zigilu ezberdin burutzea (bi forma ezberdinetakoak) gomendatu zitzaien, ondoren, denen artean partekatuz, konposizio ezberdin gehiago sortzeko aukera izan zezaten.

Hau azaldu zitzaielarik, taldeka jarri eta lan egiteari ekin zioten. Aitzitik, aipatzekoa da talde batzuen artean eman zen dinamika: Jarduera honen bitartez ohartarazi ginen eratu ziren sei taldeetan soilik hiru aritu zirela talde lanean (bakoitzak zigilu mota ezberdinak eratzuz eta margotzerako ordua zigiluak denen artean partekatuz). Kasu hauetan burututako konposizioak alor artistikoari dagokionez konplexuagoak eta aberatsagoak izan ziren, hasieran azaldu zitzaien moduan, geroz eta aukera gehiago izan orduan eta konbinazio gehiago osatu ahal baitzituzten.

Beste hiru taldeen dinamika oso deigarria suertatu zen. Hauetan, ikasleetako bakoitzak bere zigilu propioak eratu zituen, besteek burututakoak aintzakotzat hartu gabe. Ondoren, beraien konposizioa eratzeko orduan beraiek osatutako zigilua partekatzeko eragozpenak jarri zituzten, beraiek egin zituztela aldarrikatuz.

Egoera honen aurrean jabetu ginen ikasle asko talde lanean aritzeko arazoak zituztela, hots ikasle hauek maila egozentriko altua zeukatela. Kasu hauetan ikustarazi egin genien talde lanean haritzearen garrantzia, izan ere, azkeneko konposizioak erakutsi zuten moduan, talde lanean ez aritzearen ondorioz, emaitza bisualak askoz ere xumeagoak izan ziren.

Jarduera honek talde lanean aritzearen inguruan hausnarketa bat planteatzera bideratu gintuen. Halaber, konposizio guztiak aztertu ondoren (ikasgelan mural moduan eseki baitziren) haur batzuek honelako komentarioak egin zituzten :*beraiek zigilu mota ezberdin gehiago zituzten, orduan aukera gehiago zituzten eta gauza politagoak atera zaizkie*. Hau entzunda eztabaida edota gogoetarako espazioa ireki zen, taldean aritzeak ekar ditzaken ondorio emozional, sozial , etab.en inguruan hausnartuz.

Bestetik, honen arlo positiboak aipatzearen, esan beharra dago ikasgela barnean “bartzertuak” edo “ahaztuak” kontsideratzen diren haurrentzat mota honetako jarduerak erantzun positiboa izan dutela. Jarduera hau aurrera eraman aurretik, orientatzaileak klasean harreman arazoak zeudenaren susmopean, inkesta bat pasatu zuen, soziograma bat eratzearen. Soziogramak aurkeztu zituen emaitzetan argi ikusi ahal izan genuen moduan, klaseko hiru ikasle, ikasle “bartzertu”²⁰ edo “ahaztuen”²¹ multzoan sartu zitezkeela, hauetako bat batez ere, arriskuan egonik.

Proposatutako jarduera burutzerako orduan, ikasle hauek talde ezberdinetan sartu genituen, hauek taldean nola moldatzen ziren eta beste ikasleek hauekiko zeukaten harreraz jabetzeko. Alabaina, jarduera burutu ondoren eta laneko dinamika ikuskatzen egon ondoren, atera genituen erantzunak edo emaitzak positiboak izan ziren.

²⁰Haur bartzertuak: Hutsune handiak dituzte informazio sozialaren prozesaketan. Atribuzio isuriak egiten dituzte zalantzazko egoeratan besteei kontrako asmoak esleitzean, ustekabea izan dutelako eta ez dutelako argi zein den arrazoia. Haur horiek emozio informazioa ere nahasi ohi dute, besteen emozioak oker interpretatuz. Honetaz gain, distortsioa daukate, beren jokabideak besteengan duen eragina ulertzea eragozten diena, eta horrela beharbada ez dira konturatzen berdinkideek txarto hartzen dituztela elkarreragin sozialeko haien estiloak. (Sotes, 2015)

²¹ Ikasle ahaztuak: Ahur lotsati eta uzkurak dira, zailtasunak barneratuak dituztenak. Eskolaurreko aldian jada eraten joanen den eredu soziala da. Sozializazio urria eta berdinkideekiko elkarreragin maila txikia azaltzen dute. Honen ondorioz, ez dira gailentzen ez jokabide negatiboetan (adibidez, eraso) ez gizartearen alde jokabideetan. (Sotes, 2015)

Ikasle hauek taldean oso ongi moldatu ziren, lan eraginkor bat eginez. Parte hartzea handia izan zen eta beraien ikaskideekin harremanetan jartzeko aukera eman zitzairen. Honetan, hiru ikasle hauetako ikasleetako batek hezkuntza artistikoarekiko mirespen eta trebetasun handia aurkezten du eta hau baliabide edo tresna egokia izan da beraien ikaskideekin harremanetan jartzeko, hauek laguntzeko prest aurkeztu delarik (ideiak emanaz, iradokizunak eginez, etab.). Jarduera bukatzerakoan ikasleekin hitz egin da eta oso erantzun positiboak jaso ditugu. Honetaz gain, hiru ikasle hauekin hitz egin da taldean nola sentitu diren ikusteko eta hauek aitortu duten moduan: “oso gustura egon naiz”, “lanak oso politak atera dira eta nire ikaskideak lagundu egin didate”, “guztien artean gauzak partekatu ditugu eta horrela gauza gehiago egiteko aukera izan dugu”, etab. Horrenbestez, esan daiteke ikasleen egoera sozio-emozionalak aldaera positiboa izan duela.

Alor artistikoari so eginez, ariketa honen bitartez kolorearen lanketa bat eman zen, kolorearen nahasketa optikoarekin eta ikusmen pertzepzioarekin lan eginez. Kasu honetan, ikasleei koloreen nahasketa paperean zuzenean burutzea eskatu zitzairen, nahasketa optika eman zedin, inpresionista frantziarrak (1870tik aurrera) beraien obrak burutzeko estiloari jarraituz. Hauek koloreak paletan nahasi ordez, zuzenean mihisean egiten zituzten (Josef Albersen teorian azaldu den moduan) toke txikiak eginez, horrela distantzia batera koloreak nahasi egingen zaizkigu, hauen aldaketa ezberdinekin jolastuz. Gauza bera gertatu zaie gure ikasleei jarduera burutzen joan diren ahala eta koloreen arteko nahasketak burutu ahala (irudietan antzeman daiteken moduan).

Jarduera honetan, ikasleak oinarrizko hiru koloreetatik abiatuz, bestelako koloreak sortzeko ahalmenaz jabetzen joan dira, koloreen arteko nahasketaren arabera (adibidez, urdina eta horia nahasiz hori gehiago badago, aterako den berde kolorea argiagoa izanen da, eta alderantziz, Josef Albersen (2002) teoriari so eginez) sortutako kolore berrien saturazio eta tonalitate ezberdinen inguruan jabetu direlarik. Bidean, kolorearen pertzepzio edo hautemate hastapenak ikertzeko aukera eman digu, nahiz eta denbora eskasiarengatik gaian sakontzeko aukerarik ez izan. Honetaz gain, aurkeztutako proiektu didaktikoak jarduera hau burutu aurretik koloreen hautematearen inguruko jarduera bat proposatzen da, haurren ideiak loratzeko,.

Tamalez, jarduera hau ezin izan da burutu, eta horregatik hurren ezagutza mailaren sakontasuna azalean geratu da.



Irudi 22: 4. Jarduera ikasleen konposizioa.



Irudi 23: 4. Jarduera ikasleen konposizioa.



Irudi 24: 4. Jarduera ikasleen konposizioa.



Irudi 25: 4. Jarduera ikasleen konposizioa.

Bestetik, proposatutako bigarren jarduerari dagokionez (12. Jarduera) esan dezakegu, arte figuratibo edo abstraktutik abiatuz, kubismoa oinarrian izanda, ikasleek erretratuarekin lan egiteko aukera izan dutela. Jarduera honen bitartez, ikasleak euren irudiaren isla burutu dute, bakoitzak beraren inguruan daukan interpretazioa aintzakotzat hartuz eta kubismoaren oinarri jarraituz. Horrela bada, “nire itsura desfiguratu” jarduerari bide eman zaio.

Jarduera honetan ikasle bakoitzari bere erretratuarekin irudiaren konposizioarekin jolasteko aukera eskaini zaie, kolore ezberdinen bitartez eta perspektiba ezberdinak aintzakotzat hartuz errealismoaren mugak gainditzen dituen erretratuak egin dituztelarik. Hau burutzeko aurretiko azalpen bat eman behar izan zaie, kubismoa eta honen oinarrien inguruan. Hau eginik, ikasleak euren auto-irudiarekin lan egitera animatu zaie, erretratu desfiguratu burutuz.


Bidenabar, jardueraren eraginkortasuna ikasleen komentarioetan ikusia izan da, hauek auto-estimua zein auto-irudiaren inguruko hausnarketa egoera bat planteatzera eramanez gaituztelarik. Ikasleen komentarioen artean honakoak izan dira nagusi: “Horrela guztioz gara guapoak, nola ez den perfekzioa bilatzen!”, “ guztiok egin dezakegu erretratu super polita zeren ez du errealtatearen antza izan behar”, “zeren guapoak izatea ez da inportanteena, inportanteena guztiak errespetatzea da zeren guztiak desberdinak gara!”, “gainera, bakoitzaren gustoa dira ezberdinak, niri futbola gustatzen zait eta Irineri patinaje adibidez eta hori ez du esan nahi hobea naizenik!”, “ez da esan behar itsusia dela zeren min egin ahal dio”, etab.

Gogoeta hau, ikasleek burututako lanaren ondoren garatu zen, izan ere, sortu zituzten irudiek honelako planteaketa bat izatera bideratu zituen. Esan daiteke, ariketa eraginkorra izan zela eta helburua lortu egin zela, izan ere ikasleek euren lanetatik abiatuz, eta ikaskuntza esanguratsua emanez, zenbait ondoriotara heltzeko gai izan ziren, aurretik aipatutako eztabaida planteatuz.


Irudietan ikus dezakegun moduan, ikus daiteke ikasleak nahiz eta errealtateetik aldentzen den irudiak marraztu (perspektiba eza dela eta zein irudi geometrikoen erabilera dela eta) errealtatearekin bat datozen zenbait patroi jarraitu dituztela (adibidez neskak euren ilea irudikatzeko ile kizkurra dutenek marrazkiari kiribildun ilea marraztu diote, begien forma era mantendu dute, forma konbentzionalei edo estereotipatuari jarraikiz, adibidez.) Aldiz, zenbait ikasle haratago joan dira, bere buruaren gain daukaten interpretazioa ere egin dutelarik. Ikasle hauetako batek, momentu horretan haserre zegoela adierazi nahian, bere buruaren erretratu kubista burutzerakoan, deabruarekiko antzekotasun bat azalarazi du. Horrenbestez, esan dezakegu, auto irudiaren lanketa eman egin dela, norbanakoaren inguruko interpretazioa pairatuz eta bakoitzaren sentipenak azalduz.

Lanari amaiera ematearren, esan daiteke ikerketa esparru bat irekia geratuko litzatekeela, etorkizunean, honekin jarraitzeko ezagutza arloa zabaldua geratuko litzatekeelarik. Honenbestez, etorkizunean irakasle lana burutzearen pean, honelako jarduerak aurrera eramatea egokia izanen litzatekeela uste dut, batik bat arlo artistikoari dagokion mirespena eskaintzeko zein ikasgela baten barnean gerta

daitezken gatazka edo egoera sozio-afektibo ezberdinak modu praktiko batez lantzeko.



Irudi 26: Erretratu kubista, Izan.



Irudi 27: Erretratu kubista, Asier.



Irudi 28: Erretratu kubista, Lorea.



Irudi 29: Erretratu Kubista, Julia.



Irudi 30: Erretratu kubista, Mitxel.



Irudi 31: Erretratu kubista, June.

Azkenik, aipatzekoa da hasiera batean lanaren gaia zehazteko arazo asko izan nituela, hasiera batean arte terapiak inklusio sozialean zein behar bereziak dituzten ikasleen garapenean izan ditzaken onuren inguruko ikerketa burutu nahi bainuen. Haatik, errealitatea aztertuz eta Iruñean behar bereziak dituzten ikasleekin lan egiten duten erakundeekin (ANFAS, ATENA eta ANA) hitz egin ondoren, oso zaila ikusi nuen ikerketa esparru honetan murgiltzea, batik bat denbora kontua dela eta. Beraz, gustatuko litzaidake etorkizunari begira ere ezagutza esparru hau irekita uztea, ikerketa esparru berri bat irekia utziz.

CONCLUSIONES

Con la intención de dar fin a mi Trabajo de fin de Grado y haciendo referencia a lo previamente expuesto, podríamos decir que la propuesta didáctica planteada desde el marco de la Educación Artística será presentada como una programación didáctica hipotética para todo un curso académico, dentro del marco de tercero de educación primaria. Al fin y al cabo, debido al periodo de prácticas y el poco tiempo del que disponía solo se han podido llevar a cabo dos de las sesiones propuestas. Además, cabe mencionar que el desarrollo de estas dos sesiones no se ha dado dentro de un marco contextualizado. Por ello no se ha podido demostrar la verdadera efectividad del proyecto.

En este marco y de cara al futuro podríamos decir que el proyecto expuesto será el primer paso para el desarrollo de una propuesta didáctica que podría llevarse a cabo en el futuro tanto en el contexto de tercero de primaria como el cualquier etapa educativa. Por ello, la propuesta expuesta estará dirigida a trabajara en torno a las disputas que pueden surgir en un aula educativa y la cohesión grupal, partiendo del desarrollo de la auto-estima, auto-imagen y identidad de cada uno. Al fin y al cabo, si no nos sentimos bien con nosotros mismos resulta muy difícil crear relaciones socio-afectivas favorables con los demás. Para impulsar lo previamente expuesto desde una perspectiva practica y mediante diferentes técnicas se plantea una unidad didáctica Artística basada en e l contexto del aula de 3 de primaria en San Fermín ikastola.

Como hemos podido observar en el marco teórico se puede decir que las actividades artísticas pueden influir favorablemente en el desarrollo de la auto-estima

y la cohesión grupal. En este contexto y partiendo de los objetivos determinados en el ámbito de la Educación artística en el currículo para este periodo de desarrollo se trabajara el desarrollo emocional, social y moral mediante la expresión plástica.

A pesar de que no se han podido cumplir todos los objetivos propuestos (debido a la falta de tiempo) tras analizar toda la información previamente adquirida se podría decir que en este periodo de edad al ofrecerles a los alumnos diferentes materiales didácticos la motivación de estos ante la práctica artística irá en aumento. En este aspecto la capacidad de expresión de los alumnos podría aumentar gradualmente ofreciéndoles la oportunidad de gozar de nuevas formas de comunicación y expresión.

La prioridad de este trabajo será fomentar la seguridad emocional de los alumnos, fomentando la participación de los alumnos tanto como los valores de tolerancia y respeto. En esto, nos vamos a adentrar en el trabajo de la concepción de la auto imagen y el auto estima (mediante la auto representación) además de trabajar en torno al valor emocional de los colores.

